

Zu hemen zaude. goiena



BELAUNALDI-ERRELEBOA FALTA DA LEHEN SEKTOREAN, ETA IRTENBIDE BILA DABILTZA

Gipuzkoako hainbat erakundek Trebatu programa abiatu dute, eta Bergaran aurkeztu dute; lehen edizioko zazpi trebalarietako bat Bolu-Barri baserrian trebatuko da / 2

Bolu-Barri baserriko Agurtzane Olabarria, Trebatu programako koordinatzaile Telmo Gartzia eta Igor Gauna trebalari osintxuarra atzoko aurkezpenean. XABIER URTZELAI ATXA



31 urtez Elgetako alkate izandako Patxi Basauri Elkoro hil da; bihar izango da hileta-elizkizuna / 3



GOIENA TELEBISTAREN GAINEKO GEHIGARRIA / 19

SINADURAK

	XABIER BERASATEGI / 6		MARTIN ANTIXIA ABASOLO / 14
	JOSU ZUGASTI / 9		ALEX ARTEAGA / 25
	JESUS ARREGI BENGOA / 12		UXJE MONTERO / 30
	MIKEL ARREGI ASKASIBAR / 40		



Itziar Ituño aktoreari elkarrizketa

Osasun mentalarri buruzko erreportajea

"Zalantza barik, maila honetan detaile txikiek zeresan handia dute"

BEÑAT REZUSTA
ASPEKO PILOTARIA

Uda ona egin du bergararrak: hiru torneo irabazi ditu bi hilabetean / 32

Hemen garbiketak
Ura bezain garbia

T.- 943 71 48 45

BULEGOAK ALOKAGAI
GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOAN

Start-up-ak | Enpresak | Ekintzaileak | Autonomoak
60 eta 1.000 m2 artean

Informazioa:
ptgaraia@ptgaraia.eus
943-03 88 46

GARAIA

Trebalariak, lehen sektoreko ustiategietan erreleboa hartzeko gertu

Trebatu egitasmoak irtenbidea eman nahi dio lehen sektoreko belaunaldi-erreleborik ezari. Lehen sektorean euren proiektu profesionala garatu nahi duten ekintzaileei zuzendutako ekimena da, eta Bergarako Bolu-Barri baserrian egin dute aurkezpena

Imanol Beloki Unamuno BERGARA

Trebatu ekimenaren helburu nagusia da belaunaldien arteko erreleborik ezari aurre egitea. Programa horrek lehen sektorean hasi nahi duten pertsonak errelebo bila dabilzan ustiategiekin lotzen ditu. Horrela, Trebatu lehen sektorea indartu nahi du, tokiko elikagaien ekoizpena bultzatuz eta sektorearen epe luzerako bideragarritasuna bermatuz. Ekimen hori hainbat euskal erakunderen arteko elkarlanaren emaitza da: Landaola, Eusko Jaurlaritzza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Lurgintza, Abelur, Erika Fundazioa, Hazi, Lanbide, Etorlur eta Fraisoro Eskola.

Trebatuz, zubi-lana egiten

Egitasmoaren berri emateko, Bergarako Bolu-Barri baserrian egin zuten ekitaldia atzo. Bertan elkartu ziren Edurne Matias Landaolako ordezkaria, Xabier Arruti Lurralde Oreka Berdea Departamentuko diputatua, Telmo Gartzia Trebatu proiektuaren koordinatzailea eta Igor Gauna Bolu-Barri baserriaren bi urteko trebakuntza egingo duen trebalari. "Gero eta ustiategi gutxiago ditugu Gipuzkoan. Horren arrazoi nagusia da ustiategiek euren jarduerekin jarraituko duenik ez dutela. Trebatu proiektuarekin, egoera horri buelta bat eman nahi dugu, lehen sektorean hasi nahi duten pertsonak errelebo bila dabilzan ustiategiekin lotuz", adierazi du Edurne Matiasek, Landaolako ordezkariak.

Etorkizuna sendotzeko

Trebatu proiektuak lehen sektorean proiektu profesionala garatu nahi duten ekintzaileei (trebalariak) bi urtez euren ideia

Zer dela-eta animatu zara Trebatu programan parte hartzera?



IGOR GAUNA
TREBALARI
OSINTXUARRA

"Niretzat abentura bat da; Bolu-Barri ez da ortu bat, enpresa bat da"

Igor Gauna (Osintxu, 1961) Trebatu programan parte hartzera animatu da eta bi urtez arituko da Bolu-Barri baserriko lanetan. "Fagor Ederlan enpresan egiten nuen lan, eta aldaketa baten bila hasi nintzen. Jakin nuen Bolu-Barri baserrikoek erreleboa nahi zutela, eta gero, Trebatu programa ezagutu nuen. Eszedentzia hartu dut, eta bi urte hauetan ikasiko dut eurek lan egiteko duten modua, nik ere egiteko. Ekainean hasi nintzen, eta abuztua lasaia izan den arren, irailean eta urrian eskolekin eta lan egiten ari gara. Fraisko zurin egiten ditugu formakuntza-eskolak, eta oso interesgarria da; gero, Bolu-Barrikoek negozioa aurrera eramateko ikasgaiak ikastea ere bada intereskoa. Programa honen moduan, Bolu-Barri bideragarria dela uste dut. Niretzat abentura bat da, eta Bolu-Barri ez da ortu bat soilik, enpresa bat da".



ANDONI OLABARRIA
BOLU-BARRI
BASERRIKO BAZKIDEA

"Ez dugu itxi nahi, baina esku onetan utzi nahi dugu"

Begarako Bolu-Barri baserriko bazkideetako bat da Andoni Olabarria (Bergara, 1961). Trebatu programan parte hartzeko hautua egin du, erreleborik ez dutelako. "Gure seme-alabek ikasketa oso onak dituzte: arkitektoa, ingeniaria, medikua... Lanean ari dira eta hona ez dira etorriko. Beraz, garbi ikusi genuen Trebatu programan parte hartzea zela gure aukera. Oraindik ez dakigu etorkizunean zer gertatuko den; izan ere, bi urteko prozesuan gauza asko gertatu daitezke; batzuek atzera egin dezakete edo aurrera; guk garbi dugu inor ez badator itxi egin beharko dugula. Ez dugu itxi nahi, baina esku onetan utzi nahi dugu. Positiboa izatea zaila da; alegia, supermerkatu handien aurka ezin da joan eta azokara geroz eta jende gutxiago doa; edozelan ere, egitasmo honetan parte hartu nahi dutenak ilusioz daude".



Begarako Bolu-Barri baserrian, Trebatu programaren aurkezpenean. TXOMIN MADINA

edo proiektua frogatu eta gartzeko aukera ematen die nekazaritza lanean aritzeko guneetan (trebatzeguneak). Ereditu horrek aukera ematen die lehen sektoreko profesional berriei jada ezarrita dauden ustiategietan euren proiektuak probatzeko. Xabier Arrutik, Lurralde Oreka Berdeko diputatua, horrelako ekimenak instituzioetatik bultzatzeak lehen sektorearen belaunaldi erreleboa bermatzeko duen garrantziak hitz egin zuen ekitaldian. Ildo horretan, beste eragile batzuen erantzukizuna eskatu zuen, hala nola enpresarena edo gizartearena. Hala, ondorioztatu zuen "guztion esku" dagoela lehen sektorearen "etorkizuna sendotzea, funtsezkoa baita haren jardura elikadura jasagarria eta Gipuzkoako lurralde-oreka berdea bermatzeko, klima aldaketa bezalako erronken aurrean".

Gipuzkoan zazpi trebalari

Lehen edizio honetan ekimenak zazpi trebalari ditu, eta dagoeneko lanean dabilta euren proiektuak garatzen Gipuzkoan

edo hainbat ustiategitan (trebatzeguneak), hala nola Bidania-Goiatzen, Oiartzunen, Villabonan, Astigarragan, Bergaran eta Irunen. Ekintzaile horiek hainbat azpisektoretara zuzentzen diren proiektuak dituzte: haragitarako behiak, esnetarako behiak, lore ekologikoen ekoizpena, hegazti-hazkuntza, frutagintza eta baratzezaintza. Azpisektore aniztasun horri esker, Trebatu, belaunaldien arteko erreleborik ezari irtenbideak eskaintzeaz gain, tokiko ekoizpena bultzatzen du, eta garapen jasagarria bultzatu.

Trebatu egitasmoak zabalik jarraitzen du programan parte hartu nahi duten trebalari eta trebatzegune berrientzat. Lehen sektorean hasteko interesa duten pertsonak edo belaunaldi-erreleboaren bidez euren ustiategiei jarraipena eman nahi dieten pertsonak Trebatu programarekin harremanetan jar daitezkeela azaldu dute programaren sustatzaileek, trebatu@landaola.eus posta elektronikoren bidez edo 747 47 34 09 telefono-zenbakira deituz.

31 urtez alkate izandako Patxi Basauri hil da

1976an hartu zuen Elgetako alkatetza eta 2007ra arte egon zen karguan. EAEn ez da beste inor alkatetzan hainbeste urte eman dituenik. Eguaztenean hil zen, 79 urte zituela. Zapatuan izango da hileta-elizkizuna, 19:00etan, Elgetako parrokiari

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Azken urteetan kargu publikorik izan ez badu ere, *Patxi alkatea* izan da beti elgetar askorendako; izan ere, 31 urte egin zituen alkatetzan. Hain zuzen ere, 1976tik 2007ra.

Patxi Basaurik (Elgeta, 1945 / Gasteiz, 2024) 1976ko otsailaren lehen hartu zuen aginte-makila, urte hartan bertan eraturako behin-behineko herri-plataforman aurkeztuta. Diktadura osteko garai demokratikoko Elgetako lehen alkatea izan zen. 1979tik 1987ra hauteskundeetara independente gisa aurkeztuta jarraitu zuen alkatetzan; 1991tik 1995era EAJrekin egindako zerrendetan aurkeztuta; eta 1999an EAJ-EA koalizioaren izenean.

2007ko hauteskundeetan Aralar-Independentek hautagaitza gailendu zen Elgetako udal hauteskundeetan eta Basaurik oposizioko bozeramaile kargua hartu zuen Udalean. Politikatik erretiratu ostean ere lotura estua izan du alderdi jeltzalearekin, eta bukaerara arte hartu du parte herriko lantaldean. 2023ko udal hauteskundeetan ere EAJ-ren Elgetako zerrendan joan zen.

Erabaki garrantzitsu asko

Hainbeste urtez alkate karguan, Elgetaren norabidea markatu duten erabaki garrantzitsu asko hartzea egokitu zitzaion Basauri.

"BETI ESKERTZEOA DA GURE HERRIAGATIK URTEETAN EGINDAKO LANA"

REBEKA UBERA, LEGBILTZARKIDEA

"GAUR EGUNGO HERRIAREN OINARRIAK EZARRI ZITUEN ALKATEA"

IKER LAKA, EAJ ELGETA



Patxi Basauri Elkororen zena, Elgetan. ARTXIBOA

riri. GOIENAK 2019ko apirilaren egindako elkarrizketa batean hasierako urteetako egoera politikoa, beharizan handiak eta diru eskasia zituen gogoan elgetarrak. "Ez ziren garai samurrak eta ez zegoen batere dirurik, baina garai berriak ziren eta ilusio handiarekin sartu ginen zeregin hauetan. Denak, gainera, sartu ginen guztiak", esan zuen.

Ondotik etorri zen erakundearen egituratzea, eta horrekin lotuta Basaurik beti nabarmendu izan zuen Debagoieneko Mankomunitatearen sorrera. "Gauzak martxan jartzeko" erakunde

"EZAGUTZEN DUGUN ELGETA ERAIKITZEKO ETA ULERTZEKO PERTSONA KLABEA"

OXEL EROSTARBE, ALKATE OHIA

"ORAINDIK ERE 'PATXI ALKATEA' ZENA; HERRIA BIHOTZEAN ZUEN ALKATEA"

IBAN ARANTZABAL, GOIENA

garrantzitsua izan zela esan izan zuen beti. Debagoieneko ospitalearen irekiera, Elgetako industrialdearen handitzea... Proiektu askoren sorreran izan zen elgetarra.

Omenaldiak eta aitortzak

Garai politiko erabakigarriak bizi izan zituen alkatetzatik Basaurik, eta azken urteetan hainbat aitortza eta omenaldi jasotzen izan ditu garai bereko beste hainbat alkaterekin batera. Horietan artean, *Makila eskuz esku 40 urtez* leloarekin Eudelek 2019an Gernikako Batzar Etxean EAEko 70 alkate ohi baino gehiagori egindako omenaldia.

Basaurirendako, bestetik, bereziki hunkigarria izan zen parte izandako Alkateen Mugimendua 1976ko uztailaren 21ean Bergaran egindako ekitaldia gogora ekartzeko 2021ean egindako aitortza. Ibilbide politiko hasierako emozioak ekarri zituen gogora: "Francoren heriotzaren ostean giltzarik gabeko kaiola batean moduan geunden denok, eta kaiolatik atera ginen. Oso ederra izan zen, eta oso berezia, denok batera irten gi-

nelako. Gaur egun nahikoa lan bada denok batera ezer egitea", adierazi zuen.

Dolumin-mezu ugari

Heriotzaren berri zabaldu bezain pronto heldu dira erreazio mezuak. Elgetako EAJko bozeramaile Iker Lakak Elgetaren zerbitzura Basaurik emandako urteak nabarmendu ditu. Rebe-ka Ubera legebiltzarkide elgetarrak, berriz, udal jardunean izandako eztabaidak: "Baina, eztabaidak eztabaida, beti eskertzekoa da gure herriagatik urteetan egindako lana, eskainitako denbora". Patxi Basauri txanda hartu eta Elgetan zortzi urtez alkate izandako Oxel Erostarbek, aldiz, Basaurik herriagatik emandako hamarkadak nabarmendu ditu, eta "gaur egun ezagutzen dugun Elgeta eraikitzeke eta ulertzeko pertsona klabea" izan dela gaineratu. Eta Goienako zuzendari nagusi Iban Arantzabal elgetarrak esan du "herria bihotzean zuen alkatea" izan dela.

Hileta-elizkizuna zapatuan izango da, 19:00etan, Elgetako parrokiari.



GREMIOAK



LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA
Basabe poligonoa
D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 /
616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

"Elkarrekin lan egiteko modu bat da demokrazia"

ADAM KAHANE GATAZKEN BITARTEKARI ETA BIDERATZAILEA

Hainbat gatazkatan ibili da Kahane lanean; tartean, apartheidaren amaieran. Arantzazulab-ek antolatutako Demokraziaren Berrikuntzak jardunaldien parte izan da

Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA
Gaur amaituko dira Arantzazulab-ek antolatutako Demokraziaren Berrikuntza jardunaldiak. Euskal Herriko eta mundu mailako adituak elkarrekin dira bertan; tartean, Adam Kahane (Montreal, 1950), gatazken bitartekari eta bideratzailea. Kanadako Reos Partners erakundeko zuzendarietako bat da, eta munduko hainbat gatazkatan izan da bitartekari gisa; tartean, Guatemalan 1996ko bake-elkarrizketetan eta Hegoafrikan apartheidaren erregimenaren amaieran. Adituen esanak entzuteaz eta ondorioak emateaz arduratu da.

Zerk ekarri zaitu Euskal Herrira?

Ikasteko leku garrantzitsua dela uste dudalako nago hemen. Uler-tu nahi ditudan gauzak, munduko jende gehienak ulertu nahi dituen gauzak, ulertzeko Euskal Herria oso adibide garrantzitsua dela esango nuke. Demokraziaren eta bizi izan dituzuen garai zailen inguruan dauzkagun galdera guztiei zuek ematen dizkiezuen erantzunak jakin nahi ditut. Euskal Herria oso garrantzitsua da ulermen motibazio horrentzat. Iraganeko gertatutakoak erabiltzea eta etorkizunekoak pentsatzea; erantzun garrantzitsuak aurkitu daitezkeen lekua da hau. Ikasten zabilatzaten hori ikasi nahi dut, eta ahal dudan guztian ekarpen bat egin. **Ezberdinen arteko lankidetzan zara aditua; nola harremantzen da hori demokraziarekin?**

Eskerrik asko galdera hori egi-teagatik, benetan. Gaur goizean, gosaltzen nenbilela, horretaz hausnartzen ibili naiz justu. Pentsatu ostean, erantzuna oso sinplea dela jabetu naiz: demokrazia kolaborazioaren forma instituzionalizatua da. Kolaborazioak elkarrekin lan egitea dakar, ez batek besteari zer egin behar duen esatea. Demokrazia elkarrekin lan egiteko modu horizontal bat da. Hau *ad hoc*



Adam Kahane, Arantzazulab-ek. IÑAKI LUZARRAGA

"EGOERA HAUEK BETI IKUSTEN DIRA EZINEZKOAGOAK GATAZKAREN ERDIAN ZAUDENEAN"

egin daiteke; badakizu, gu biok kolaboratzen gabilta orain, elkarriketa hau aurrera ateratzeko. Hau gure egunerokotasunean egin dezakegu baita, familia harremanetan edo parte hartzen dugun antolakundeetan, esaterako. Baina honek forma instituzionalizatua izatea nahi baldin badugu, esango nuke hartzen duen forma demokrazia dela.

Nola eramaten da instituzionalizazio hori praktikara?

Bueno, neurri batean, hori da hemen ikasi nahi dudana gauzetako bat. Esango nuke orain indarrean dagoen demokrazia formak, izan Euskal Herrian, Espainian edo Kanadan, honi erantzuteko modu bat behar duela. Gu ordezkatzeko hautatzen ditugun pertsona batzuk ditugu, sortzen diren galderei bozketa eta eztabaida bidez erantzuten

dietenak; beraz, demokrazia elkarrekin modu baketsuan lan egiteko modu bat dela esan daiteke. Demokrazia autoritarismoaren alternatiba da. Baina honek duela 50, 100 edo 200 urte hartu zuen forma oraindik forma egokiena da? Zein da bizi ditugun garaiei modu egokienean erantzuneko forma? Eskala handiagoko arazoei aurre egiten gabilta, baita eskala txikiak ere. Gainera, gauzak inoiz baino azkarrago doaz.

Posible da ezberdinen arteko lankidetzaren erreal bat?

Egoera hauek beti ikusten dira ezinezkoagoak gatazkaren erdian zaudenean, gertu harrapatzen zaituztenean. Askotan, jendeak pentsatzen du: "Nola egingo dut nik lan hauekin? Ez du inolako zentzurik". Jendeak bestea oker dabilela pentsatzen du, elkarrekin lan egiteko modurik ez dagoela, baina errealitate posible dela da, eta beharrezkoa dela, honen alternatiba biolentzia delako. Hau munduko hainbat lekutan ikusi dugu gertatzen; beraz, oso garrantzitsua da elkarrekin lan egiteko moduak bilatzen hastea, desadostasun ororen gainetik.

Boluntariotza-programa, beharra duten gurasoei laguntzeko

Baketik Fundazioak 'Home Start Gipuzkoa: familiak eskuz esku' programa aurkeztu du aste honetan

H.L.H. DEBAGOIENA

Baketik Fundazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin babesarekin, boluntariotza-programa bat jarri du martxan. Arrasaten eman dute programaren berri, eskualdeko bizilagunak proiektu horretan parte hartzeri animatu daitezke.

Proiektuaren ardatza da boluntarioen laguntza informala eta ez-profesionalaren bidez haien haurrak hazteko zailtasunen bat izaten ari diren gurasoei laguntza ematea. "Programa pilotu hori 8 urtetik behera dituzten haurren familiei zuzendutako egitasmoa da. Familia horien egunerokotasunean eragin nahi dugu, seme-alabak hobeto zaintzeko, hezteko eta haiekiko harremanak estutzeko gai izan daitezke", adierazi du Cristina Suarezek, *Home Start Gipuzkoa: familiak eskuz esku*-ren



Proiektuaren arduradunak. L. ZEBERIO

arduradunak. Familia-eredu ugari daudela jakinda, familia gurasobakar amadunei leku berezia ematen die erakundeak.

Programak lantalde profesional bat du, fase guztietan boluntarioei prestakuntza, laguntza eta aholkularitza eskaintzeko.

Ekitaldi ugari, hilaren 19ko erreka garbiketa bateratuaz gain

Errekak Bizi Auzolanean egitasmoak zortzi ekintza antolatu ditu, martitzenetik aurrera, bailarako herrietan


H.L.H. DEBAGOIENA

Hitzaldiak, ikus-entzunezkoen emanaldiak eta bisita gidatuak antolatu dituzte Debagoianean Errekak Bizi Auzolanean ekimeneko kideek, urriaren 19an auzolanean egingo den erreka garbiketa prestatzeko eta tentsibilizazioan sakontzeko.

Urriaren 15ean Elgetan, Bergaran eta Oñatin dauzkate hitzorduak, 16an Aretxabaletan, Arrasaten eta Oñatin, 17an Armaion eta 18an Oñatin –edukiak eta ordutegiak *goiena.eus*-eko albistean-. "Ekitaldi guztien helburua da Deba ibaia eta bere arroa ezagutu eta horren inguruan hausnarketak sustatzea", azaldu dute taldeko kideek.

Garbiketa bateratua 19an

Datorren asteko zapatuan egingo dute Debagoieneko III. Erreka Auzolana. Garbiketa batera-



lazio erreka garbiketan. GOIENA

tuan parte hartzeko eta aseguruia egin ahal izateko, izen-emate orria bete behar da, Instagram-meko *@debagoienan_errekak_bizi* kontuan, urriaren 13aren aurretik. Antzuolan bihar, hilak 12, egingo dute erreka garbitzeko auzolana –ikus 18.orria–.



Altxalili kabaretaren ikuskizuna. 'ALTXALILI'

LGTBIQ+ kolektiboari eta Elorregiri ikusgarritasuna

Zapatuan, urriak 12, 'QueElorregi' jaialdi irekia egingo dute Debagoienaren bihotzean, Elorregi auzoan. 22:00etan hasiko dute egitaraua, 'Altxalili' kabaretarekin, eta ordu txikiak arte egingo dute parranda, autobus geltoki osteko aparkalekuan

Hasier Larrea Herrero DEBAGOIENA
Udaberrian sanprudentziotan botatako ideiak forma hartu du eta bihar bertan gauzatuko da, bizpahiru auzotarrek hariak mugitu eta gero. Horieta bat da Jone Ojea, eta honela azaldu du zertan datzan *QueElorregi* jaialdia: "Hasierako asmoa zen *Altxalili* kabareta ekartzea. Iparraldeko artistek osatzen dute ikuskizuna, eta aldarrikatzen dutena da landa-eremuan bizi diren LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen ikusgarritasuna, egunerokotasunean euren identitatea eta sexualitatea modu ireki eta naturalean aldarrikatzeko zailtasunen aurrean".

Eskaintza zabala

Kabaret horretako kide da Alex Arzelus: "Auzoan bizi ez den arren, Elorregirekin lotura estua duen saltseroa da, eta nahiko ezaguna arlo askotan. Arrate Irratian lan egiten du, euskara irakaslea da, eta trikitizale amorratua. Beraz, gora etorri ginen eta hango eta hemengoekin harremanetan jarrita egitarau osatua antolatu dugu, azkenean", aipatu du Ojeak.

22:00etan hasiko da jaialdia, hain zuzen, *Altxalili* kabaretaren ikuskizunarekin. Ostean, Xarma Leonek drag emanaldia egingo du, ordu erdi ingurukoa, 23:30ean. Gauerdia iristeaz bat pandero eta trikiti soinuek hartuko dute plaza, Xabier Etxaniz eta Uxue Kerejetaren eskutik. Eta dibertsioari jarraipena emateko, MJ Manuela Ahizpak jarriko du musika, 01:30etik aurrera.

Hainbaten inplikazioarekin

Festa "irekia" dela azpimarratu du Ojeak, "ikuskitzen horiekiko interesa izan ahal duen edonori eta ondo pasa nahi duen edonori begira" antolatutakoa. Eragile askoren babesa lortu dute, gainera. Izan ere, txosna bat jarriko dute, Bergarako Udaleko Berdintasun Sailak egindako ekarpena baliatuta, Morbor kolektiboak edozein eratako erasoen aurkako protokoloa izango du martxan, eta inguruko talde feministetako kideek txandak egingo dituzte barran.

Auzoari ikusgarritasuna emateko ekimena ere bada *QueElorregi*, "jendea hona etorri eta hemen egotera animatu dadin".

Esan agur barizeei!

Zure barizeen tratamendurako kirurgiarik gabeko konponbidea

Zainetako ultzera eta kirurgiaren ondoren berragertutako barizeetan espezializatutako erradiologo interbentzionistak

Ibilbide zabal baten ondoren eta Varitek klinikan arrakastaz sendatutako zain safenoen 2.500 kasu baino gehiagoren ostean, kirurgiaren beharrik gabeko metodologia berritzaile eta zehatza osatu dugu barize mota guztien tratamendurako.

Diagnostiko xehe baten bidez, tratamendu pertsonalizatuak diseinatzen ditugu, pazientearen bizitzan ahalik eta eragin txikiena izan dezaten. Horretarako, barizeak kirurgiarik gabe, ospitaleraterik eta konbaleszentziarik gabe eta adin-mugarik gabe tratatzeko aukera ematen diguten teknikak erabiltzen ditugu.



RPS 55/19

variTek

EGOITZA BERRIA! ▶

Alameda Rekalde 13
Bilbao-Bilbo



BILBO
690 623 391

Atotxa Zelala plaza z.g.
Donostia-San Sebastián




DONOSTIA
666 776 159

Florida kalea 72
Vitoria-Gasteiz



GASTEIZ
689 338 931

varitek@varitek.es    www.varitek.es

LAGUNAROREKIN adostasuna  LAGUN ARO



ZABALIK

XABIER BERASATEGI

Erretiro handia eta immigrazioa

Enpresan langileak behar ditugu; erretiro handia hasi da. *Baby boom* generazioko hainbat eta hainbat pertsona urtean zehar Benidormera joateko edota Europa zaharrean barrena bidaiatzeko deseatzan daude, hainbeste urtez lanean egon ondoren. Hurrengo 30 urteetan, 240.000 pertsonak hartuko dute erretiroa gurean; hau da, pertsona falta nabarmena izango dugu lan arloan. Confebask-en esanetan, belaunaldi erreleboa eta hazkunde erritmoa mantentzeko, 400.000 pertsona beharko ditugu. Atzerrian dauden euskaldun guztien etorrera eta jaiotza berrien tasa batuta, ez ginateke inolaz ere iritsiko kopuru horretara. Hori dela eta, ezinbestekoa da immigrazioa gurean. Lanari zuzendutako immigrazio estrategia etikoak behar ditugu.

Lan arloan badauzkagu egitekoak: jatorrizko herrietako erakundeekin akordio etikoetara iritsi, etorritakoei hezkuntza eta lan sisteman integratzen lagundu eta abar, eta abar.

ATZERRIAN DAUDEN EUSKALDUNAK ERAKARRI BEHAR DITUGU, KIDETASUN SENTIPENA LANDUTA

Dena den, immigrazioa herrialdearen erronka da eta bere osotasunean kudeatu beharra dago, ezinbestean.

Zedarrriak-en azken txostenean jasotzen den bezala, erronka

desberdinen aurrean gaude eta berandu goazen irudipen handia daukat...

Atzerrian dauden euskaldunak erakarri behar ditugu; horretarako, erakargarriak izan behar dugu beraientzat, kidesun sentipena landuz eta bueltatzeko erraztasunak eskainiz. Nola egin dezakegu hori? Benetan baliozkoak direla transmitituz eta beraien etorkizunaz arduratuz. Hor dago gakoa.

Gizarte multietniko eta multikulturalari dagokionez, erronka hauek aipatzen ditu Zedarrriak-en txostenak: harreraren eta integrazio sozioekonomikoaren erronka eta identitatearen eta kulturen arteko bizikidetzaren erronka. Goazen horri kosk egitera. Horretarako, elkarlan publiko eta pribatua derrigorrezkoa da, baita gure agintarien lidergoa ere. Berandu goaz...

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



*USAF. DELEKTIBITATE EREDU BERRIA.

HANDIK ETA HEMENDIK

Loaz

ANDONI EGAÑA

'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/CJPS6](https://labur.eus/cjps6)

Kexu zen atzo Goizalde Landabaso bere zutabeen.

Auskalo nork, auskalo nondik eta auskalo zer saltzeko gauaren erdian telefonoz deitzen duten horiek zituen mintzagai.

Ni ere amorrarazi egiten naute "ni ez naiz nor zure etxean sartzeko" garai bateko esaldi elizkoia "ni banaiz nor zure etxean saltzeko" egungo esaldi hiperkapitalistaren truk ordezkatu duten horiek.

Zorte handia izan genuen guk umetan.

Irakasle on asko egokitu zen gure jiran.

Horietako bat, Imanol Urbietia.

Ezagunak dira Imanolek hezkuntza arloan egindako ekarpenak.

Kantuak sortu ehunka, haur bakoitzari gara zedin tresnak eskaini, motrizitatea landu jolasean, gelakideen elkarbizitzari garrantzia eman...

Giro onean hezi gintuzten.

Tupustaldiak ere sortzen ziren, orde, noizbehinka.

Gau hartakoa beti izango dut gogoan.

Udako bidaiak luze haietako batean, Bartzelonan geunden, komentu bateko

sarrerera-gelako zorua genuen lotarako leku.

Lokartzeko garaia heldu zen eta gutariko batzuk ez geunden lotarako.

Jiji eta jaja hasi ginen. Isiltzeko Imanolek.

Guk segi.

Isiltzeko berriz Imanolek. Segi guk, nerabe.

Eta Imanol benetan haserretu zitzaigun orduan.

Gogoan iltzatuta geratu zitzaidan ze esaldi bota zigun, petralduta: "Besteren loa sakratua da!".

Bost silaba eta bost silaba. Bertso hasiera perfektua.

Desorduetan deitzen duten horiei kantuan erantzungo diet aurrerantzean...

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia

Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube,
Larraitz Zeberio.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Bereziar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Antzuolako Alardearen Elkartetik**XABIER LEGORBURU IGARZA**

ANTZUOLAKO ALARDEAREN ELKARTEAREN

LEHENDAKARIA

ANTZUOLA

Antzuolako Udalak Alardearen musika edo martxa aldatzeko hartu duen erabakiaren aurrean, Alardearen Kultur Elkarteak zera adierazi nahi du:

Udalbatza berriek badute ohitura euren egitasmoak herritarrei adierazteko eta mahai gaineratzeko, eta helburu horrekin bildu zen Udala Alardearen Elkartearekin. Bertan adierazi zitzaigun Alardea dinamizatzeko batzorde bat sortu nahi zuela Udalak, eta bere lehentasuna Alardean jotzen den martxa aldatzea zela: oraingoa "español" zela, Espainiako ereserkiarekin zerikusia zuela, eta bai ala bai aldatu behar zela. Elkartearen lehentasuna, berriz, beste bat: herritarren artean Alardearen parte hartzea gehiago sustatzea.

Hala ere, Udalak egindako gonbita onartu eta antolatutako batzordeko bileretara joan ginen elkartekook. Hasieratik argi geratu zen Udalaren helburua martxa lehenbailehen aldatzea zela. Elkartearena, esan bezala, beste bat: Alardea

indartzeko asmoz, sinergiak bilatzea. Nola? Alardean parte hartzen duten eragileekin batera –Udala, txistulari, dantzari...–, eta ezer baino lehen, aipatutako batzorde horrek lanerako behar dituen prozedura eta funtzionamendurako irizpideak ondo definitzeko eztabaidatzen hasiz, eta ondoren etorriko direla erabakiak hartzeko momentuak; presarik gabe.

Gogoratu genion Udalari Alardean egin diren aldaketak eragile ezberdinen parte hartze prozesu eta adostasunaren bitartez egin direla, eta, oraingoa, martxaren aldaketaren kasuan ere, horrela izan beharko litzatekeela.

Guk urtetan dihardugu Alardearen alde lan egiten eta prest gaude lanean jarraitzeko, hainbat urtetan adierazitako esperientzia partekatzeke, bide orri bat diseinatzeke. Eta baita Udalak antolatutako batzordean parte hartzeko ere, baina patxadaz, prozedurak eta joko arauak partekatuz eta adostuz. Ondoren etorriko dira Alardearen inguruko hausnarketak eta hartu beharreko erabakiak. Horretarako, eta beti egin den bezala, alarde-kide eta herritarren ahotsa ere baliagarria izango dugu.

Gu prest gaude bide horretan lanean jarraitzeko. Berreskuratu ditzagun, bada, konfiantza eta elkarrizketa; betiere, antzular guztiona den Alardearen onerako.

BSTK Fundazioa**PI TER ENCINAS**

ARRASATE

Zer da Basotik Fundazioa? Erakunde publiko bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik sortutakoa, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak %100 kudeatzen du ekonomikoki.

Noiz eta zertarako sortu zuten BSTK Fundazioa? 2022ko irailean sortu zen; hitz gutxitan esanda, Gipuzkoako basoak zaintzeko eta kudeatzeko. Horrela esanda, egitasmoa ona da, baina, nire iritziz, ez da zuzena nola lan egiten duten. Gipuzkoako Foru Aldundiak Nafarroan eta Araban duten egoera bera lortu beharko luke; jakina, horretarako, gauza bat aldatu egin beharko litzateke: Gipuzkoan baso pribatuak %80 dira, eta datu hori oso-oso garrantzitsua da.

Zergatik ematen diot garrantzia ehunekoari? Ni ez nagoelako ados diru publikoa eremu

pribatuetan gastatzearekin; ziur nago esango dudana baso-jabeei ez zaiela gustatuko, baina hauxe da nire ikuspuntua. Uste dut Gipuzkoako Foru Aldundiak baso-politikan bost norabideko legea ezarri beharko lukeela:

1-Lege bat ezarri beharko luke azkar hazten diren zuhaitzen kopurua murrizteko eta debekatzeko; adibidez, eukalipto landatzea debekatu egin beharko luke eta insignis pinuarena %10ean utzi beharko luke.

2-Zaindu gabeko mendien jabeei zigorrak jarri beharko lizkieke.

3-Gipuzkoako Foru Aldundiak mendi landu gabeak erosi beharko litzateke publiko bihurtzeko.

4-Astiro hazten diren zuhaitzak edo autoktonoak landatzeko politika egin beharko luke.

5-Eremu berberean bi aldiz jarraian insignis pinua landatzea debekatu egin beharko luke.

Politikariei natura, ekologismoa, klima aldaketa eta abar axola balitzaizkie, ez litzateke onartu beharko AHT bezalako proiektuak, ezta babestu beharreko eremuetan proiektu eolikoak ere. Politikari horiek enpresa

kutsatzaileak eta isurketa-eragileak zelatatu beharko litzateke, gure hondakinak ganoraz kudeatu beharko litzateke; eta, jakina, desberdin pentsatzen dugunon iritzia kontuan hartu beharko litzateke.

Suizidio gutxiago**JOSU GARITONANDIA**

'OPARITU ZUHAITZ BAT'

EGITASMOAREN ARDURADUNA

BERGARA

Aspaldiko partez, 2023an suizidioaren goranzko joera bukatu egin da; 140 kasu inguru izan dira. Hala ere, pertsona larregi dira: lan-istripuetan hiltzen diren bikoitza baino gehiago.

Osakidetzak neurri berriak hartu ditu gai hori bideratu nahian, baina betiko zerbitzuak gero eta kaxkarragoak dira osasun mentalari dagokionez. Debagoien osorako psikologo bat edukitzea gutxiegi dela aspaldiko kontua da, baina daukagun bakarrak baja hartu behar duenerako ordezkorik ez ipintzeak adierazten du Osakidetzak garrantzi eskasa ematen diola eskualdeko osasun mentalari.

Ondo dago neurri berriak hartzea, baina betiko zerbitzuak murriztu gabe.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna • Eskertza-gutuna • Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna • Aldarrikapen-gutuna • Kexa-gutuna

Osasun mentalean jarriko dute arreta hilaren 18an

Atzo, Osasun Mentalaren Nazioarteko Egunarekin bat eginda, 'Gazteen burua zaintzen: nerabeentzat osasun mentalaren estrategiak eta esku hartze prebentiboak' jardunaldiak aurkeztu zituzten Udalak eta Gipuzkoako San Juan de Dios Ospitaleak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Maider Morras Arrasateko alkatea eta Apolo Zepeda Gipuzkoako San Juan de Dios Ospitaleko mediku zuzendaria izan dira aurkezpen prentsurrekoan. Alkateak hartu du berba lehenik, eta nabarmendu du osasun mentalari buruzko diagnosi bat egingo duela Udalak, gai garrantzitsua dela eta "berebiziko politikak" behar dituela iritzita. "Osasun ekosistema bat sortzen ari gara, prebentzioaren aldetik, eta, askotariko barne bileren ostean, osasun mahai bat sortuko dugu. Horrez gain, diagnosi bat egingo dugu, aurten lizitatuko dena".

Bitartean, beste eragile eta instituzio batzuekin elkarlanean ere ari da Udala, eta horren harira datoz San Juan de Dios Ospitalearekin batera egingo dituzten jardunaldiak.

Zepedak, bestalde, "elkarlan integralaren" beharraz hitz egin du, erakundeen arteko elkarlanaren beharraz. "Ezinbestekoa dugu lankidetzan aritzea udalekin, familiekin, eskolekin, kirol-klubekin, aisialdi-taldeekin eta Eusko Jaurlaritzako arlo ezberdinekin. Gaur egungo gizartean, erronka handia da nerabeen artean buruko gaixotasunak areagotzea, hala nola antsietatea, depresioa, elikadura-jokabidearen nahasmenduak eta autolesioak".

Jardunaldiak nerabeei laguntza ematearen markoan kokatzen dituztela dio: "Gazteak babestu egin behar ditugu eta era erresilienteak irakatsi behar dizkiegu estresa edota antsietatea askatzeko; finean, norbere buruarekiko erasotzat har daitekeen edozein gauzgatik askatzeko. Horretarako, erreminta psikologiko egokiak behar dituzte".

Lehena, prebentzioaz

Kulturaren egingo dituzte jardunaldiak, urriaren 18an. Irekiera



Atzo aurkeztu zituzten jardunaldiak Maider Morras eta Apolo Zepedak. E.A.B.

KULTURATEKO ARETO NAGUSIAN EGINGO DITUZTE SAIOAK, ETA IREKIAK IZANGO DIRA HERRITARRENTZAT

instituzionala egingo dute Maider Morras alkateak eta Elena Urdaneta San Juan de Dios Ospitaleko III. Lurralde Unitateko zuzendariak.

Prebentzioari eskainitakoa izango da lehen mahai-ingurua -09:30etik 11:30era-, eta Carmen Maganto izango da hizlarietako bat, Psikologian doktore, ohoerko irakasle eta Psikologia Klinikoko espezialista. "Esku-hartzei, sexismoari eta elikadura-nahastei buruzko ikerkuntzan esperientzia handia du, eta nerabeek egungo gizarte likidoan dituzten erronkei buruz hitz egingo du, baita osasun mentalerako eta erresilientziarako erronkei buruz ere", dio Zepedak.

Haren ondoan Ariadna Galtes psikologoa egongo da, Henka taldeko prestakuntza-proiektuen koordinatzailea. Hark Henka proiektua aurkeztuko du eta erresilientziaren hiru dimen-

tsioak azalduko ditu, ezbeharren aurrean gazteek nola indartu behar duten azaltzen duen ikuspuntu berritzaile bat eskainita. Moderatzaile lanak Maite Aizpiri Arrasateko Udaleko Prebentzio teknikariak egingo ditu.

Bigarrena, esku-hartzeaz

Etenaldiaren ostean, 12:00etatik 14:00etara egingo dute bigarren saioa, esku-hartzea ardatz hartuta, Zepedak moderatuta. Batetik, Monika Salgueiro psikologoa eta Neurozientzian doktorea ariko da, eta nerabeen artean ohikoena diren buruko nahasmenduei buruz duen eza-gutza partekatuko du. Andres Suarez izango da beste hizlaria, Madrilgo Nuestra Señora de la Paz Klinikako psikiatra. "Haur eta gazteen osasun mentala tratatzeko gaur egun dauden esku-hartzei buruz arituko da".

Musika eta liburu aurkezpena

Bestalde, San Juan de Dios Ospitaleak antolatuta, De Juan a Juan kontzertu akustikoa egingo dute hilaren 17an Kulturaten, 18:00etan hasita, eta *De Juan a Juan, el libreto y un relato* liburua ere aurkeztuko dute.

Dolu perinatalaren inguruko tabuak apurtzeko emanaldia

Emakume Txokoak eta Esku Hutsik elkarteak 'Dolu perinatala ikusgai' izeneko saioa egingo dute eguenean

E.A.B. ARRASATE

Arrasateko Emakume Txokoak eta Esku Hutsik elkarteak *Dolu perinatala ikusgai* emanaldia aurkeztu dute. "Uste ez dugun arren, gaur egun lau haurdunalditik bat ez da heltzen amaierara", nabarmendu dute. Hori dela eta, dolu perinatala gizarteratzea helburu hartuta, Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumean egingo dute eman-kizuna, urriaren 17an, 19:00etan.

Eider Otxoak, doluan espezializatua den terapeutak, gidatuko du saioa, eta hainbat artistak

parte hartuko dute. Hain zuzen, Kat Lumen abeslaria, Diana Wondy dantzaria eta Miren Amuriza bertsolaria izango dira, Alaine Agirreren hitzekin lagunduta. "Zalantzarik gabe, artearen bidez hain ikusezina eta mingarria den gai honi buruzko sentsibilizazioa bilatzen da ekimen horretan", adierazi dute antolatzaileek.

Bestalde, urriaren 15ean, Heriotza Perinatalaren Nazioarteko Egunean, elkarretaratzea egingo dute, 20:00etan, Seber Altuben, Esku Hutsik elkarteak deituta.

GORA ETA BEHERA



Edukiontzia erreta Obenerreka kalean

Herritar batek irmoki salatu du edukiontzien erreketak, eta GOIENARI mezu bat bidali. "Nire galdera da: zer lortzen dugu edukiontzia erreta? Zerbait gaizki egiten ari gara", adierazi du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Herriko landa-lurra erosteko prozesua ireki du Udalak

Lur-jabeek euren eskaintzak egin ditzakete jada, lehiaketaren oinarri erantzunez. Salerosketa horretarako 100.000 euroko aurrekontua izango du Udalak. Proposamenak isilpekoak izango dira, eta, horretarako, bi gutun azal itxi (A eta B) edo bi artxibo elektronikoa (A eta B) beharko dira. A gutun-azalean lursailaren irizpide teknikoak

jasoko dituzte; hau da, kokapena eta azalera. B gutun-azalean, aldiz, irizpide ekonomikoak, hau da, jabeak sailaren salerosketarako ezarritako prezioa (euro/m²). Prezio horrek ezingo du gainditu gehieneko prezioa (0,50 euro/m²). A eta B irizpideetan jasotako puntuazioaren arabera erosiko ditu Udalak lursailak, aurrekontua agortu arte.

Informazio gehiago, zenbaki hauetan: 943 25 20 09 eta 943 25 20 00 (201 luzapena); edo rugar-te@arrasate.eus helbidean.



Arrasate Zientzia Elkarteak kideak, armarrriaren sinadura pantailan dutela. E.A.B.

Udaletxeko armarrriaren sinadura deskubritu dute

Arrasateko Udala, Arrasate Zientziaren Laguntzarekin, autogidatutako bisitak lantzen ari da, eta lanketa horretan deskubritu dute armarrriak sinadura duela. Aurkikuntza horren berri emango dute, besteak beste, urriaren 19an egingo duten bisita gidatuan

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko udaletxeko armarrriaren, koroaren gainean, egilearen sinadura dagoela berretsi du Arrasate Zientzia Elkarteak. Udalarekin elkarlanean egiten ari diren lanketan, Emovere enpresak dronearekin ateratako argazki baten bitartez egin dute aurkikuntza. "Letona historialariak zioen 1760an onartu zutela armarrriaren diseinua. Halaber, Uranga historialariak nabarmendu zuen koroak egilearen sinadura zuela barnean, Manuel Martin Carrerarena, hain zuzen. Armarrria 18 urterekin egin zuela ere jartzeko du sinaduran", azaldu du Jabier Bengoak, Arrasate Zientzia Elkarteak kideak.

Iturriotz iturritik abiatuta Ondarearen Europako Jardunaldien baitan, hirigune historikoko armarrriak ezagutzeko bisita gidatua egingo du Arrasate Zientzia Elkarteak, Jose Mari Agirre historialariarekin

batera. Urriaren 19an izango da, 11:00etan Iturriotz iturritik abiatuta –Zerrajera kalea– eta, hain zuzen, bisita hori baliatuko dute aurkikuntzaren berri emateko. Hogei plazako muga izango du saioak, euskaraz zein gaztelaniaz izango denak, eta parte hartzeko izena eman beharko da, 943 25 20 20 zenbakira deituta edo kultura@arrasate.eus hebidera idatzita. Bisita gidatua doakoa izango da.

Armarrriak ardatz dituen bisita Hirigune historikoan dauden etxeetako eta jauregiatako armarrriak ezagutzeko aukera izango da bisita horretan, "Iturriotz iturria Erdi Arotik erreferentzia izan da herritarrei ura hornitze-

ERDIGUNEKO ETXE ETA JAUREGIETAKO ARMARRIAK EZAGUTUKO DITUZTE URRIAREN 19AN

ko. Beharbada, Arrasateko eraikin zaharrenetakoa izango da, 1390ekoa", azaldu du Bengoak.

Handik Arrasate pasealekura joango dira eta Iturriotz kaletik sartuko dira erdigunera. "Han, Bañez de Artazubiaga jauregiko armarrriari buruzko azalpenak emango ditugu eta handik Indianokua etxera joango gara; gero, Portaloira iritsiko gara. Beste hainbat armarrri ere erakutsiko dizkiegu herritarrei", zehaztu du Bengoak. Udaletxeko armarrriaren azalpenarekin bukatuko dute bisita, aurkikuntzaren berri emateko.

Arrakasta izan ohi dute Arrasate Zientzia Elkarteak askotariko bisitak egin izan ditu jardunaldi horien baitan, hala nola Amandre Santa Inesi buruzkoa eta Uribarriko Tellerixe labera egindakoa, eta Bengoak dio arrakasta handia izan ohi dutela bisita horiek: "Ohiko merkatutik kanpo dauden bisitak eginen saiatzen gara".

NIRE USTEZ



JOSU ZUGASTI

Celestino Uriarte Bedia

1909an jaio zen, Arrasaten, eta Berlinen hil zen, 1979an. Nerabe zela hasi zen langile borrokan, eta bizitza osoa eman zuen komunismoaren alde, tinko. 1934ko iraultzaren buruetako bat izan zen herrian eta 1936ko gerran Eusko Gudarostean nahiz Asturiasen komandante izan zen. Handik ozta-ozta Kataluniara igaro zen, Ebron 123. Brigadako buru izateko. Gerra galduta, Gürseko kontzentrazio-esparruko euskaldunen arduraduna izan zen eta, naziak iristear zirela, Txilera joan zen, Pablo Nerudak lagunduta. Atlantikoan gerraontzi aleman batek eraso zien, baina Txilera heltzea lortu zuen. 1944an, baina, itzultzea erabaki zuen, Alderdi Komunistaren erresistentziara batzeko, sasian. Gerrillak nahiz masa borroka antolatzen zebilela, atxilotu eta 40 egunez torturatu zuten. Martutenen heriotza-zigorraren zain zegoela, ihes egin zuen eta Alderdi Komunistaren erbesteko egituretan jardun zuen.

Latza, ezta? Bada, antifaxista nekaezin haren bizitza sakonago ezagutzeko aukera izango dugu urriaren 18an, 17:30ean, Kulturaten, Juan Ramon Garairekin. Animatu!

Merkataritzan euskara sustatzeko hainbat zerbitzu

Udaleko Euskara Sailak merkataritzan euskara sustatzeko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu merkatarien artean, eta Hizkuntza Zerbitzuen Katalogoa ari zaie banatzen merkatariei. Hizkuntza aholkularitza eskaintzen dute –itzulpenak, zuzenketak...– eta diruz laguntzen dituzte errotuluak zein webgunea bera euskaraz jartzeko aukera egiten dutenak. Informazio gehiago, Arrasateko Euskara Zerbitzuan –943 25 20 08 zenbakian edo euskara@arrasate.eus helbidean– edo Udal Euskaltegian –943 25 20 00 zenbakian edo euskaltegi@arrasate.eus helbidean–. Euskara ikasteko ikastaroan izena emateko azken eguna bihar da.

'Zenbat lo' liburua aurkeztuko du Nekane Txapartegik

Urriaren 14an, astelehena, 19:00etan hasiko den saioan aurkeztuko du bere album ilustratua Nekane Txapartegi preso ohiak, Irati Topaguneari. Haur batek kartzelarekin eta preso duen amarekin zer harreman duen kontatzen du liburuak; hain zuzen, liburuaren idazlearen eta haren alabaren esperientzian oinarrituta.

OHARRAK

1949koen kintada

Urriaren 19an Tolosara joango dira, 10:00etan Kulturola ondoko geltokitik irtenda, eta bihar, zapatua, da izena emateko azken eguna.

1959koen kintada

Urriaren 26an egingo dute bazkaria, Garaiaiko jatetxean, eta hilaren 20a da izena emateko azken eguna.

1963koen kintada

Urriaren 26an egingo dute, Arantzazun, eta bihar da izena emateko azken eguna.

1943koen kintada

Azaroaren 2an egingo dute, Buenuena jatetxean. Bertara deituta eman daiteke izena.



"Kostako zait erretiroa hartzea; familia gara"

MARTXEL BALANZATEGI MONDRAGON UNIBERTSITATEKO KAPITAINA

16 urterekin egin zuen lehenengo taldearekin debuta, eta azken hamarkada EBA kategorian egin du; liga hastera doan honetan, oraindik urduri jartzen da

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Martxel Balanzategi (Arrasate, 1992) bizitza erdia darama –ez da hiperbole bat– Ointxe!-ko lehenengo taldean, eta horrek, nahitaez, klubeko erreferentziako jokalarietako bat bilakatu du. Talde nagusian bost entrenatzaile ezagutu ditu eta azken hamarkadan AEBetatik etorri diren hiru jokalarirekin partekatzen du aldagela. Hala ere, kantxan gehien harritu duen jokalaria oraindik ondoan du. Dena ondo bidean, domekan kantxan izango dira biak, gainontzeko taldekideekin batera, liga has-teko gertu.

Saskibaloian zenbat geratzen zaizun galdetu dizuten bakoitzean euro bat emango balizute...

Dagoeneko etxebizitza bat izango nuke Kanariar uharteetan [Barre].

REF 3 mailan, baina, jokalaria beterrano dezente egongo da, ala?

Bai, badaude. Egia da harrobiko taldeek jokalaria oso gazteak izaten dituztela maila honetan, jokalaria gazteak zailtzeko eta goiko taldeetara salto egiteko erabiltzen dituztelako kategoria hauek. Baina, gurea moduko klubetan, herriko taldeetan, jokalaria beterranook badugu lekua. **Bada, neuk galdetuko dizut: saskibaloia uztea pasatu izan zaizu burutik?**

Bai, noski. Neure buruari ere galdetu izan diot hori. Baina ikusten dut kantxan oraindik ekarpena egiten dudala, entrenatzaileak aukera ematen didanean kalitatezko minutuak eskaintzen dizkiodala taldeari, eta hori ezinbestekoa da niretako. Eta bestalde, oraindik asko gozatzen dut saskibaloiarekin. Eta ez saskibaloiarekin bakarrik, baita taldekide hauekin ere. Seguruena, horregatik jarraitzen dut; familia moduko bat sortu dugu, oso harreman estua dugu eta denbora asko pasatzen dugu elkarrekin. Bestalde, gaztetatik



MUko kapitain Martxel Balanzategi. ANGEL AYASTUI

"IAZ AZKAR EMAN GENUEN AMORE; AURTEN EZ ZAIGU HALAKORIK GERTATUKO"

lehiatu garenok lehia bera maite dugu, bizipoza ematen digu horrek.

Egin dezagun urte hauetan guztietan izan dituzun entrenatzaileen errepasoa.

Junior mailako jokalaria nintzela Javi Zurbanok eman zidan lehenengo taldearekin debuta egiteko aukera. Alarcia, Gamarra, Kintana, Biain... Hainbat jokalarik kluba utzi zuten eta hutsune moduko bat geratu zen lehen taldean. Ez dut garai hartako oroitzapen askorik; gogoan dut bigarren taldearekin jokatzeko nuenean lasaia ibiltzen nintzela, lagunartean nengoen. Lehenengo taldearekin jokatzeko beste kontu bat zen. Ondoren, Josu Larreategi etorri zen, eta profesionalismorantz pauso bat eman genuen. ACBko entrenatzailea izandakoa zen, eta igarri egiten zen denean; zorrotza zen:

entrenamenduetan, partiduetan... *Arri*-rekin [Iñaki Ogara] gehiago ikasi nuen saskibaloiarekin gozatzen; nik saskibaloiarenean gauean daukadan kontzeptua *Arri*-k barneratutakoa da, eta Eneko Matak jarraipena eman zion lan horri. Matak ez zeukan *Arri*-k komunikaziorako daukan gaitasuna, baina haren laguntzailea izan zen lehenago, eta ordura arteko lanari jarraipena eman zion. Eta azken urteotan Julen [Berrocal] etorri da klubera. Halakoetan, entrenatzaile batendako ez da izaten erraza jokatzeko estilo oso markatu bat daukan klubera etortzea. Lan horretan gabilta denok, egokitzen.

Eta kantxan gehien harritu zaituen jokalaria nor izan den galdetzen badizut... Imajina dezaket Gasteiz aldera joango dela begirada.

Bai, jokalaria on asko izan ditut ondoan, baina, zalantza barik, Martin Buesa nabarmenduko nuke. Klubak fitxatu egin zuela jakin genuenean harrirituta geratu ginen: Baskoniarekin ACBko liga txapeladuna gurera zetorren... Eta behin iritsita, erakutsi zigun munduko tiporik normalena zela, gutako bat

gehiago zela, baina kantxan sekulako dohainekin.

Nahiz eta AEBetako jokalariek ere jokatu duzun...

Bai, bai. Justin Satchell (2017) izan zen lehenengoa; oso maila polita zuen, baina ez zuen zor-terik izan: Arrasatera etorri eta min hartu zuen segituan. Jordan Rutherford-ek ordezkatu zuen (2018), baina Jordan ez zen batera ondo egokitu. Eta oso ondo egokitu zena Zach Kirschbaum izan zen (2018). Zach bi urtez egon zen gurekin, arrasto polita utzi zuen, baina AEBetan familia zeukan eta pandemian itzultzea erabaki zuen. Tira, denek ezin dute esan euren ibilbidean taldekide amerikarrak izan dituztela [Barre].

Hastera doa liga txapelketa; oraindik urduritasun puntua sumatzen duzu?

Gaztetan moduan ez, baina bai, domekan partiduen atarian sumatuko dut urduritasun hori, bai. Eta hori ona da; hori galtzen dudana egunean, erretirotik gertuago egongo naiz.

Azken urteotan kategorian erreferente bilakatu zarete; zelakoa izan zen iazko urtea?

Zapore gaziarekin amaitu genuen urtea eta horri buruz denboraldi amaieran gure artean zabal egin genuen berba, autokritika modukoa edo... Liga antolatuta dagoen moduan, gaur egun lehenengo bi sailkatuek izaten dute igoera faserako sailkatzeko aukera, eta iaz azkarregi geratu ginen lehia horretatik kanpo. Hori ikusi genuenean ez ginen gehiago lehiatu, edo ez behar den moduan, behintzat. Aurten ez da gauza bera gertatuko.

Ze aurreikuspen duzu?

Taldean iazko bloke mantendu dugu eta ilusioa eta motibazioa errekueratu ditugu. Ikusteko dago kontrarioak zelan indartu diren, baina lesioek errespetatzen bagaituzte uste dut zerbait polita egiteko moduan egon gaitzkeela.

Orain emakumezkoak LF2ra igo dira; beste leku askotan ez moduan, klubetik ahalegin berezia egin da emakumezkoen saskibaloia alde.

Halaxe da; kantxan egindako lanaren saria jasotzen dabilta. Gizonezkoen eta emakumezkoen artean harreman ona dugu; bereziki, taldea gora igo dute nekin dugu harreman estuagoa. Oso harro jarraitu dut egin dutena.

Herensugeek King's Pebrots taldea izango dute aurrean bihar

Arrasateko beterano mailako errugbi taldeak lagunartekoa izango du bihar, zapatua, Moja-tegiko futbol zelaian (18:30), eta Bartzelonatik datozen King's Pebrotskoak izango dituzte aurrean; senior mailako gizon-zkoek Anoetan jokatu dute domekan (11:30), Bera Beraren kontra; eta neskek Unben (12:00), Txingudiren kontra.

Aitor Madinabeitia, hirugarren, karateko British Openean

British Open kyokushinkai txapelketan izan da Madinabeitia. 25 herrialdeko 500 parte-hartzaile izan dira han. Arrasatekoak Michal Kowalczyk poloniarra eta Dave Kientz herbeheretarra mendean hartu zituen, baina finalerdietan, lehia estu baten ostean, Hans Kristian Havreberg norvegiarra gailendu zitzaion *tameshiwari* modalitatean.

Aiba! Seber Altuben hasi eta amaituko dute, ez Biterin

Aiba! mendi martxa oraingo zapatuan egingo dute, urriak 12, eta bi ibilbide izango ditu: luzea, 37 kilometrokoa; eta motza, 17koa. Luzea egiten dutenek 07:00etan hasiko dute mendi zeharkaldia eta motzakoek, 08:00etan. Bada, irteera puntua eta helmuga ez dira hasiera batean aurreikusitako Biterin egongo, Seber Altuben baiziki.

Santanderren lehiatu dira Desoreka Judo taldekoak asteburuan

Kopa Espainiako zirkuitu barruan, Santanderren lehiatu ziren Desorekako judokak aurreko asteburuan, infantil eta kadete mailetan. Kadeteendako trantsizio urtea izango da, maila horretan lehen urteko kirolariak dira eta; infantiletan, berriz, Beñat Ovejerok eta Irati Arribasek nabarmentzeko moduko torneoak egin zituen.



Xabi Larrea, pilotekin oreka mantentzen, egurrezko egituretan barrena. XABI LARREA

Ping-pong pilota arinak gai astunez hitz egiteko

Xabi Larrea malabarista bilbotarrak antzerki fisikorako urratsa egin du 'Pin pang' ikuskizun umoretsuarekin. Amaia antzokian aurkeztuko du bihar, hilak 12, 17:00etan. Haurrak dibertitzeko eta helduek gai serioez hausnartzeko moduko showa dela dio

Hasier Larrea Herrero ARRASATE
Nola egin ikuskizun mutu, ergel eta umoretsu bat, eta, era berean, naturaren errekurtsuen gehiegizko erabilpenaz edota desberdintasun sozialez jardun? Erronka hori jarri zion bere buruari 2020an Xabi Larreak, kalean malabar eta oreka saioak egitera ohituta zegoela. Bi urte pasa zituen ikerketak eta entseguak egiten, ping-pong pilotekin manipulazio-teknikak lantzen. Bazekielako pilota arin horiek joko handia eman zezaketela. "Ping-pong pilotekin trukoak egiten banuen esperientzia apur bat, kaleko ikuskizun batean erabiltzen nituelako. Elementu horiek erabili gura nituen, simple-simple, gauza asko eta zailak azaltzeko, eta prozesua korapilatsua izan da. Baina, azkenean, lortu nuen, laguntzarekin, abiapuntuari forma eman eta ordu-bete eskaseko saio bat moldatzea", azaldu du.

Bi urte daramatza haren esperimentu propioa, *Pin pang*,

oholtzaz oholtza aurkezten, eta oso pozik dago izan duen harre rarekin: "Ia estreinatzearekin bat Ubeda 2022ko Zirku eta Pailazo Jaialdian ikuskizun onenaren saria jaso nuen. Egia esan, ezagutzen ez nuen zirkuitu baten ateak zabaldu dizkit, aretoak zapaldu gabekoa bainintzen".

Magia eta gorputz espresioa

Adin guztietako ikusleei egokitutako saio dibertigarria osatzeko formula topatu du, zirkuko aktore batek behar dituen dohaiak finduta: "Imanol Ituño magoak manipulazio-teknikak erakutsi dizkit, eta Gotzon Mujikarekin gorputz dramatika landu dut; hau da, ze energia, ze mugimendu egin, esan nahi

LARREAREN HITZETAN, "DESBERDINTASUN SOZIALAK AZALTZEKO OBRA ABSURDOA" DA 'PIN PANG'

genuena garbi adierazteko. Lagun gehiagok ere egin dute ekarpena eszenografian edota asmakizunetan, publikoa giro konkretu batean sartzeko".

Orekatik eztabaira

Izan ere, badaude elementu gehiago obran; esaterako, makilekin egindako egiturak. Esanahi sakona dago itxuraz azalekoa den konposaketan: "Pilotak egur-zatien gainean mugitzen dira eta oreka bat mantentzen dute, baina, azkenean, lurrera erortzen dira. Etekin ekonomikoak beste guztiaren gainetik geratzen direla ikusaraztea da asmoa".

Efektu bereziak sortzearen zalea izanik, ahalegin handia egin du klimaxean leherketa bat gertatzeko: "Ehun ping-pong pilota inguru irtengo dira airean, euri-jasa bat balitz bezala". Bizimodu-aldaketara derrigortuta gaudela adierazteko metafora bezala ulertu daiteke. Balora dezatela ikusleek.

Kalitatezko bluesa Herriko Plazan asteburua amaitzeko

Ibai-arte Arrasate Blues jaialdiaren urteko programazioari lotutako kontzertua antolatu du domeka honetarako, hilak 13, 19:00etan. Talde gonbidatua Bartzelonan egoitza duen Balta Bordoy & The Bad Boys izango da. *Rock My Blues Away* album berria aurkeztera etorriko da Balta Bordoy gitarra-jole mallorcarra buru duen laukotea. Or-

ganoak, saxo tenorrak, bateriak eta Victor Puertasen ahotsak lagunduta, blues elektrikoa, gospela, groovea eta jazzta uztartuko dituzte; antolatzaileen iritzi, "publikoa liluratuta mantentzen duen erreperitorio zirraragarria" plazaratuta.

Izan ere, aldizkari espezializatuen ahotan dago *Rock My Blues Away* albuma: "*Blues Blast Magazine*-k lanaren benekotasuna eta dibertsioa goraiatu ditu eta *Soul Bag Magazine*-k, kalitate tekniko eta emozionala".

Baserritar jantziak nola jantzi jakiteko ikastaroa azaroan

Urteurreneko ekimenen baitan, Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeak doako ikastaroa antolatu du, baserritar jantzia, burutik oinetara, nola jantzen den erakusteko. Hitzordua azaroaren 9rako egin dute, 10:30etik 12:00etara, taldeak Kulturolan duen lokalean. Izena eman behar da, eta horretarako orria goiena.eus atariko albistean dago.



Errementari dantzan. GOIENA

Goikobalukoak hasi dira 30. urteurreneko kontzertua prestatzen

1994an sortu zen Goikobalu Txiki abesbatza, bost urte lehenago sortutako Goikobalu Abesbatza-ren harrobi izateko helburuarekin. Aurrerago, Goikobalu Gazte eta Goikobalu Izartxoak taldeak ere sortu ziren, taldeak adin-tarte zabalagoetara hedatzeko asmoz.

Bada, Goikobalu Txiki abesbatza 30. urteurrena aben-

duaren 14an ospatuko dute, kontzertu berezi batekin. Izan ere, urteotan Goikobalu Txiki eta Goikobalu Gazte abesbatzetan ibilitako abeslariak gonbidatu nahi dituzte, emanaldia orain daudenekin batera egin dezaten. Atzo egin zuten lehen entsegu eta eguen eta asteburu batzuetan jarraituko dute, Juan Arzamendi Musika Etxeko lokalean. Abesbatza horietan ibilitako herritarrek parte hartu gura badute, 669 83 34 38ra idatzi edo deitu dezakete.

Kinki Boys-en abesti gordinak Koolturen, datorren ostegunean

Bilbotik dator Kooltur Ekintza-aren urriko bigarren proposamena: Kinki Boys hirukotea. Hilaren 17an, 22:00etan, Arrasateko gaztetxean punkaren eta post-punk ezezagunaren eragin handia duten kantuak entzun ahaliko dira; haien hitzetan, "zuzenak, gordinak eta errazak, Ramones, Runaways edota Paralysis Permanente gogoratzen dutenak".

Irudiekin eta hitzekin nahastutako ipuinak Santa Marinan

Beatriz Egizabal kontalariak eta Cesar Marcos ilustratzaileak *Kontukantoi* ipuin ilustratuak taularatuko dituzte Santa Marinako auzo bibliotekan hilaren 24an, 19:00etan. 4 urtetik gorako haurrak clown teknikekin txundituko dituzte, "amonak entzundako kontu txiki eta handiak" marrazki eta hitz bidez azaldu-ta. Izen-ematea, arrasate.eus-en.



Aramaioko Irakurle Klub Feministako kideak, euren saio batean. GOIENA

Irakurle Klub Feminista abian da, beste behin

Hilean behin elkartzeko dira eta Ainhoa Aldazabal dinamizatzaileak proposatutako liburua lantzen dute taldean. Hamaika laguneko taldea osatu dute ikasturte honetan eta dagoeneko egin dute lehen saioa. Orain, *Alaska* liburua dute eskuartean

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Iazko ikasturtean baino pertsona bat gehiagorekin hasi du denboraldi berria Aramaioko Irakurle Klub Feministak, eta guztira, hamaika lagun inguru elkartuko dira aurrerantzean, hilean behin, ekainera bitartean.

Astelehenean egin zuten lehen saioa, eta bertan *Trilogía del Baztan*-en lehenengo liburua izan zuten hizpide. Gainera, urtero egiten dute literaturarekin zerikusia daukan irteeraren bat, eta oraingoan, liburua horretan bertan agertzen diren hainbat kokapen ezagutzeko asmoz, asteleheneko lehen saioaren aurretik, asteburuan, Elizondon izan ziren. "Uda pasa ostean, gustura elkartu ginen berriro. Oso talde egituratua da. Pasa dira urte batzuk talde honen hasi ginela, eta talde txikiari hasi ginen, baina urteekin hazten eta egonkortzen joan da. Asteburu polita pasa dugu, eta urtean zehar ere elkartzeko gara elkarrekin afaldu eta liburuei

edo beste kontu batzuei buruz hitz egiteko", adierazi du saioak dinamizatzen dituen Ainhoa Aldazabalek.

Literatura, ertz askotatik

Hilero liburua bat irakurtzen dute eta Aldazabalen proposamena izaten da denetarik irakurtzea: "Normalean, irakurleok joera handiagoa daukagu nobelak irakurtzeko, baina beti programatzen dugu komikiren bat, poesia-liburua, ipuinak, saiakerak, autobiografiak... Alde batetik, saiatzen gara denon gustuak kontuan hartzen, eta, bestetik, gutxien irakurtzen dugun horretan ere material interesgarriak daudela ikusarazi eta bestela irakurriko ez lituzketen liburuek

IKASTURTE GUZTIETAN LITERATURAREKIN ZERIKUSIA DUEN IRTEERAREN BAT ERE EGITEN DUTE

eta proposamenak eskura izateko modu bat ere bada".

Gaineratu du begirada feministatik egiten dutela lan: "Saiazten gara programatzen emakumeen liburuek; berreskuratzen dira testu batzuk agian aspaldikoak direnak, baina emakumeek literaturan markatutako puntuak azpimarratzeko garrantzitsuak direnak; literaturaren bitartez ikusten dugu zein gai idazten hasten diren momentu zehatz batzuetan feminismoak emandako urratsei esker; edo alderantziz, zelan literaturan badauden espazioak feminismoa beranduago iristen den lekuetara... literatur kritika feminista hartzen dugu kontuan beti".

Euskaraz sortuak bai, baina itzulpenak ere lantzen dituztela adierazi du Aldazabalek. Orain esku artean dute Castillo Suarezren *Alaska*. Eta haien asmoa da ikasturte honetan beste hauek ere lantzeko: *Horma*, Uxue Alberdiren *Hetero* azken liburua eta, komikian, *Persepolis*.



NIRE USTEZ

JESUS ARREGI BENGOA

Itsaraz, zeinen mesedetan?

EAEen kontsumitzen den energiaren %25 baino ez da argindarra. Energia berriztagarrien garapena erregulatuko duen LPSa aprobata gabe dago. Nafarroan Iberdrolak planta fotovoltaiko baten eraikuntza *standby*-an utzi berri du, inbertsioa ez delako bideragarria argindarraren prezio baxuagatik. Hala ere, Aramaioko eta Eskoriatzako lurretan argindar lantegi eolikoa egin gura dute: Itsaraz.

Jakina, trantsizio energetikoaren izenean saldu gura digute, baina Aramaioko EAJ-PNVk dioenez: "Proiektu horrek [...] lehen urratsak Statkraften eta Mondragon taldeko pertsona batzuen eskutik eman zituen 2021eko maiatzean". Beraz, enpresa interes hutsek bultzatuta.

Aramaioko eta Eskoriatzako udal biek helegiteak aurkeztu dituzte, "parkeak" ingurugiroan eragingo dituen kalteak direla eta. Auzia Espainiako Mitecok erabaki behar du, baina Arabako diputatu nagusiak publikoki esana du proiektua exekutatu egingo dela. Noizko berriztagarrien eztabaida sakona?

Kopla txapelketako afarirako txartelak eskuragai daude

Azaroaren 15ean egingo dute Aramaioko Bertso Eskolak eta Udalak antolatutako bosgarren kopla txapelketa. Zortzi bertsolari izango dira: Durangoko Igor Elortza, Berako Ekhiñe Zapiain, Abadiñoako Aitor Bizkarra, Urretxuko Amaia Iturriotz, Lesakako Erika Lagoma, Añorgako Unai Gaztelumendi, Gasteizko Eli Zaldua eta Lesakako Josu Sanjurjo. Afalosteko saioa ikusteko afarirako txartelak erreserbatu daitezke, 25 eurotan, 688 62 70 89 zenbakira idatzita. Azaroaren 10era arteko epea izango da, baina antolatzaileek azpimarratu dute aurreko edizioak kontuan hartuta lehenago agortuko direla txartelak.

Argi mozketa egingo dute Suña auzoan eguen goizean

Eguenean, hilak 17, argindar instalazioaren kalitate eta fidagarritasuna hobetzeko, aldizkako argi mozketa egingo dira Suña auzoan 11:30etik 12:00ak bitartean, eta moztuko duten potentzia 50 kW-koa izango da. Hornidura alde aurretik jakinarazi gabe berrezarriko dute. Aparatu elektronikoak deskonektatzea gomendatu dute.

Kaleko pintura lehiaketa egingo dute bihar, zapatua

Edonork har dezake parte bihar, zapatua, egingo den kaleko margo lehiaketa. Estiloa eta teknika librea izango dira eta edozein material erabil daiteke margotzeko. Euskarriak Sastiñan, Bizente Goikoetxea plazan, zigilatuko dira lehiaketaren egunean 08:30etatik eta 10:30ak bitartean, eta margolanak Aramaioko udaletxean, sinatu barik, aurkeztuko dira lehiaketaren egunean 13:30ak arte. Epaimahaiaren erabakia lehiaketaren egunean jakinaraziko da Sastiñan bertan, 15:00etan, eta une horretan banatuko dituzte sariak. Hilaren 18tik 20ra bitartean, berriz, erakusketan jarriko dituzte margolanak.

Aramaion ikus daitezkeen sugeei buruzko hitzaldia

Ur-ekosistemen eta Biodibertsitatearen Astea ospatuko dute Aramaion, eta, horren baitan, hilaren 17an hitzaldia egingo du Aranzadi Zientzia Elkartearen herpetologia saileko kide Ander Izagirrek, *Aramaixoko suge eta sugegorriak. Haien ospe txarraren biktimak?* izenburupean. Kultura etxeko areto nagusian izango da, 18.30ean.



Eskuratu **DOAN** goienakideek dituzten abantaila guztiak

Ordaindu orain 2025eko kuota, 65 euro, eta
DOAN izango dituzu abantailak abendura arte



Gai biziz betetako aldizkaria

Puntua aldizkaria, zure buzoian,
egubakoitzero



Otordu onenak

Debagoieneko jatetxeetan bi
lagunendako otordua irabazteko
aukera astero.



Futbola bertatik bertara

Realaren partiduak Reale Arena
futbol zelaiko premium gunetik
ikusteko zozketa jardunaldi
guztietan.



Hileroko zozketa bereziak

Teknologia-gailuak, jaki-otarreak,
ikuskitunetarako sarrerak eta askoz
gehiago! 2024an, dagoeneko 100
goienakideek baino gehiagok jaso dute
sari bat.



Poltsikorako abantailak

Deskontuak Debagoieneko hainbat
komertziotan eta Arrasateko Avia
gasolindegian.



Deskontuak Goienako zerbitzuetan

Eskelak, iragarki sailkatuak...



Lehentasuna aldizkarietan

Inork baino goizago, *Goiena* eta
Puntua aldizkariak, eguenetan,
00:00etarako irakurtzeko aukera
aplikazioan.



Kalitate onena

Goienako argazki-galeriak eta
bideoak kalitate handian eta
ur-marka barik deskargatzeko
aukera.



Eta, gainera, onura fiskalak

Errenta aitortpenean, Goienarena
lehentasunezko jarduera delako,
%30eko hobaria.

goiena[™]
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Egin zaitez
goienakide:
943 25 05 05

Deitu eta
eman izena!



INFORMAZIO GEHIAGO

Kuarteleko jaiarekin bat egiteko gonbidapena

Sortzaileen "txokoa aldarrikatzea", egiten duten "Iana erakustea eta Aretxabaleta bizirik mantentzea" helburu duen "Herrixa kuarterela!" jaialdia antolatu du Kuartela kultur elkarteak; gaur eta bihar izango da eta kontzertu sorta iragarri dute

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Herrixa kuarterela! izena jarri diote Kuartela kultur elkarteak, laugarrenez, antolatutako jaialdiari, eta "herritarrek bertan pilotzeko" kontzertu sorta antolatu dute urriaren 11rako eta 12rako. "Helburua da herritarrek zein ingurukoak kuartelean elkartzea, gure txokoa aldarrikatzea eta bertan egin duguna erakustea; horrez gain, Aretxabaleta bizirik mantentzea ere bai", adierazi du Beñat Abasolo Mujikak, elkartearen presidentea.

Sei eskaera

Gaur-gaurkoz, 115 erabiltzaile ditu kuartelak; eta irailean egindako deialdiaren ondoren beste sei adierazi dute leku barik daudela: "Etorri zaizkigu dantza talde bat, bakarlarriak, Okila taldeko kideak... Baita Arrasateko hainbaten eskaerak ere; horrek esan gura du beste leku batzuetan ere badagoela gabeziaren bat". Leku eskaeraren gaia urtarrean egingo duten batzar orokorreko gaietako bat izango da: "Behar hori dutenei txoko bat bermatzea da orain gure lana. Ondo bidean, datorren urtean erabiltzaile gehiago izango gara".

Eraikinaren egoerari dagokionez ez dela askorik aldatu azaldu du Abasolok, "nahiz eta konpon-



Kuarteleko musikariak iaz, Herriko Plazan egindako bazkarian. IMANOL SORIANO

keta batzuk" egin dituzten: "Eskertzekoa da Udalak partida bat bideratu izana, baina esandako guztia ez da egin, uste baino garestiagoa zelako". Eta gaineratu du egoera ez dela ona: "Esan genezake, beste behin ere, Udalaren lehentasunen artean ez dagoela herriko kultura bultzatzea; ez, behintzat, Kuartela bultzatzea". Herriko "kulturgintza borborka" egonda kontraesana dela laguntzarik ez ematea dio: "Herrira bizirik dagoela erakusten dute bertako taldeek Aretxabaletako jai bakoitzean parte hartuta".

Gonbidapena herritarrei

Musikak, dantzak eta muralgintzak bat egingo dute kuartelaren bueltan, eta jatekoa ere egongo da: Zaloñaurreko hanburgesak eta Tipi Tapa *foodtruck*-a. Bazkaltzeko 50 bat lagun batuko dira, eta elkartearen presidentea ekitaldietan parte hartzea gonbidatu ditu herritarrek: "Bertan sortuko den giroa apartekoa izatea espero dugu; hortaz, etorri guztiok. Patioak, igual, aterpea izango du etorkizunean, baina, oraingoz, ez duenez, karpa jarriko dugu, ez bustitzeko".



Taldeko kideak. WOOD STRINGS

Wood Strings taldearen agurra

Kuartelak antolatutako jaialdian egingo du azken kontzertua. 2016ean Arlutz tabernan egin zuten lehenengoa, eta, haren ondoren, zortzi urteko ibilbidea egin dute rock akustikoaren baitan kokatu den taldeak. Lau lagun artean eratu zuten lehen proiektua: Paul Casal –ahotsa eta gitarra–, Oier Arregi –gitarra–, Eñaut Zubizarreta –biolontxelo– eta Asel Errasti –bateria–. Ondoren, Mikel Usobiaga –baxua– batu zitzaizen, eta, geroago, Xabi Zuazabeitiak ordezkatu zuen hura.

Bi EP eta album bat argitaratu dituzte: 2018an *Bat* izenekoa; 2019an, *Bi*; eta 2021ean, *Isladak* diskoa.

Orain, agur esango dute, lagunartean. "Kontzertu osoa izango da, abesti asko joko ditugu eta taldeak pasatutako kide guztiok hartuko dugu parte", jakinarazi du Asel Errastik.

Egitaraua

Urriak 11, egubakoitza

- **19:00** Gaiteroekin kalejira, kaletik kuarterelara.
- **20:00** Kontzertuak: Wood Strings, Nick Linbött eta Jasan.

Urriak 12, zapatua

- **12:00** Jaiki elkartearen emanaldia, Zutunpa txalapartariekin batera.
- **13:00** Mutiko Kristal grafiti-egilea, DJak lagunduta.
- **14:30** Bazkaria.
- **16:00** J&B bikotearen emanaldi akustikoa.
- **18:00** Kontzertuak: Oihu, 721, Txit Karamarro, Eten, BRGS eta Neallta Fola.



NIRE USTEZ

MARTIN ANTIXIA ABASOLO

Nire irudimena da, edo...

Gizonen –heteroak ditut buruan– eta feminismoaren arteko loturari buruz idatzi nahian, aldiro bi egun pasatzen ditut hariari tiraka eta etsita utzi ohi dut, lainoan galdurik. Nire irudimena da, edo hilketa matxista bat salatu edo M8 zein A25eko ekintzei atxikimendua adierazteko ez bada, gai zerrendaren oso azpian dugu

feminismoa gizonen orokorrean. Nire irudimena da, edo oinarrian dauden arrazoi batzuk hauek izan daitezke: egiten ditugun akats matxistak berriz mahai gainera ekarri nahi ez izatea, nork bere inguruarekin duen *kontratu* sozialaren pribilegio posibleak ez erakustea, gai honetan publikoki posizionatzeko beldurra edo, sinpleki,

feminismotik ezer ikasteko prest ez dagoenaren interes falta. Nire irudimena da, edo orokorrean gizon zirkuluetan aspaldi da feminismoak ezarritako erritmoa segitzen ez dugula; ez entzuteko, ez argumentuekin eztabaidatzeko, ez batera eraikitzeke. Irudimen galanta dut, ez dugunez hitz egiten gure artean...

OHARRAK

Erraldoiak ezagutzea

Ateak irekiko dituzte erraldoiak ezagutzera emateko eta konpartsa eratzen hasteko; gaur, egubakoitza, 18:00etan, Arkupen.

Ametzuetak batzarra

Ametzuetak Realaren lagunarteko batzarra egingo du bazkideekin gaur, egubakoitza, 19:00etan, Arkupen.



Mendieta hezitzailea, Aguilar, Fernandez, Lazkano, Lizarriturri, Pasamar, Sanchez zinegotzia eta Urkia, ekimenaren berri ematen. M.A.

Neska gazteen bizipenak trukatzera Poloniara

Urriaren 11n ospatzen den Neska Gazteen Nazioarteko Egunaren harira hainbat herrialdeko gazteak elkartuko dira Wroclaw hirian; haien artean, sei ikasle aretxabaletar. Astebeteko egonaldian eskubideen gaineko lanketak egingo dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Kurtzebarri institutuan DBH-4ko ikasturtea hasi berri duten Zaraitzu Lazkano Gorostiza, Uxue Fernandez Lezeta, Ane Aguilar Olabe, Doltza Lizarriturri Etxenausia, Nahia Pasamar Rodriguez eta Izaro Urkia Garcia bidaiari ekiteko "gogotsu" daude. Gaztelekuko bi hezitzaile, Alaitz Mendieta Altuna eta Amaieur Belategi Madina, lagun dituztela, Wroclaw hirira (Polonia) abiatuko dira bihar, urriak 12. Neska Gazteen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako topaketan hartuko dute parte. "Ospatzeko modu hoberik ez dago: beste herrialde batzuetako gazteekin elkartu, arazo ezberdinak mahai gaineratu eta euren saretu nesken batasuna adierazteko", azaldu du Ainhoa Sanchez Garcia, Udaleko Berritasun zinegotziak. Hilaren 20a bitartean eskubideen gainean hausnartuko dute herrialde hartako gazteekin eta Wiesbaden (Alemania) eta Nilüfer (Turkia)

hirietaekin batera; Palestinatik ere joatekoak ziren, baina kolokan dago haien bidaia, eta online parte har dezaten eskatuko dute aretxabaletarrek.

Erasmus+ programaren baitako ekimena da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Sailak eta Aretxabaletako Udalak bultzatu dute elkarlanean.

Lana eta aisialdia

Astebeteko egonaldi horretan lanak eta aisialdiak bat egingo dute: batetik, munduko hainbat herrialdeetan dituzten eskubideen inguruan hausnartuko dute, taldeko kideen jatorria kontuan hartuta; eta bestetik, harremanak estutzeko jarduerak eta irteerak

BESTE HERRIALDE BATZUETAN NESKA GAZTEA IZATEA ZER DEN EZAGUTZERA JOANGO DIRA

egingo dituzte. "Lehenengo bi egunak izango dira elkar ezagutzeko eta inguruak bisitatzeko. Ondoren, lantaldeetan elkartuko gara. Ikasleek erakutsi gura dizkiete euskal dantzak, sukaldaritza tailer bat egin eta jaietako protokolo feministaren berri eman. Ea egitarauan txertatzeko aukerarik dugun", dio Mendieta.

Aretxabaletako bizimoduaren berri emango dute Kurtzebarrikoek. "Eskolan, aisialdian, jaietan... zer den neska izatea egunerokoan partekatuko dugu. Baita guretzeko zer den matxismoa eta feminismoa ere", adierazi du Lazkanok. Era berean, beste batzuen bizimodua ezagutzera doaz. "Beste herrialde batzuetan emakumeen errealitatea zein den ezagutu gura genuke, baita beste kultura batzuk ere", esan du Fernandezek.

Itzultzen direnean han bizitakoa partekatzeko konpromisoa hartu dute eta gaztelekuan aurkezpen saio bat egitea da asmoa.

Euskaraz berriketan jardutea helburu duten lantaldeak, abian

Barriketan eta Auzoko egitasmoen ikasturteari ekin dio Loramendik, Amaia Martinez Jausoro gidari izanik

M.A. ARETXABALETA

Urriarekin batera Loramendi elkarteak abian jarri ditu euskararen bueltako lantaldeak: Auzoko, Barriketan, Hikalaguna, Familialaguna eta Ulerlaguna. Helburuak, beste behin, "euskarra bultzatzea eta aniztasuna erdigunean jartzea" dira, Aretxabaletako Udalak eta Euskaltzaleen Topaguneak sustatuta, Loramendirekin batera. Taldeen dinamizazioaren ardurua Amaia Martinez Jausorok (Aretxabaleta, 2000) hartu du aurten, eta "pozik" ekin dio lanari.

Elkartzeko proposamen berriak

Euskarara gerturatzeko "aparteko aukera" eskaintzen dutela talde horiek dio Martinezek: "Auzokon dabiltzanek hizkuntzara lehen hurbilketa egiten dute, eta, horrez gain, jende berria ezagutzeko eta sozializatzeko topalekua izaten da". Da-

torren astean hasiko dituzte lehen bilerak eta izena emateko epea zabalik dago.

Barriketan taldeek dagoeneko ibilbide luzea egin dute eta gaur egun lau daude martxan. "Paritade berrien eskaera jaso dugu, eta ea beste talderen bat sortzerik daukagun". Orain arte, tabernen bueltan elkartu izan dira horiek, baina proposamen berria dauka: "Tabernetatik irten eta mendi bueltak egiteko edo mahai-jolasean jarduteko elkartuko direnei ateak zabaldu gura dizkiegu". Hikalaguna taldeei dagokienez, hiru sortu dira eta dagoeneko hasi dira elkartzen astean ordubetez.

Izema emateko epea zabalik dute; horretarako, Loramendiren bulegora jo daiteke –Durana kalea 11–, telefonoz deitu –943 77 09 70–, edo mezu bat bidali: Whatsapp: 685 75 67 29; eta posta: auzoko@loramendielkartea.eus.



Amaia Martinez Jausoro dinamizatzailea Loramendiren bulegoan. MIRARI ALTUBE

'Ai, gure juaneteak!' emanaldia domekan, Laboari keinu eginez

Patxo Telleriak idatzitako *Ai, gure juaneteak!* ikuskizuna izango da, Tartean konpainiaren eskutik, domekan, Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan –sarrera, 5 euro–. Hitzek eta musikak osatuta, Mikel Laboaren zenbait kantaren –Artze, Lete, Sarrionandiaren hitzak...– berrinterpretazioa da: *Izarren hautsa, Negu hurbila, Haika*

mutil, Ihes betea... Jatorrizko bertsoaren zati laburrak kantatuko ditu, baina, batez ere, kanta bakoitzaren ikuspuntu berrien proposamena egingo du.

Adrian Garcia de los Ojos piano-jolea eta Maider Lopez biola-jolea izango ditu lagun Telleriak hitzak eta zuzeneko musika uztartzen dituen emanaldian. Gainera, bukaeran Elkar argitaletxeak argitaratutako liburua egongo da salgai eta idazlearekin partekatzeko aukera egongo dela iragarri dute.



Eskoriatzako estazio zaharreko udal eraikina. IMANOL BELOKI

Hiru lapurreta egin dituzte hiru astean

Irailaren azken bi asteetan eta urriko lehenengo astean gertatutako zenbait salaketa jaso ditu Eskoriatzako Udaltzaingoak herritarrengandik. Horren baitan, lapurretak saiheste aldera, gomendioak gogorarazi nahi izan dizkie herritarrei

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Hiru lapurreta izan dira aste hauetan Eskoriatzan. Horieta-ko bat, udal eraikin batean; bigarrena, garaje batzuetan; eta, hirugarrena, etxebizitza partikular batean. Eskoriatzako Udaltzaingotik adierazi dute beti hartu behar direla segurtasun neurriak, eta, gertakari horien ostean, neurri horiek gogorarazi dituzte, sorpresarik ez izateko.

Hiru lapurreta ezberdin

Izan diren hiru lapurreten harira, Eskoriatzako Udaltzaingoak adierazi du irailaren 19tik 20ra arteko goizaldean izan zela lapurretako bat. Eskoriatzako estazio zaharrean dagoen udal-biltegian egin zuten lapurreta. Sarraila indarrez apurtu zuten eta udal langileek lanerako dituzten hainbat material lapurtu zituzten.

Irailaren 25aren eta 26aren artean, berriz, Gaztañadui kaleko 27-29. atarrietan *-Titanic*

deritzon eraikinean-, oinezkoen sarrerako atea apurtu eta hamar garajetako sarrailek apurtuta agertu direla adierazi dute. Udaltzaingoaren esanetan, hamar garajetan sartu ziren, baina ez dute lapurtu zuten informazioirik. Hala ere, komunitate horretako administratzaileak adierazi duenez, salaketa jarri zuen, eta ateetako sarraila-zilindroak konpontzeko eskaera egin seguruari.

Urriaren 3an, bestalde, Jose Arana kalean, San Pedro elizaren eta Fernando Eskoriatza plazaren artean, lapurreta bat izan zen etxe partikular batean. Leihoa bortxatuta, etxebizitzan sartu eta bitxi batzuk batzuk lapurtu zituzten.

LAPURRETAK UGARITU EZ DIREN ARREN, SEGIDAN HAINBAT SALAKETA JASO DITU UDALTZAINGOAK

2024ko lapurretak

Aurten urtarriletik urrira bitartean herrian izan diren lapurreten datuen gainean galde-tuta, Eskoriatzako Udaltzaingoa herritarrek egindako salaketak honako hauek direla azaldu dute: "Gauzen lapurretak, bi telefono mugikor eta patinete bat; garajetako lapurretak, bi; eraikinetan egindako lapurretak, hiru; *besarkada solidarioa* deritzon metodoa erabiliz egindako lapurreta, hau da, pertsona nagusiekin hitz egiten duten bitartean eraztuna edo lepokoa lapurtzea, bi -kasu horietan, pertsona nagusiei eman behar zaien gomendioa da ezagutzen ez dituzten pertsonekin hitz egiten ez gertatzeko eta, ahal den neurrian, urrezko edo zilarrezko bitxirik bistan ez eramateko-; eta azkenik, kreditu txartelaren bidez egindako iruzurra -diru kantidad txikien lapurreta-, bedertzi lapurreta. Azken horri dagokionez, halako lapurretek gora egin dute nabarmen".

Salgai daude herrian kontsumitzeko 300 bonutik gora

Interesdunek udaletxean erosi ditzakete bonuak, 10:00etatik 13:00etara bitartean, astegunetan

I.B. ESKORIATZA

Tokiko komertzioari eta ekonomiarri laguntzeko eta negozio txikiei aktibo mantentzen laguntzeko *Eskoriatza bizirik* bonuen kanpainaren barruan Eskoriatzako Udalak irailaren 9an. Orduetik hona saldu dira bonu gehienak, baina interesa duenak erosteko aukera duela azaldu du Nerea Aranak, Eskoriatzako Udaleko Garapeneko teknikariak.

"Oraindik erosketa-bonuak eskuragarri daude -300 bonutik

gora-, aukera bikaina tokiko merkataritzari laguntzeko eta diru gehiago gastatu ahal izateko askotariko produktu eta zerbitzuetan. Erosketa-bonuak tokiko dendetan kontsumoa sustatzeko diseinatuta daude, eta saltokiei zein erosleei laguntzen diete. Bonu bakoitzak 20 euro balio du, baina 30 euroko balioa dauka, eta establezimendu parte-hartzaileetan erabil daiteke. Zure bonua erosteko, etor zaitez udaletxera 10:00etatik 13:00etara, eta behar duzun informazio guztia jaso ahal izango duzu bertan".



LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

Mugarik gabeko giza katea

Urriaren 6an, Garun Paralisisaren Nazioarteko Egunean, *Mugarik gabeko inklusioa* lelopean giza katea egin eta talde-argazkia atera zuten Luis Ezeiza Herri Eskolako kideek. Ekintza horrekin transmititu nahi izan dute pertsona guztiak ezberdinak izan arren denek batera parte har dezaketela, elkar lagunduz, oztoporik gabe.

Landa-gunean argiteria jartzeko dirulaguntzak

Urriaren 3an argitaratu dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Eskoriatzako Udalak landa-guneetan argiteria sistemantzako aurten emango dituen dirulaguntzen oinarriak, eta laguntzak eskatzeko epea zabalik dago urriaren 31 arte.

Dirulaguntza landa-auzoetako gune nagusietatik isolatuta dauden eta kanpoaldean argiteria

publikoa ez duten eraikinen kanpoaldean jarritako argi puntuen energia kontsumoa finantzatzeko ematen da, eta dirulaguntza jasotzeko honako helburu hauek bete behar dira: eraikinaren sarrera nagusia argitzea eta eraikina seinaleztatzea. Horrez gain, beste hainbat baldintza ere bete behar dira; besteak beste: Udalak jarritakoak edo baimendutakoak izatea, kanpoaldean argiteria publikorik ez izatea, argi puntua pizteko sistemak funtzionatzea...

Goiztiarrenak postu zozketara joaten hasi dira

Joan den egubakoitzean, urriaren 4an, egin zuten aurtengo denboraldi berrira begirako ehiza postuen zozketa Aldaype ehiza eta arrantza elkarteko kideek. Hala ere, aste honetatik aurrera, eguazteneko egingo dituzte aste osora begirako zozketak

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Iritsi dira ehiztariak euren eskopetak puntuan jarri, hamai-ketako prestatu eta mendira ehizatzen joateko egunak. Punteriaz gain, zortea beharko dute bidelagun, eta, jakiterik ez dagoen arren, aurtengo uso-pasea egongo dela uste dute Eskoriatzako Aldaype ehiza eta arrantza elkarteko kideek.

Hori horrela, Aldaype elkar-tearen lokalean, Intxaurtxuetako bederatzigarren atarian egin zuten ehiza postuen zozketa joan den egubakoitzean, eta, oraindik jende askorik animatu ez den arren, datorren astetik aurrera parte-hartze handiagoa aurreikusten dute Eskoriatzako Aldaype ehiza eta arrantza elkarteko juntako kideek.

Bi postu gehiago

Urtero moduan, ehiztariak bi lineatako postuak lortu ahal izango dituzte eguaztenetako zozketetan: lehenengo linean 91 postu daude –Lete, Apotzaga eta Marin–; eta bigarrean, berriz, 76 –parke naturala, Alabita eta Aranguren–.

"Iaz bi ehiza postu berri egin ziren eta aurtengo beste bi berri egin ditugu. Batez ere, jende helduagoak gertutasuna nahi du, eta, urteotan izan dugu



Urriaren 4an, ehiztariak zozketan parte hartzen. ANDONI ETXENAUZIA

eskaera bera. Iaz, Apotzaga inguruan egin genituen bi postu berri eta aurtengo, berriz, Lete inguruan, Torrebaso aldera egin ditugu", adierazi du Andoni Etxenauziak, Aldaypeko juntako kideak.

Zozketak eguaztenetan

Gaineratu duenez, ehiza denboraldirako atea ireki berri dituzte, baina lehenengo zozketara dozena bat lagun inguru soilik joan ziren. "Normalean, Pilarika Egunetik [urriaren 12a] aurrera hasia gustatzen zaie

Eskoriatzako ehiztariak. Lehenengo zozketa egubakoitz batean egin dugu, astebururako postuak zehazteko, baina, azken urteotan moduan, eguaztenetan izango dira zozketak". Hau da, Intxaurtxuetako bederatzigarren atarian 18:00etatik 20:00etara izango dira zozketak, eguaztenetan bakarrik, eta 20:00etatik 20:30era bitartean adieraziko dituzte adjudikazioak. Lehen ez bezala, egun bakarrean aste barruko postuen berri eman go da, baita asteburukoena ere. Azaroaren 17ra bitartean astero egingo dira zozketak.

Berbalagunak: kurtso berria

Martxan jarri berri dute ikasturtea Eskoriatzako Berbalagun taldeek, eta iazko hiru taldeak mantentzen direla adierazi du Nerea Zugastik, Eskoriatzako koordinatzaileak. Taldeetako bat da *Pintxo-pote* taldea, eta, argazki hori sare sozialetan elkarbanatuz, izen-ematea ireki berri dela esateko eta egitaspora batzeko dei egiteko aprobetxatu dute.



NEREA ZUGASTI



Leintz Gatzagako udal aparkalekuen sarrera. IMANOL BELOKI

Udal aparkalekuen kontzesioak adjudikatzeko lehiaketa, abian

Interesa duten herritarrek urriaren 21a izango dute zozketan parte hartzeko azkenengo eguna

Imanol Beloki Unamuno **GATZAGA** Frontoi azpian dauden udal aparkalekuetan ibilgailu motordunentzako aparkaleku erre-serbatuen kontzesioak adjudikatzeko lehiaketa martxan jarri du Gatzagako Udalak. Bandoan ezarri dituzte lehiaketan parte hartzeko xehetasun guztiak: aparkalekuen alokairuaren prezioak, baldintzak, oinarriak eta abar.

Guztira, hemezortzi plaza

Ibilgailuentzako hemezortzi plaza daude eta motorrentzat edo quadentzat, bat. Kontzesioaren

iraupena, berriz, bi urtekoa izango da, nahiz eta luzatzeko aukera egongo den. Lehiaketa publiko irekia izanda, aparkalekua eskatzen duenak baldintzak bete beharko ditu eta pleguan eskatutako agiriak aurkeztu. Eskaerak aurkezteko azkenengo eguna urriaren 21 izango da.

Argibideak eta agiriak

Interesdunek Leintz Gatzagako Udaleko idazkaritzan eta web-gunean –kontratatzailerearen profilean– kontsulta ditzakete argibideak, eta agiriak eskuratzeko modua ere hori izango da.



IMANOL BELOKI

Zuhaitzak kimatzen ibili dira

Zuhaitzak kimatzen eta egurra zatitzen ibili dira egunotan: batetik, erabilera askotariko espazioko eraikinaren aurrean adarrak kimatu dituzte; eta, bestetik, Dorleta santutegi pareko inguruko zuhaitzetan jardun dute. Adaxka txikiak konposterako erabiliko dituzte, txikituta, eta adar handiagoak San Juan sua pizteko gordeko dituzte.

Azken fasea saneamendu kolektorea eraikitzeke

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ura Agentziak eta Gipuzkoako Urak-ek hitzarmena sinatu dute, eta aldi berean amaituko dituzte Antzuola-Bergara bidegorriko lanak. Asmoa da 2025eko lehen hiruhilekoan hastea obrak eta zortzi hilabete irautea

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Irailaren hasieran jarri zuten jendaurrean Antzuola eta Bergara bidegorriz lotzeko eta Antzuolako saneamendu kolektorearen zati berri bat –zehazki, hirugarren eta azken fasea– eraikitzeke proiektua, eta hori ahalbideratuko duen lankidetzahitzarmena sinatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ura Agentziak eta Gipuzkoako Urak-ek. "Berri positiboa da. Herriak 1982az geroztik du kolektorea, baina orain arte errekarra joan dira gure zikin guztiak; beraz, Antzuolarentzako ez ezik, denontzako izango da onura saneamendu kolektorearen lanak amaitzea", adierazi du Olatz Lezetak, Antzuolako alkateak.

Hain justu, astelehenean sinatu zuten akordioa, Donostian, eta han izan ziren Jose Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun diputatua; Antonio Aiz, Ura Agentziako zuzendari nagusia; eta Leire Artola, Gipuzkoako Ur Kontsurtzioko lehendakaria. "Antzuolako saneamendu-kolektore berria eraikitzeak hondakin-uren kudeaketa arduratsua bermatzen du, ibaira isurketak saihestuz eta gure ur-baliabideak babestuz", azpimarratu du Asensio, eta Antzuola-Bergara bidegorriaren egokitzapenak herritarren "eskaera historikoari" erantzuten diola erantsi, ur-kolektorearen aldi berean egingo baitituzte bidegorriko lanak.

Egin beharreko jarduketak

Egun, Arizti baserriaren inguruan –Matz Erreka alboan– isurtzen dira Antzuolako hondakin eta industria isurketa guztiak, baina horiek tratatzeko Bergarako Deba erdiko hodi-biltzalearekin lotu eta Mekolaldera eramane behar dira. Horretarako, eginda daude lehen bi faseak, baina hirugarrena falta da, Ga-



Antonio Aiz, Jose Ignacio Asensio eta Leire Artola, sinatzean. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

GALARTZA AUZOKO LAPURZUBITIK BERGARAKO URTEAGA KALERAINO EGINGO DITUZTE LANAK

lartza auzoko zubitik hasi eta Bergarako Urteaga kalerainoko –Talleres Antzuolaraino, gutxi gorabehera–, bada, hori sinatu dute lankidetzahitzarmenean. "Hodiari dagokionez, Antzuola ibaian behera dagoen zubiari atxikita proiektatzen da, albotik. Oro har, kolektorea bizikleten eta oinezkoen bidearen azpian edo albo batean dago, zenbait puntutan izan ezik", adierazi dute sustatzaileek.

Kolektorea eta bidegorria, beraz, bat datozen bi proiektu dira, kolektorearen trazadura bizikleta bidearen zati batekin bat datorrelako GI-632 errepedearen paraleloan, Antzuola eta Bergara artean. Bidegorriak, guztira, 2,33 kilometroko luzera du, baina 806 metro egitea falta da; bada, zati horri dagokionez, hiru metroko zabalera izango du, eta 80 zentimetro gehituko dizkiote

barandetarako eta hormigoizko areketarako. "Bizikleta bidezko mugikortasunera bideratuko da tartea, eta bizikletaren erabilera sustatzeko politiken bidez sustatu behar da", azpimarratu dute hitzarmenean.

Epeak eta aurreikuspenak

2025eko lehen hiruhilekoan hasiko dituzte lanak, eta zortzi hilabete iraungo dute, aurreikuspenen arabera. Ura Agentziak hartuko du Antzuolako saneamendu kolektorearen zati berriko obrak kontratatzeke, zuzentzeko eta obrak finantzatzeko konpromisoa, eta 1.359.838,08 euroko aurrekontua du; Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurara da, berriz, bidegorriaren zatia, 1.604.076,62 euroko aurrekontuarekin.

Lanak iraun artean, beraz, Lezetak ohartarazi du bidegorria erabilgarri egongo dela Antzuolatik Lapurzubiraino –Galartza auzoko zubia–, baina handik aurrera ezingo dela igaro. Hala, espero du lanak aurreikusitako epeetan gauzatzea eta datorren urtearen amaierarako Bergaraino bidegorriz joateko aukera izatea herritarrek.

Zinema, ikusezinak izan ohi diren errealitateak azaleratzeko

Sei ikus-entzunezko proiektatuko dituzte Torresoroan gaur, ezkutuan egon ohi diren gai sozialak erakusteko

A.R.K. ANTZUOLA

Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia antolatu ohi du urtero KCDk, Bilboko gobernuz kanpoko erakundeak, *Film sozialak* izenpean, eta hirian ez ezik herrietan ere egiten dituzte emanaldiak. Iaz iritsi zen lehen aldiz Antzuolara, eta, Anelkar elkartasun taldearen eskutik, bigarren egongo dute aurten; hala, "sendatzeko eta eraldatzeko zinema hedatzeko eta ohiko pantailetan maiz ezkutuz dena erakusteko" asmoz, sei ikus-entzunezko proiektatuko dituzte gaur, 18:30ean, Torresoroa aretoan.

Write my name, Zaintzen duten emakume baserritarrak, La culpable, Puzzleak, Will my parents come to see me eta *Retour au cinema vox* dira, hain justu, ikusgai izango diren lanak, eta askotariko gaiak landuko dituz-



Will my parents come to see me. KCD

te: elikadura burujabetza, Palestinar auzia, bestelako giza eskubideen urraketa... "Zinemaldi honek, geldialditxo bat eginez, gizartearen erronka nagusiez gogoeta egiteko bide bat izan nahi du", adierazi dute antolatzaileek.

Erreka garbituko dute bihar auzolanean; ostean, hamaiketako

Uztailean, herriko jaien ostean, egin zuten urteko lehen erreka garbiketa, baina bigarrena egingo dute bihar, Debagoienean Errekak Bizi Auzolanean egitasmoarekin bat eginda. 09:30ean hasiko da, Herriko Plazan elkartuta, eta hamaiketako izango da bukatutakoan; parte hartu nahi izanez gero, beraz, aski da bihar bertan hara azaltzarekin.

Hain justu, egitasmoak hirugarren aldia du aurten, eta urriaren 19an, zapatua, egingo da Debagoieneko gainontzeko herrietan –Antzuolan astebete aurreratu dute, Aiherra-Antzuola Eguna delako hilaren 19an–, "Deba erreka eta hori elikatzen duten erreka txikiagoen ezagutza eta naturarekin dugun harremanaren sendotzea" helburu izanik, antolatzaileen hitzetan; aldi berean, herrikideen arteko ezagutza bultzatu eta harremana sendotu nahi dute.

Azaldegietako atsedengune berritua inauguratuko dute

Azaldegietako atsedengunea berritzen aritu ziren udaberriaren eta udan hainbat herritar, eta gune berritua inauguratuko dute orain, inaugurazioa egingo baitute domekan, hilaren 13an, Udalaren eskutik. Eguraldia lagun bada, hamaiketako izango da 11:00etan, salda eta txoria, eta Astiazaran eta Narbaizarekin erromeria, ondoren.

'Kalabaza hamaika eratan' tailerra egingo dute eguenean

Kalabaza hamaika eratan tailerra egingo dute eguenean, hilaren 17an, Antzuolako udal liburutegian; hain justu, kalabaza erabiliz lau kontserba mota egingo dituzte. 17:00etatik 20:00etara izango da tailerra, eta amantala eta telazko poltsa eramateko eskatu dute antolatzaileek. *Hazien liburutegia* egitasmoaren ekintzetako bat da.

GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA

Danbakast bideopodcasts estreinatu berri da, Danbaka Musika Lehiaketarekin lotura zuzena duen saioa. Lehiaketa izango da oinarri nagusia, baina, horrekin batera, musika arloko beste hainbat kontu izango dituzte hizpide. Bideopodcast formatua du saioak eta Jokin Bereziartua da aurkezlea.

Danbakan ariko diren taldeen eta haien kontzertuen berri emango da, kronika mamitsuz, eta musikaren inguruko beste hainbat gai jorratuko dituzte. Horretarako, askotariko gonbidatu eta tertuliakideak batuko dira eta haietako bakoitzak ikuspegi eta kolore desberdin bat eskainiko dio atal bakoitzari.

Danbakari jarraipen irmoa egingo dio bideopodcastak, eta musika munduarekin lotura estua duten gonbidatuen zein tertuliakideen ahotsak osatuko dute saio bakoitza. Aniztasun horrek ikuspuntu desberdin asko bilduko ditu, eta, modu horretan, atal bakoitzak bere berezitasunak izango ditu. Betiere, Danbaka Musika Lehiaketa ardatz hartuta.

Bideopodcast izaera duenez, bi modu desberdinetan kontsumitu ahal izango da saioa: telebistan emitituko da ikus-entzunezkoa, baina podcast gisa entzuteko aukera ere egongo da.

Intimoa eta musikazalea

Dekorazioari dagokionez, helburu nagusia gonbidatua ahalik eta eroso sentiaraztea izan da. Hori dela eta, asko zaindu den aldagai bat da saioaren estetika. Erdialdean mahai boro-bil bat izateak giro hori lortzea ahalbidetzen du, eta horrek aurkezlearen eta gonbidatuen arteko konexio bereziagoa sortu dezake. Bereziartuak argi du zein den platoan sortu nahi duen giroa: "Betiere, ahalik eta ingurune intimoena eta musikazaleena sortzea da asmoa". Danbakan bezala, kolore gorriaren

Udazkeneko berritasuna: 'Danbakast' bideopodcasts

Danbaka Musika Lehiaketak, 2022an bezala, Bergarako Seminarixoa aretoa izango du kokaleku. Baina Goiena telebistako platoan ere badu lekua: 'Danbakast' musika-tertulia saioa estreinatu berri da, eta besteak beste lehiaketaren jarraipena egin du eguenetan



Leire Etxezarreta, Jokin Bereziartua aurkezlea, Iñigo Ugarte eta Oihan Vega, *Danbakast*-en bigarren atalean. JAGOBA DOMINGO

"PLATOAREN ESTETIKA ASKO ZAINDU DA, INGURUNE INTIMOENA ETA MUSIKAZALEENA SORTZEKO ASMOZ"

"DOAKIELA BESARKADA BAT SORRERAKO ANTOLATZAILEEI, BIDE EDER HAU IREKI IZANAGATIK"

JOKIN BEREZIARTUA

presentzia asko antzematen da; esaterako, mahaia inguratzen duen oihalean.

Aurreneko atala

Urriaren 10ean estreinatu zen *Danbakast*-en lehen saioa Goiena telebistan, eta lehiaketaren finalarekin batera emango zaio amaiera, 2025eko urtarrilaren 17an. Tarte horretan, hamahiru atal ikusi ahal izango dira, eta horietan Danbakaren xehetasun guztiak lantzea dute helburu. 20 urte pasa dira Danbaka lehen aldiz antolatu zenetik, eta garai

hartan Elgetako Espaloia Kafe Antzokia izan zen topagune. Atzo estreinatu zen lehen atalean, atzera begira jarri ziren eta lehiaketaren hastapenetara eramane zituzten ikusleak.

Lehenengo atalerako Iker Barandiaran gonbidatu zuten; hura izan zen *Danbaka* lehiaketaren lehen lau edizioetako koordinatzailea. Jokin Bereziartua *Danbakast*-eko aurkezleak hitz hauekin eskertu nahi izan du Barandiaranek berak eta Goienako zein Elgetako Goibeko elkarteko kideek sorrerako urte haietan, antolaketan, egindako lana: "Doakiela besarkada estu bat bide eder hau ireki izanagatik".

Barandiaranek hasiera hartara bidaiatzearekin batera, lehen edizio hartan modu batera edo bestera parte hartu zuten bi tertuliakide berezik parte hartu zuten: 2004an epaimahaia osatu zuen Nagore Sanz bergararrak eta edizio berean Amonal taldearekin parte hartu zuen Iñigo Bianek memoria ariketa bikaina egin zuten. Sanz azken edizioan, 2022an, Arragoa taldearekin aurkeztu zen; beraz, bi ikuspegi desberdin plazaratzeko aukera izan zuen. Gaur egun hain zabaldua dauden musika kontsumo berriak aztertu zituzten.

Danbakaz haratago

Ezer gutxi aurreratu daiteke datozen saioen inguruan; hainbat gai eta izen besterik ez. Hain zuzen ere, musika panoramaz eta Danbakaz haratago, musika industriak bizi duen parekidetasun faltaren inguruan jardungo dute datorren egunean, bigarren atalean; musika munduan ezagunak diren hainbat izen ere aipatu daitezke: Neomak taldeko Leire Etxezarreta, Gazteako Oihan Vega eta 2022ko edizioiko epaimahaikide izan zen Iñigo Ugarte –aurten ere izango da–, besteak beste.

Spotifyn entzungai

Goiena telebistan estreinatu zen *Danbakast* saioa, eta 2025eko urtarrilaren 23ra bitartean eguenero emitituko da, 20:00etan eta 22:00etan. Goiena.eus-en, Youtuben eta Spotifyn ere egongo da kontsumitzeko moduan.



Aitor Agiriano aurkezlea herririk herri ibili da. GOIENA



Herritarrek xaxatzea izango da aurkezlearen helburuetako bat. GOIENA

'Bixi' ibili beharko dute herriko kaleetan zehar

Bueltan da 'Bixi ibili!', herrien arteko tribial-pikearen hirugarren denboraldia. Aurreko edizioetan bezala, Aitor Agiriano izango da saioaren aurkezlea, eta urriaren 15ean, asteartea, 20:00etan, emango zaio hasiera denboraldi berriko lehen atalari

Urriaren 15ean hasiko da *Bixi ibili!*-ren hirugarren denboraldia. Aurrekoetan bezala, Aitor Agiriano gidatuko du saioa, eta, pasa diren denboraldietan izan den moduan, herri bakoitzak hainbat galdera erantzunez lortuko ditu puntuak.

Sailkapenaren lehen postua lortu ahal izateko burua bixi-bixi eduki beharko dute debagoienarrek. Azkeneko denboraldian irabazi zuen Leintz Gatzagaren lekukoa lortzeko ahalik eta galdera gehiago erantzun beharko dituzte zuzen. Agiriano gogotsu dago hirugarren aldi honetarako: "Nork esango zigu... hirugarren denboraldia hastear da! Urduri baina ilusioz

gaude. Seguru gaude grabatzen pasa dugun bezain ondo edo hobeto pasako duela ikus-entzuleak oraingoan ere. Ikusle moduan gozatzeaz gain, pantailaz bestalde gurekin jolasteko aukera izango dute, dauden lekuan daudela".

Pike bizia

Debagoieneko bederatzi herriek parte hartuko dute. Astero atal bat ikusteko aukera egongo da eta horietako bakoitzean herri desberdin bat izango da protagonista: tokian tokiko ohituren, hitzen, pertsonaien eta abarren inguruko hamar galdera erantzun beharko dituzte. Galdera sorta batzuk errazagoak eta beste ba-

tzuk zailagoak izango dira. Agiriano oso gustura dago herri guztietan *Bixi ibili!* eskuzabal-tasun osoz hartu dutelako: "Beso zabalik eta galderak erantzuteko prest hartu gaituzte bailarako herrietan. Lehen bi denboraldietako jarraitzaileak horietako asko; eta aldi berri honetan jolasera animatu direnak. Plazera ari da izaten".

"BESO ZABALIK ETA GALDERAK ERANTZUTEKO PREST HARTU GAITUZTE"

AITOR AGIRIANO

Galdera zuzen bakoitzeko puntu bat jasoko du herriak, eta galdera oker bakoitzeko, aldiz, puntu bat galduko du. Erantzuna emateko orduan zantzak sortzen badira, komodina erabiltzeko aukera izango da. Behin herri guztiek parte hartzen dutenean, rankingean ikusi ahal izango da zein herri dakien gehiago. Inoiz baino gehiago antzemango da herrien arteko pikea. Dena eta gehiago emango dute parte-hartzaileek bizitoki duten herriak garaipena lortu dezan.

Agur 'Zirikatzen' saioko Aitorri

Aurreko denboraldian Agiriano ez zen bakarrik egon, nahiko lan izan zuen *Zirikatzen* saioko Aitorrekin borrokan. Oraingoan ez da saioan egongo, baina ez da bakarrik egongo.

Galdera izarra

Saioan zehar galdera izar bat erantzuteko aukera izango du herritarretako batek. Baina ez da samurra izango: erronka bati egin beharko diote aurre. Hori bai, erronka ondo eginez gero, 50 euroko saria irabazi ahal izango dute.

'Elkarrizketa' saioan elkarrizketa inspiratzaileak

Pertsona ospetsuek kontatzeko dituzten istorioak ezagutzeko elkarrizketa tartea

Goiena telebistako *Elkarrizketa* saioaren denboraldi berriak gizarteko pertsonaia nabarmenen bizitzak eta esperientziak hurbilduko ditu. Istorio pertsonalak bizia hartzen duten saioa da. Publikoari begirada intimo eta sakona eskaintzen dio, elkarrizketa zintzo eta eraginkorren bidez.

Eguaztenetan ikusi ahal izango da Goiena telebistan, 20:30ean eta 22:30ean. Hala ere, aurreko ostiraletik *Ttap* aplikazioa mugikorren jaitzita izanez gero, lehenago ikusteko aukera izango da.

Erreplika eta memoria

Azken atalak Pello Gutierrez ezagutzeko aukera ematen du; *Erreplika* dokumentalaren zuzendaria da hura. Gutierrezek bere azken lana aurkeztu du, non 1979an Zikuñagako Ama Birjinaren desagerpenak herritarren artean sortutako hutsunea aztertzen duen. Elkarrizketa horretan, Gutierrezek bere sormen prozesua eta dokumentalaren atzean dauden emozioak partekatzen ditu, ikusleak inspiratuz eta hausnarketara bultzatuz. Gutierrez eta bere lana ezagutzeaz gain, gonbidatu gehiago espero dira.

Goiena telebistaren denboraldi berria nobedadez beteta dator

Danbaka lehiaketaren atarian, 'Danbakast' bideopodcasts eskainiko da egunero



Hemen Debagoiena

- Egunero
- 14:30ean; bi orduan behin



Berbagai

- Eguaztena
- 20:00 eta 22:00



Datuetatik tiraka

- Egubakoitza; hamabostean behin
- 20:00 eta 22:00



Txomin Madinak aurkeztuko du saioa. GOIENA

'Datuetatik tiraka': datuak jaso eta istorioak eskainiko ditu

Datuen bidezko analisi sakona eta entretenigarria eskaintzea helburu, Txomin Madinaren gidaritzapean

Datuetatik tiraka Goiena Telebistaren denboraldi honetan estreinatuko da, bi asteko maiztasunarekin. Programa horrek, lehen *Hemen Debagoiena* saioaren barruan zegoenak, ikusleei datuen eta estatistikaren bidez tokiko intereseko gaietan sakontzeko aukera eskaintzen jarraituko du.

Txomin Madinak jarraituko du aurkezle gisa, informazioa modu argi eta erakargarrian azaldu eta datuak denentzat ulergarri egiteko asmoz.

Eta berri honetan, *Datuetatik tiraka*-k gai ugari jorratuko ditu, gai sozial eta ekonomikoetatik hasi eta kultura eta ingurumen arloetaraino; betiere, Goiena telebistaren ezaugarri den objektibitatearekin. Ikusleek eduki aberasgarria izango dute, ez bakarrik informatuko duena, baita Debagoieneko errealtateari bu-

zurko eztabaida eta hausnarketa sustatuko duena ere.

Programaren lehen atalak, adibidez, hiri hondakinen inguruko informazioa aztertuko du, datu estatistikoak erabiliz eta adituen iritzia jasoz. Beste atal batean etxebizitzak izango dira protagonista. Halaber, kulturaren arloan ere sakonduko da: bertako ekitaldien eta tradizioen inguruko datuak eta istorioak kontatuko dira.

Datuetatik haratago

Datuetatik tiraka-ren helburua ez da informazioa soilik ematea, baizik eta ikusleak hausnarketara bultzatzea eta komunitatearen parte-hartzea sustatzea. Programa horrek, datuen bidez, ikusleak Debagoieneko errealtatearen ikuspegi zabalagoa izatea lortu nahi du; betiere, entretenimendua eta ikaskuntza uztartzeko asmoarekin.

Gertuko informazioa jasotzeko eguneroko erreferentziako saioa

'Hemen Debagoiena' saioaren formatua berrituta dator, joera berrietara egokitzeko asmoz

Goiena telebistako eguneroko saioa izaten jarraituko du *Hemen Debagoiena*-k; platoan ekoiztutako saioa izateari utziko dio. Gertuko albisteak eta istorioak kontatzea izango da haren ardatz nagusia; izan albiste formatuan, laburrago kontatutakoak edo luzeago azalduak, erreportaje eran.

Euren ibilbidea egin duten *Debagoiendarrak mundutik* eta *Luzapena* tarreek jarraituko dute saioa osatzen. Lehenak, martitzenetan, mundu zabalean dauden debagoiendarren bizipenak jasoiko ditu, Eneko Azurmendik aurkeztuta; eta bigarrenak, eguenean, Mireia Bikuñaren eskutik, kirolariak izango ditu protagonista. Datorren astean Garazi Barrena arrasatearra elkarrizketatuko du Azurmendik; Barrena Mexikon bizi da gaur egun; Merida hirian, zehazki. Bikuñaren kasuan, Iker Agirregabiria

izango da protagonista: Behobia-Donostia gerturatzen ari den honetan, aurretik elkarrizketatua izango da.

Eta saioaren amaieran hauek ikusi ahal izango ditugu: asteburuan oholtzara igo diren artistak, dronearekin bailaran zehar airetik grabatutako irudiak, martxan dauden erakusketak eta asteburura begirako agenda. Duda barik, gertuko informazioa jaso gura baduzu, hauxe duzu saioa.

Emisio ordua

Saioaren lehen emanaldia 14:30ean izango da. Gaurkotatutako hala eskatuta berritzen joango den saioa izango da. Orain arteko arratsalde-gau parteko ordutegia, baina, aldatuta dator: hemendik aurrera, *Hemen Debagoiena* saioa 19:30ean, 21:30ean eta 23:30ean emitituko da.



Hemen Debagoiena saioaren hasierako kareta. GOIENA

Gaurkotasunari lotutako elkarrizketa saio berria

'Berbagai' estreinatuko du Goiena telebistak urriaren 23an, Goiatz Aranek aurkeztuta

Goiena telebistaren sasoi berrian estreinatuko den beste saioetako bat da *Berbagai*. Goiatz Aranek aurkeztuko du eta elkarrizketa saioa izango da; gaurkotasunari lotuta. Goiena telebistako platoan grabatuko dira elkarrizketak, plato berrituan.

Hemen Debagoiena saioa al-bistearen edo erreportajeen tarreetatik harago, eskualdeko bertako edo bailaraz kanpoko protagonistei eskainiko zaie ordu erdiko espazioa astero. "Batuetan elkarrizketa bakarria izango da, elkarrizketatu bakarria edo bi bertan direlarik, baina izango dira asteak non bi elkarrizketa ezberdin egingo ditugun" adierazi du *Berbagai*-ko arduradun eta aurkezle Goiatz Aranek.

Urriaren 23an hasita

Harira saioan eta *Hemen Debagoiena* magazinean egin izan dira gaurkotasunari lotutako elkarrizketak; aurrerantzean, *Berbagai* izango da horretarako espazioa. Herri ordezkariak, politikariak, kulturgileak, ekonomialariak, irakasleak, hizlariak... pasako dira, astero. Eguaztenetan emango da Goiena telebistan, 20:00etan eta 22:00etan, eta urriaren 23an estreinatuko da.



Harmailatik

- Astelehena
- 20:00 eta 22:00



Danbakast

- Eguena
- 20:00 eta 22:00



Bixi ibili!

- Martitzena
- 20:00 eta 22:00



Elkarrizkettap

- Eguaztena
- 20:30 eta 22:30



Gipuzkoan egina

- Egubakoitza
- 20:30 eta 22:30

Bertako kontuek lekua izango dute erreportajeetan jasota

Loramendi elkartearen gainekoa ekoiztuko da eta Besaidek egindako 'Udalatx, ura eta atxa' ere emango da

Erreportajei lekua egiten jarraituko du Goiena telebistak sasoi berrian, eta barruan ekoiztutakoak zein kanpotik iritsitakoak emitituko ditu. Azken horiei dagokienez, lehenengoa izango da Besaide Mendizale Elkartearen *Udalatx, ura eta atxa* dokumentala; urriaren 14an, astelehenean, emango du, 20:30ean eta 22:30ean.

Lehenengoa, astelehenean

Arrasaten eta inguruan hain maitatua den Udalatxi balio emateko asmekin egin zuen filma Besaidek 2021ean. Mendiak bere baitan gordetzen dituen balio historiko, kultural eta naturalak nabarmendu ditu hor, hainbat adituren hitzak jasota.

2023ko abenduaren 16an aurkeztu zuten entzute handia duen Mendi Film Festival lehiaketa-

ko sail ofizialean, eta ordutik herri askotako zinema aretoetan erakutsi dute. Orain, Goiena telebistara iritsiko da.

Loramendiren 30. urteurrena

Bigarrena Goienak berak ekoiztuko du. Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak 30. urteurrena ospatzen dabil 2023ko abendua ezker. Aitzakia polita izan da hori atzera begira jarri eta sasoi bateko kontuak gogora ekartzeko: euskararen egoera Aretxabaletan 90eko hamarkadan, Beinke kultur elkartearen eta Loramendi ikastolaren bateratzea, euskara sustatzeko lehen hitzarmenak Udalarekin, ludotekaren sorrera... Horiek guztiak jasoko ditu Goienak, hainbat protagonista-aren ahotik eta Arrasate eta Atxabalta telebistek bere sasoiari jasotako irudiekin osatuta.



'Udalatx, ura eta atxa' dokumentalaren une bat. BESAIIDE ME



Gipuzkoan egina saioaren irudi bat, Tolosako Boinas Elosegui enpresari buruzkoa. GOIENA

'Gipuzkoan egina': lantegien jarduna ezagutzeko saioa

Lurraldeko lantegiak ezagutzeko aukera emango duen 'Gipuzkoan egina'-ren lehen saioa gaur estreinatuko da

Gipuzkoan egina, enpresen jarduna barrutik ezagutzeko ahalbidetzen duen saioa, gaur iluntzean ikusi ahal izango da Goiena telebistan.

Debagoiensean egina telebista saioaren arrakasta ikusita, Gipuzkoako telebistek interesa erakutsi zuten. Hori dela eta, Goierri Telebistaren, 28 Kanalaren, GUKA telebistaren, Goiena telebistaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesari esker sortu zen proiektua.

Talde-lan horren lehen pausoa enprekin kontaktuan jartzea izan zen eta asko izan dira haien atea zabaldu dituztenak. Besteak beste, Boinas Elosegui, Ampo, Orkli, Hine, Bidasoa inprimategi zentroa eta Domuka Teknik ezagutu ahal izango dira. Hamar atal ikusteko aukera egongo da eta horietako bakoitzean enpresa bat izango da protagonista. Inguruan dau-

den enpresen izenak ezagutzeko aukera izaten da gehienetan; gutxitan, ordea, haien lan egiteko modua. Enpresa bakoitza sakonetik ezagutu ahal izateko aukera emango du saioak.

Egubakoitzetan 20:30ean eta 22:30ean emitituko da saioa. Gaur, Boinas Elosegui enpresa ezagutzeko aukera emango du lehenengo atalak.

Txapelak protagonista

Tolosan 1858a ezker martxan dagoen enpresa izango da Gipuzkoan egina saioa aurrenekoa. Boinas Elosegui atea zabaldu ditu eta haien jarduna azaldu dute.

Txapelak nola egiten dituzten ikusi ahal izango da, hasieratik amaiera arte. Bertan enpresaren inguruko bitxikeriek ere hartuko dute lekua. Esaterako, galterdiak ekoizten eman zituela Boinas Elosegui lehen pausoa.

'Harmailatik': Debagoieneko kirolaren epizentro

Kirol kronikak, elkarrizketak eta erreportajeak, protagonisten ahotan

Harmailatik saioak asteburuko kirol ekitaldi nagusien kronikak eskaintzen ditu, eta Debagoieneko kirolari eta taldeak protagonista bihurtu. Partidu zirraragarriak, garaipenak eta porrotak, guztiak sakon aztertuta eta ikusleentzako gozamenarako eskainita.

Xabier Urzelai izango da aurkezlea eta Debagoieneko taldeek jokatzeko dituzten ligen berri ematen jarraituko du *Harmailatik* saioan. Bertako kirol hitzordu eta kirolari protagonismoa ematea izango da berriro ere helburu nagusia. Nabarmendu diren kirolari zein eragileei ahotza eman eta bailarako kirola lehen pertsona ezagutzeko.

Harmailatik saioak kirolarien eta entrenatzaileen elkarrizketak eskaintzen ditu. Haien esperientziak, erronkak eta lorpenak lehen pertsona kontatuta, ikusleek kirolaren atzean dagoen giza faktorea hobeto ulertzeko aukera dute.

Astelehenero ikusi ahal izango da saioa, 20:00etan eta 22:00etan.

Itxura berria

Denboraldi honetako saioaren berrikuntza nagusia platoaren itxura da; platoan bertan protagonistek hitza hartuko dute.

Zelan ikusi
Goiena
telebista

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
943 25 05 05

ltv
euskaltel

Antenaz eta kablez
Euskalteko kable bidez, Debagoiensean, hamaikagarren kanalean dago Goiena; antena bidez seinalea jasota, oster, 25. kanalean.

goiena

Nahieran 'Goiena.eus' atarian
Goiena.eus atarian ikusi ahal izango dituzu telebistako ikus-entzunezko edukiak; zuzenekoa zein norberak aukeratutako saioa nahieran.



'Goiena' aplikazioa
Goiena telebistako edukiak nahieran ikusteko aukera erraza eta eroso klik bakarrean. Zure eskuko telefonoan edo tabletan deskargatu aplikazioa.

YouTube

'Goiena' Youtuben
Ikus-entzunezkoen munduko plataforma zabalduenean ere ikusi daitezke Goienako edukiak, nahieran. Saio osoak, erreportajeak, elkarrizketak...

Baso-bainua, erakusketa eta auzolana Asentzión

Martitzenetik aurrera Aste Berdea egingo dute Elgetan, eta Asentzio ingurua garbitzeko auzolanarekin emango diote amaiera. Udalak, bestalde, berriki sortutako gastu partidak zertarako diren zehaztu du, eta bertso eskolaren berri eman du

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA
Debagoienean Errekak Bizi Auzolanean egitasmoarekin bat egin eta Aste Berdea antolatuta du Elgetako Udalak. Hiru ekin-tza daude iragarrita: martitzeneko baso-bainua Asentzión (17:30), zapatuta bitartean iazko erreka garbiketako argazkiekin osatutako erakusketa buztin gelan eta hilaren 19rako deituta dagoen auzolana (11:00) Asentzio ingurua garbitzeko.

Baso-bainurako eta datorren zapatuko auzolanerako izena emateko eskatu dute antolatzaileek. Interesatuak bi bide dituzte: udaletxera jotzea edo *ingurumena.elgeta@gmail.com* helbidera idaztea.

Aste Berdeari hasiera eman aurretik beste auzolan baterako dei egin du Udalak. Zapatuan, hilak 12, Egoarbitzako herri-lursailak garbitzeko dei egin du. Taldea 08:30ean elkartuko da, plazan. Urtero moduan, Udalak jarriko ditu erremintak, hamarretakoa eta garraioa.

Inbertsio berriak

Iraileko osoko bilkuran onartu moduan, hainbat inbertsio egingo dira 2023ko gerakinetik bideratutako 90.000 euroko diru-partidatik.

Inbertsio berrien artean da Udalak baso-lurak erostea. 10.000 euroko diru-partida bideratu da. "Asentzio inguruko pare bat lur-jaberen eskaintza jaso dugu. Lursailak saldu nahi dituzte, eta Udalera jo dute. Gune horrek garrantzi berezia du guretzat, alde batetik, memoriaren mapan garrantzitsua delako eta, bestetik, etorkizunera begira eta dirulaguntzak jasoz gero Asentzio are eta erakargarriago egiteko proiektua garatzeko aukera izango genukeelako", esan du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak.

Frontoi pareko hondakin-gunean eta Eibarreko taxi-busa hartzeko geralekuan egitekoak



Elgetar talde bat erreka garbitzeko Aixolarako bidean, iaz. L.Z.L.

INGURUNEAREKIKO SENTSIBILIZAZIOA ETA AUZOLANERAKO KULTURA BULTZATUKO DITU ASTE BERDEAK

diren inbertsioen berri ere eman du alkateak. "Domingo Iturbeko zebra-bideko lanak ez dira aurreten egingo. Atzeratu eta datorren urtean egingo ditugu", esan du. "Horren ordez diru hori erabiliko dugu, besteak beste, frontoiko hondakinen gunea atzera botatzeko. Dagoenetan ikuspena oztopatzen du. Laster hasiko dira lanak. Eibarrerako taxi-busa hartzeko geralekuan, berriz, markesina jarriko dugu. Gaur egun alondegia ate parean dago geralekua, eta hori aldatu egin behar dugu. Pare bat apartakelu kenduko ditugu geraleku berria egiteko, eta aterpea ipiniko diogu".

Hirugarren poligonoko digitalizazio lanekin jarraitzea eta Espaloia kafe antzokiko soinu eta argiteria materiala berritzea ere badago udal arduradunen egitasmoen artean. "Antzokian

materiala oso zaharkituta dago", esan du alkateak. "Espazio hori kontzertuetarako, antzerkiatarako edo beste edozein ekitalditarako erabilgarri egoteko soinu zein argiteria ekipoak berri behar dira". Udalak 7.500 euroko partida aurreikusi du ekipoen berritzerako.

Indarkeria matxistaren aurkako jaietako protokoloa lantzen ere badihardu Udalak: "Aurrekontua 5.560 eurokoa da. 1.560 euroko kreditu gehigarriarekin helduko gara inbertsio hori estaltzera".

Bertso eskola

Bestalde, *Zatoz bertso eskolara!* lelopean bertso eskolak haste-ko saiakera egin gura du Udalak, eta zabalik du izen-ematea LH-4 mailatik aurrerako herri-tarrendako. Taldea osatzeko beste izen-emate badaude, saioak urritik ekainera artekoak izango dira, eguaztenetan, 17:30etik 18:30era. Ikasturte osoko matrikula 75 euro da. Taldea osatuz gero, lehen saioa eguaztenetan izango da, hilak 16. Interesatuak *debagoienakobertsoeskolak@gmail.com* helbidera idatzi behar dute.

Herri Foroak ikasturteko lehen batzarra egingo du eguaztenean

Kide diren talde eragileak eta norbanakoak udaletxeko areto nagusian elkartuko dira, 19:30ean

L.Z.L. ELGETA

Oinherri herri hezitzaileen sarearen barruan Elgetako Udalak abiatutako ekimenak jarraipena izango du 2024-2024ko ikasturtean. Talde motorrak irailaren 25ean egin zuen lehen batzarra, eta eguaztenerako dago deituta Herri Foroa. Hezkuntza Saileko zinegotzi Kepa De Vegak azaldu du aurreko urteko balorazioa egiteko eta talde motorrak ikasturte berrirako dituen bi helburuak martxan jartzeko izango dela batzarra, besteak beste.

Aurtengo erronkak

Erronka nagusiak bi dira. "Herriko eragileak saretzea eta sare horri forma ematea izan zen iazko erronka. Hori lortu da. Talde motorraren aurtengo helburuak dira haurren parte hartze organoa egonkortzea eta herriko ondarea biltzen hastea,

herri curriculum osatzeko eta herriko mahai-jolas bat sortze aldera", esan du. "Herriko eragileen parte hartzea ezinbestekoa izango da, batez ere, herri ondarea biltzeko".

Udal arduradunak aurreikus-tan du haurren parte hartze organoa azaro hasieran jarriko dela martxan. Hilean behin elkartuko da eta osatuko dute Udaleko eta eskolako ordezkariak zein ikasleen batzordeak.

Aurreko urteko dinamikatik bestelako ideiak ere irten zirela esan du De Vegak. "Horien artean ziren haur eskolako jolastokian zein eskolakoan lurrean marrazkiak egitea, Elgetan duatloi bat edo kirolarekin lotutako egun bat antolatzea, eskolarekin eta baratze parkearekin elkarlanean intsektuendako hotela sortzea... Horiei ere forma ematen hastea badago erronken artean.

Lapurreta kasu ugari izan dira herrian azken asteotan

Ertzaintzak bi salaketaren berri eman du. "Bata hilaren 3an jarritakoa da eta bestea, hilaren 5ean. Aurreko asteoak eta biak ala biak etxe partikularretan egindako lapurretak dira", jakinarazi dute. Ez dute informazio gehiagorik eman.

Lapurrak herriko enpresa batean eta garaje batean ere sartu dira, ordea, eta material garran-

tzitsua eta delikatua eraman dute. Udalak badu kasu horien berri. "Alondegian sartzeko saiakera ere egin dute. Ez dute lortu eta ez dute ezer eraman, baina ez da lehenengo aldia, eta Ertzaintzarekin harremanetan gaude, ze neurri hartu daitekeen argitzeko", esan du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak.

Ez dago oso argi neurririk eraginkorra zein izan daitekeen, eta eguraldi txarreko egunetan bereziki adi egoteko gomendioa egiten dute.

OHARRAK

Gau Beltza prestatzeko saioak

Josu Ozaita antropologoa Elgetan izango da eguaztenean. Eskolako umeekin egingo du saioa lehenengo, eta hitzaldi irekia 18:00etan liburutegian.

'La Estrella' antzezlanaren eguenean antzokian

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta, beste antzezlan bat aurkeztuko du ONCEko Oroimenak antzerki taldeak, 17:00etan.

Ipuin saio berezia hilaren 18an

Hideane eta bere lagunak ipuin ilustratua aurkeztuko du Ane Bastida egileak Elgetako liburutegian, 18:00etan. Ipuin kontaketa ere egingo du.

209 biztanle galdu, eta 65 urtetik gorakoak gora

Udalaren azken ikerketa sozioekonomikoaren arabera, 2013tik 2023ra 209 biztanle egin zuen behera populazioak, eta 65 urtetik gorako bergararrak %21,4 izatetik %24,2ra pasatu ziren. Langabezia Debagoienekoa eta Gipuzkoakoa baino baxuagoa izan zen iaz

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Udaleko ordezkariak eta Ikei enpresako arduradunek Bergarako egoera sozioekonomikoaren gaineko ikerketak emandako emaitzak aurkeztu zituzten eguaztenean udaletxean egindako aurkezpen publikoan. 2024ko uztailan egin zen ikerketa, eta 2013tik 2023ra arteko dinamika demografikoen, ekonomikoen eta sozialen "diagnostiko zehatza" eskaintzen du. Helburua izan da, eguaztenean azaldu zuten, Bergararen azken aldiko bilakaeraren "ikuspegi osoa" ematea, bai eta etorkizunerako esku hartzeko "funtsezko arloak" identifikatzea ere.

Erronka demografikoari begira Ikei enpresaren txosteneko datu esanguratsuen artean dago Bergarako biztanleriaren beherakada eta zahartzea. 2023an Bergarak 14.739 biztanle zituen, hau da, 2013an baino %1,4 gutxiago, eta 209 biztanle galdu ziren. Eta biztanleriaren zahar-

tzearen "joera argiari" dagokionez, 65 urtetik gorakoak biztanleriaren %24,2 ziren Bergaran 2023an, eta 2013an, berriz, %21,4 ziren. Adin nagusieneko biztanleriaren hazkunde hori 20 urtetik beherako gazteen kopuruaren murrizketarekin lotuta dago: "Erronka handiak ditugu herriaren etorkizunerako, gizarte zerbitzuei, osasunari eta hiri plangintzari dagokienez". Hain zuzen ere, eguneko zentroetako eta adinekoen egoitzetako plazen eskaerak goranzko joera erakutsi dute azken hamarkadan.

"Adierazle onak" enpleguan

Bestalde, enpleguari erreparatuta, Bergaran "aldeko adierazleak" daudela azpimarratu zuten;

KUALIFIKAZIO FALTA: LANGABEEN %51,4K BIGARREN MAILAKO EDO BEHERAGOKO IKASKETAK BAKARRIK

langabezia tasa % 6,9koa izan zen 2023an, eskualdeko batez bestekoa (%7,5) eta Gipuzkoakoa (%8,1) baino txikiagoa: "Joera hori ikusten da bai biztanleria osoan, bai emakumeen kolektiboan, nahiz eta ikusten den genero arrakala egon badagoela". Hala ere, badago datu kezgarri bat: langabeen %51,4k bigarren mailako edo beheragoko ikasketak baino ez dituzte: "Erronka argia dugu biztanleria aktiboaren kualifikazioa hobetzeko". Zerbitzuen sektorea –merkataritza, garraioa eta ostalaritza barne– establezimenduen %35,1 da, biztanleria aktiboaren %60 inguru enplegatuta: "Zerbitzuen sektorearen pisua handiagoa da industriarena baino enpleguari dagokionez, baina industria da oraindik ere kapital ekonomiko gehien sorrarazten duen sektorea". 2023an, jarduera ekonomikoa zuten 974 establezimendu zituen udalerriak, eta horiek 5.968 pertsonari ematen zieten lana.

Elikadura osasungarria: Gozo Topaketak, Bergaran aurten

Elikadura osasungarria eta iraunkorra oinarri, urriaren 18an eta 19an jardunaldiak izango dira udaletxean

J.B.L. BERGARA

Elikadura osasungarria eta iraunkorra oinarri, Gozo Topaketak Bergarako udaletxean egingo du geldialdia aurten. Urriaren 18an emango diete hasiera: 17:00etan hasiko da izen-ematea, eta mahai inguru bana izango da 17:30ean eta 18:30ean: *Nola eraldatu gauzak ezer aldatzen ez denean* eta *Sukaldarien eta ekoizleen arteko aliantzak, gure sukaldeak egokituz* izenpean, hurrenez hurren.

"Esperientzia eraldatzaileak" ezagutzeko aukera izango da lehen mahai inguruan, Nora Olabideren, Irene Santamariaren eta Onditz Villarren (Elgeta Herri Eskola), Alex Azpiriren (Berton Bertokoa, Durangaldea), Aitor Nuñesen (Salburua Eskola, Gasteiz) eta Sayda Taboraren (Bidezko Elikadura, Guatemala) eskutik. Bigarrean, berriz,

hiru hizlari izango dira: Yesenia Castro (Fedecoopades, El Salvador), Ortutik Ahora (Busturialdea) eta Severine Quencez (Collectif les Pieds dans le Plat / SCIC Nourrir l'avenir, Frantzia).

Zapatuan ere mahai-ingurua

Urriaren 19an goizeko egitaraua izango da. *Elikadura eskubidea: merkatuak zerbitzu publiko gisa* mahai ingurua egingo dute 11:00etatik 12:30era, eta Javier Guzman (Bidezko Elikadura), Evelyn Ramirez Mejorha (Guatemala), Ainhoa Lete eta Aitziber Plazaola (Bergarako Elikadura Mahaia), eta Jordi Masdeu eta Isa Alvarez (Frescoop, Maresa, Katalunia) izango dira hizlariak. Kaferako unea izango da ondoren, eta merkatura bisita 13:00etatik 14:00etara; topaketak amaitzeko, jatekoa egongo da. Izen-ematea zabalik dago.

Udazkeneko literatura solasaldietan izena emateko aukera dago

Jardun elkarteak eta Udalak, Udal Liburutegiaren laguntzarekin, hiru literatura solasaldi antolatuko ditu udazkeneko. Mikel Antza dinamizatzaileak gidatutako literatura solasaldi horiek euskaraz izango dira, hilean behin, Irizar jauregian (18:30). Hiru libururen inguruan antolatu dituzte solasaldiak: urriaren 23an, Eider Rodriguezen

Eraikuntzarako materiala liburuarekin; azaroaren 20an, Jose Luis Elkororen bizi- eta hizpide duen Mikel Zubimendiren *Han egon zen* liburuaz mintzatuko dira; eta, azkenik, abenduaren 18an, Xamar-en *Etxera bidean* liburuaz izango dute aztergai.

Aldez aurretik izena eman behar da: Jardun euskara elkartearen –Oxirondo plaza 2, lehen solairua / 943 76 36 61 / 605 71 24 69 / jardunkultura@topagunea.eus–edo Udal Liburutegian (943 77 91 62).

OHARRAK

Erreka garbitzeko auzolana urriaren 19an

Izen-ematea, hilaren 13ra arte: errekaragabitzeko@gmail.com.

Odol Emaileen Elkarteak: hurrengo ateratzea

Urriaren 16an, Arin eguneko zentroan, 16:30etik 20:30era.

1953an eta 1959an jaiotako ospakizuna

1953an jaiotakoak azaroaren 9an elkartuko dira Tartufo jatetxean bazkaltzeko. Autobusa 13:30ean irtengo da, Santa Marinatik; izena emateko: 695 75 12 15 (Imanol Agirre) edo 640 93 92 37 (Jose Zafra). 1959koek, bestalde, urriaren 26an Tartufon bazkalduko dute; izena emateko 70 euroko ordainketa egin behar da: ES45 3035 0009 13 0091165136 (Laboral Kutxa).



65 urtetik gorako herritar bat San Martin plazatik igarotzen, irail amaieran. J.B.L.



Urriaren 4ko hitzaldiaren osteko talde-argazkia, Irizarren, Bergarako Besarkadaren plotteraren aurrean. LANBROA KULTUR ELKARTEA

Menu berriak lehen gerra karlista du plater nagusi

Lanbroa Kultur Elkarteak hiru hitzaldi eta afari antolatu ditu urriaren zehar, Bergararekin "lotura estua" izan zuen Lehen Karlistaldia oinarri hartuta. Hilaren 4an egin zuten lehena, gaur egingo dute bigarrena eta hilaren 25erako antolatu dute hirugarrena

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2024ko udaberriaren elkarte sortu eta lehen saioak antolatu ostean, udazkenean bueltan da Lanbroa Kultur Elkartearen eskaintza; oraingoan, Lehen Karlistaldia hartu dute oinarri moduan urriaren zehar hiru hitzaldi antolatzen. Hitzaldiak Irizar jauregian izango dira eta saioen osterako afaria antolatu dute herriko elkarte gastronomiko batean. Izan ere, antolatzaileek diotenez, halako hitzaldiak motz geratu ohi dira, bereziki, herri-tarrei hitzaldien esandakoen gainean galdetzeko tartea irekitzen zaienean. "Afaria baliatu ohi dugu gaian sakontzeko edo bestelako gaiez jarduteko", adierazi du Lanbroa elkarteko kide Ander Errastik. Hiru saio antolatu dituzte; lehena urriaren 4an egin zuten, eta Joseba Agirreazkuenaga gonbidatu zuten *Karlisten oldarraldiaren aurrekariak eta ondoko gerra (1821-1839)* izeneko hitzaldia egiteko.

Lehen saioa, "arrakastatsua"

Urriaren 4ko saioa "arrakastatsua" izan zen, Errastiren arabera: "Gogotsu eta ilusioz gaude. Lehen hitzaldian 50 bat lagun elkartu ginen Irizarren eta gero hogeitatu bat lagun etorri ziren afaltzera Umore Ona elkartera.

Arrakastatsua izan zen, ez elkartu zen jende kopuruagatik bakarrik, baizik eta hitzaldian bertan zein bereziki afarian sortu zen giroagatik. Galdera asko egon ziren, jendeak benetan zuen interesa. Afarian, horrenbeste historia-zale egonda, bestelako gaiak ere irten ziren". Bertaratu zirenei eskerrak emateaz gain, elkarte gastronomikoen laguntza ere goraiatu du Errastik: "Elkarte gastronomikoen ekintza kultural moduan hartu dituzte hitzaldien osteko afariak, eta erraztasun guztiak jarri dizkigute. Afariak, gainera, primerakoak ari dira izaten".

Euskara zen nagusi, "erabat"

Hitzaldiko zikloko bigarren saioa gaur izango da, Irizar jauregian (19:00). Lanbroakoek Juantxo Madariaga gonbidatu dute Lehen Karlistaldian eta bereziki Bergara aldean euskararen egoera zein zen irudikatzen. Izan ere, Errastik azaldu duenez, euskarak une oparoa bizi zuen XIX.

"GOGOTSU GAUDE, ILUSIOZ; GIRO EDERRA SORTU DA ORAIN ARTEKO SAIOETAN"

ANDER ERRASTI, LANBROA ELKARTEA

mendearren erdialdean: "Gaur egun pentsaezina da, baina euskara zen lehen hizkuntza orduan, erabat. Bergaran nabarmena zen, baina Bilbon ere, ideia bat egin dezagun, gaztelerez komunikatzea zailagoa zen euskaraz komunikatzea baino; gaur egun, tamalez, alderantziz da. Bando karlistan gehienek ez zekiten gaztelerez eta bando liberalean, berriz, alderantziz. Hala, komunikazio arazo nabarmenak izan ziren bi bandoen artean; horren ondorioetako bat izan daiteke bakea sinatzeko bi bandoetako buruak besarkatu izana, gerra bukatu zela argi geratu zedin". Ondoren, Pertxa elkartearen afalduko dute.

Hirugarrena, urriaren 25ean

Hirugarren eta azken hitzaldirako Zumalakarregi museoko artxibo arduradun Mikel Alberdi gonbidatu dute, *Begarako besarkada eta beste bake saioak Lehen Karlistaldian* izeneko hitzaldia egin dezan. Urriaren 25ean izango da, Irizarren (19:00), eta ondoren Sagarpe elkartearen afalduko dute. Gaurko zein hilaren 25eko saioen osteko afarian izena emateko honako telefono-zenbaki honetara deitu behar da: 610 28 97 48 (Andoni). Afariaren prezioa 18 euro da.

NIRE USTEZ

ALEX ARTEAGA

Inspirazioa krisi

Azken orduan, beste behin, azken minutuen presiopean. Denbora faltagatik, akaso? Egin beharraren tentsioa? Prokastinazioa? Egia esan, ez dakit. Baliteke milaka eginbeharren artean burua beste nonbait galdu izana. Hartu dut paper zuria eta, beste behin, ideiarik gabe. Hainbatetan ikusi izan dut neure burua egoera honetan; ideia, inspirazio edo sormenik gabe. Eta, askotan, neure burua ere kastigatu izan dut, ene izateari sorkuntza maila altuago bat exijituaz. Buruhauste handia izan da hau, sarri, niretzat. Sorkuntza prozesu oro beste estrategia batzuekin landu beharko nukeela pentsatu izan dut edota lan egiteko modua aldatu eta zaindu. Eta autoexijentzia horrek kontrako efektua eragin du, sormen gaitasuna blokeatu. Orduan, inspirazioa bakarrik dator edo nonbait aurkitu beharra dago? Blokeatuta jarraitzen dut. Lana ondo egin beharraren presioak larregi itsutu al nau? Eta ohartu gabe garrantzitsua zena alde batera utzi? Lau haizeetara eskaera bat zuri, irakurle. Mesedez, sormen krisi honi aurre egiteko gaitasun, baliabide edo modurik baduzu, konta egidazu. Eskertuko nuke.

Bidegorriaren lotura lantzeko eskatu dute jeltzaleek

Urteaga kaleko bidegorriaren proiektua lehenbailehen idazteko eskatu diote Bergarako Udal Gobernuari

Larraitz Zeberio Lekuona BERGARA Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ura Agentziak eta Ur Kontsultorioak asteon sinatu dute Antzuola eta Bergara bidegorriz lotzeko eta Antzuolako saneamendu kolektorearen hirugarren eta azken fasea eraikitzeko obrei hasiera emateko hitzarmena (Ikus 18. orria).

Begarako eta Antzuolako jeltzaleek txalotu egin dute albisteak, bi herrietako biztanleek "beharrerekoak" dituzten azpiegiturak direla iritzita. Aldi berean, Bergarako EH Bilduren Udal Gobernuari eskatu diote Urteaga kaleko bidegorriaren loturaren proiektuari lehen tasuna emateko. Uste dute hitzarmena sinatu izanak aukera ematen duela egitasmoari bultzada emateko, eta proiektua lehenbailehen idazteko eta egiteko eskatzen dute. "Hiru erakundeak udalekin informazioa partekatuz aritu dira lanean (...) Bergarako Udalak lehenbailehen egin beharko du Urteaga kaleko bidegorriaren proiektua, erabiltzaileek ibilbide osoa egin dezaten Bergaratik Antzuolara eta Antzuolatik Bergarara".

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Mailari eutsita, Euskal Ligan egonkortzera

Bergara-Soraluce saskibaloi taldeak etxean jokatu du, domekan (18:00), ligako bigarren jardunaldia. Maiatzean mailari eutsi eta gero, Xabat Irazolaren mutilek bigarren urtea egingo dute Euskal Ligan, eta proiektua egonkortzea dute helburu

Xabier Urtzelai Atxa BERGARA

Bergarako senior mailako gizonen lehen taldeak Euskal Ligan jokatu du aurten ere, eta, iazko zalantzak uxatuta, Xabat Irazola entrenatzaileak dio sailkapenaren erditik gora egon nahi dutela. "Iaz esperientzia falta zitzaigun maila honetan, baina liga hasi aurreko lagunartekoetan ikusi genuen gure saskibaloia egiten bagenuen lehiakorrek izan gintezkeela. Hala, aurten esperientzia handiagoarekin ekingo diogu urteari, ea hobeto ibil gaitezkeen".

Hasi, behintzat, ondo hasi dira, joan den astean 71-84 irabazi zioten eta Hotel Gran Bilbao Santutxuri. "Zalantzekin joan ginen; taldea ondo indartu zutela entzun genuen, ACBn debuta egindako jokalarik bat fitxatu zutela... Baina gero kantxan ez genuen halakorik ikusi. Hirugarren laurdenean 20 puntuko abantailarekin geunden; aspaldian egin dugun partidua onena izan zen, serio ibili zen taldea".

Agurain domekan

Modu ezin hobea da liga hasteko, eta domekan mahoneroek joera positiboa horrekin jarraitu nahi dute. "Mailaz igo berri den taldea da Agurain, eta ez dugu erreferentzia handirik. Bergaran entrenatzaile izandako Patxi Ortiz dute aulkian, eta seguru talde gogorra izango dela. Joan den astean, behintzat, 81-63 irabazi zioten Loiola Indautxuri". Bigarren partidua irabazteak aukera emango lieke egutegian gorritz markatuta daukaten hirugarren jardunaldira konfiantzaz joateko. "Datorren astean Urretxuren kontrako partidua derbi modukoa da guretako. Jokin Perez bergararra dago han entrenatzaile lanetan, eta lagun handia dut. Eta inork ez du nahi izaten lagunena kontra galdu", dio, barrez.



Bergararak etxean jokatu, artxiboko irudi batean. GOIENA

"Liga honetan edo jokatu edo zuzendu, ezin dira biak egin"

XABAT IRAZOLA BERGARA KE SORALUCE-KO ENTRENATZAILEA

Xabat Irazolak (Bergara, 1997) kirol zuzendari lanak lehenengo taldeko entrenatzaile lanekin bateratzen ditu, eta, horrekin batera, bigarren taldeko jokalarik ere bada. Bergararak hor asetzen du saskibaloia gosea.

Non ibiltzen zara gusturen?

Nik jokatzeko dut gustuko, baina klubak duela bi urte entrenatzaile jarduteko eskaera egin zidan, eta onartu egin nuen. Gipuzkoako txapelketan geundela jokalarik eta entrenatzaile nintzen, baina Euskal Ligak ez du halakorik egiteko aukerarik ematen. Burua taldearen jokoan izan behar da, ez norbera kantxan egiten dabilen horretan.

Aurten bigarren urtea duzue maila horretan.



GOIENA

Bai; iaz azken bi hilabeteetan oso zentratuta egon ginen egin beharreko horretan, eta mailari eutsi genion. Aurten baja garrantzitsuren bat izan dugu, eta jokalarik kopuru aldetik nahiko justu gabiltza: zortzi jokalarik ditugu lehenengo taldean eta dagoeneko lesionatu zaigu jokalariren bat edo beste. Hain zuzen, lesioek errespetatzen bagaituzte sailkapenaren erditik gora egon gaitezkeela uste dut.

Aitor Arregik Mahonero Saria jasoko du domekan

Bergarak eta Oiartzunek jokatu duten partidua atarikoan emango diote maiatzean jaso ez zuen saria

X.U. BERGARA

Kirol ibilbide oparoa izan du Aitor Arregik (Bergara, 1990), eta, hain zuzen, horrexegatik emango diote Bergara KEko lagunek Mahonero Saria domekan (17:00). Berez, sari banaketa ekitaldia maiatzean egin zuen klub mahoneroak, baina orduan, osasun arazoak tarteko, Logroñeko jokalarik ohiak ezin izan zuen saria jaso, eta, hori horrela, domekan jasoko du saria. Hala, Ibai Leizeaga, Maider Jorge, Iñaki Mardaras, Alaitz Olabarrieta, Antonio Pato eta Aitor Arregi izan dira aurten errekonozimendua jaso duten mahoneroak.

Futboleko zaildutakoa

Aitor Arregik makina bat klubetan jokatu osatu du bere futbol ibilbidea atzelari moduan. Eibarko harrobitik lehenengo



Aitor Arregi. GOIENA

taldera iritsi zen, jokalarik gaztea zela, eta ondoren jokalarik moduan esperientzia batzen joan zen, Cadizen (2014-2015), La Rodan (2015-2016), Leioan (2016-2017), El Ejidon (2017-2018), Amorebietan (2018-2022) eta Logroñesen (2022-2023) jokatu.

Skate festa Labegaraietan

Trukuzikim elkarrekin antolatuta, zapatuan skate-zaleen topaleku bilakatu zen Bergarako Labegaraietan auzoa, skate festa egin zuten eta. Gazteak eta helduak ibili ziren skatean. Hala nahi zuten herritarrentzako skate hastapenak izan zituzten goizean, eta parrillada egin zuten ondoren. Arratsaldean, berriz, skate txapelketak egin zituzten.



IMANOL SORIANO

Soraluce BKEk Txingudi hartuko du domeka eguerdian

Joan den asteburuan hasi zuten eskubaloiko senior mailan denboraldia, eta, gizonen arteko txingudi kanpora emaitza ona lortu bazuten ere -21-26 Urrietaren kontra-, senior mailako nesken arteko ez zen amestutako liga hasiera izan, 17-34 galdu baitzuten liga irabazteko faborito diren Orioren aurka. Kasu horretan, baina, emaitza gutxienezkoa zen, 21 ur-

teren ostean osterara ere kategoriara itzuli direlako. "Galtzen joanda ere partidua osoan, ez zituzten besoak jaitsi, amaiera arte borrokatu ziren, eta harro egoteko itzulera egin zuten", adierazi dute klubeko ordezkariak.

Nesken asteburuan etxetik kanpora jokatu dute: gaur, egubakoitza, izango dute partidua, 20:00etan, Usurbilen. Eta mutilek Labegaraietan jokatu dute: domekan izango da partidua (13:00), eta Txingudi Goibar izango dute aurrean.



Txapa Irratiko zuzeneko irratsaio bat, kartzela zaharrean. GOIENA

Lau hamarkadaren ostean, "bizirik eta osasuntsu"

40. urteurreneko programazioa aurkeztuko du Txapa Irratiak, eta, ohiko irratsaioarekin batera, zuzeneko emanaldia egingo du Xabier Badiola bakarlarari eibartarrak. Aurkezpena egin eta gero, bazkaria egingo dute kartzela zaharrean

Julen Murua Mesonero BERGARA

Ikasturte berria hastearekin batera, Txapa Irratiak 2024-2025eko ikasturteko programazioa aurkeztuko du urriaren 13an, domeka, 12:30ean. "Urtero bezala, ikasturte honetako programazio-parrillaren aurkezpena egingo dugu. Egia da aurten oraindik itxi gabe daukagula ikasturtean zehar emango ditugun irratsaioak, baina gauden guztiok aurkeztuko dugu bakoitzaren irratsaioa eta zeintzuk diren bakoitzaren asmoak. Horrez gain, Arrosa Irratiko hainbat irratsaio emango ditugu aurten ere" adierazi du Lander Juaristik, Txapa Irratiko kideetako batek.

Ateak irekita

Programazioa aurkeztuko badute ere, Juaristik adierazi du ez dagoela guztiz itxita, eta irratsaio propioa egin nahi duten herritarrek gonbidatu nahi izan ditu Txapa Irratiko parte izate-ra: "Betiko irratsaioak aurkez-

tuko ditugu, baina atea irekita daude, oraindik programazio-parrilla osatu gabe dagoelako. Inork bere irratsaio propioa egin nahi badu, lekua izango du aurtengo programazio-parrillan. Historikoak diren hainbat irratsaio jarraitzen dute, baina espero dugu proiektu berriak batzea". Irratsaio berriak batzeko, Txapa Irratikoekin jarri behar da kontaktuan: "Kartzela zaharre-
ra etorri eta gurekin kontaktuan jartzea nahikoa da. Ostean, Txapa Irratiak hilabetean behin egiten duen asanbladara etorri, proiektua aurkeztu, irratiak nola funtzionatzen duen eta zer balioren pean lan egiten dugun ezagutu beharko dute".

**PROGRAMAZIOA
AURKEZTU DUTEN
ARREN, PROIEKTU
BERRIAK JASOTZEKO
PREST DAUDE**

40 urteren ostean, osasuntsu

Lau hamarkada beteko ditu Txapa Irratiak aurtengo ikasturtean, eta horren baitako ospakizuna antolatzeko "lantalde bat" eratu dute. Ekimenaren bueltako guztia "poliki-poliki" aurreratzen joango dira.

Urte dezente igaro dira Txapa Irratia sortu zenetik, eta, lau hamarkadaren ostean, proiektuak osasuntsu jarraitzen dutela dio Juaristik: "Nabarmendu nahi dugu 40 urteren ostean jarraitzen dugula irrati libre bat izaten ideologikoki zein ekonomikoki, autogestioan oinarritutakoa, eta hori, gaur egun, ospatzekoa da. Osasuntsu eta bizirik jarraitzen du Txapa Irratiak, eta hori ez da gutxi. Oraindik beharrezkoak dira horrelako proiektu komunikatiboak, kolektiboari garrantzia ematen diotenak. Bakoitzak bere irratsaio propioa dauka, baina guztiok gaude Txapa Irratiaren teilatupean. Osasuntsu gaude eta beharrezkoak izaten jarraitzen dugu".

Ignacio Arakistain eta Aritz Segura musikarien txanda

Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren barruan, kontzertua egingo dute, bigarrenez, Bergaran

J.M.M. BERGARA

Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren 25. urteurrena ospatzen ari dira urrian, eta Bergara da emanaldiak jasotzen ari den herrietako bat. Urriaren 13an beste kontzertu bat izango da herrian, Santa Marina parrokiaren (19:00), eta Ignacio Arakistain organista eta Aritz Segura zeharkako flauta jotzailea izango dira protagonista nagusiak.

Musikari gipuzkoarrak

Arakistain azpeitiarra da, eta musika munduan lehen pausoak

herriko Juan de Antxieta musika eskolan eman zituen. Ondoren, haren ibilbidea Donostiako Francisco Escudero erdi mailako kontserbatorioan jarraitu zuen. Segura, berriz, errenteriarra da, eta bertan eman zituen lehen pausoak musikaren munduan. Hark ere Donostiako Francisco Escudero musika kontserbatorioan egin zituen ikasketak; gradu profesionalak, hain zuzen. Eta gaur egun, haren ibilbide artistikoan lanean diharduen bitartean, Bergarako eta Lesakako musika eskoletan ere egiten du lan.



Juan de la Rubia eta Xabier Urtasun, lehenengo kontzertuan.

Kultur ekintzaz beteta dator urria San Joxepekoentzat

Bisita gidatuak, hitzaldiak, irteerak eta bazkariak egingo dituzte urrian San Joxepe Nagusien elkarteak

J.M.M. BERGARA

San Joxepe Nagusien Elkarteak urrirako kultur egitarau zabala antolatu du. Urriaren 1ean ospatu zuten Nagusien Nazioarteko Eguna, eta horren baitako hainbat ekintza egin zituzten hurrengo egunetan; esaterako, urriaren 8an *El reto de la nueva longevidad* hitzaldia egin zuen Javier Yanguasek udaletzeko osoko bilkuren aretoan eta urriaren 9an atea ireki zituzten ARIN-eguneko arreta zentroan.

Datozen egunetarako ere hainbat kultur ekimen antolatu

dituztela aurreratu dute San Joxepe elkarteak: besteak beste, hilaren 14tik 18ra Laboratoriumera egingo dituzten bisita gidatuak, urriaren 18an Aranzadi Ikastola, Maria Lagundia eta San Martin ikastetxeetako ikasleek San Joxepera egingo duten bisita eta urriaren 21ean Bergarako Gazte Ikerlariek Seminarixoa adimen artifizialari buruz egingo duten hitzaldia iragarri ditu elkarteak. Goienaren webgunean daude urriko gainontzeko hitzorduak: www.goiena.eus.

OÑATIKO JAIAK 2024



Eguerdiko zaparradak ez zuen inor kikildu eta mozorro asko ikusi ziren kalean, baita karrozak ere.



Kontzertu interaktiboa egin zuen Esne Beltzak plazan.

Eguraldiak ez ditu kikildu herritarrak jaietako azken egunetan

Egitarauak jasotako ekitaldi guztiak egin ahal izan ziren eta Udala gustura dago izan duten harrerarekin eta "jendearen parte-hartzearekin". Orain, musikegunak, antzezlanak, film laburren rallya eta estilo askotariko kontzertuak datoz

Oihana Elortza Gorostiza GOIENA Domekan arratsaldetik aurrera egindako euriak eta astelehen goizeko zaparradak eta haizeak ez zituzten jaiak baldintzatu –umeen parkea kiroldegian izan zen–, eta antolatu moduan egin ziren ekintzak. Jendeak izandako parte-hartzearekin "gustura" daudela adierazi du Iñaki Olalde, Kulturako batzordeburua: "Jendeak hala eskatuta, bigarren urtez jo zuen Puro Relajo taldeak astelehen arratsaldean plazan, eta adin askotariko jende asko batu zen aurten ere. Kontzertuek, egia esan, egoki funtzionatu dute".

Txosna Batzordeak txosnagunean antolatutako ekintzetan ere hartu du parte jendeak. Zapatu gauean, Los Zopilotes Txirriaos taldearen emanaldian jende asko egon zen. Baita Erro-saio Bixamoneko *Dibertsioak*

ekitaldian ere, bai entzule moduan bai parte-hartzaile moduan.

Udaltzainek jaien azken txanpa "oso ondo" joan dela adierazi dute, eta ez dutela "inongo arazorik izan" gaineratu. "Erzaintzak egunero bidali dituen parteetan ere ez da aipatzeko ezer egon. Dena primeran joan da", udaltzainburuaren esanetan.

Antzerkia eta musika

Eta herriko jai nagusiak pasata, udazkenean sartuta, ikasturtea hasten da Oñatin. Urriko lehen bi asteetan hasiko da ohiko martxa hartzen herria,

GAZTELEKUAN EGINGO DIREN KONTZERTUETARAKO SARRERAK SALGAI DAUDE

baina dagoeneko antolatuta dituzten ekitaldi ezagunak egingo dira abendura bitartean. Adibidez, antzezlan batzuk eta azaroko lau domeketako musikegunak eongo direla aurreratu du Olalde. Horrez gain, film laburren rallya egingo da datorren hilean, eta gaztetxea eta Burrunda Faktoria ere hasita daude kontzertuak eta bestelakoak antolatzen.

Gaztelekuak, adibidez, eguerdiko zein gaueko kontzertuak berreskuratuko ditu. Estilo askotako sei kontzertu dituzte iragarrita urtarrila hasiera bitarteko. Olatz Salvador donostiarrarena izango da lehen, hilaren 19an. Mila Modu, Anestesia, Anker, Idoia Asurmendi, Delirim Tremens eta Keia ere entzungo dira gaztelekuetan. Baita *Go!azen* ere. Sarrerak salgai daude.



Kiroldegiko herri bazkarian 600dik gora lagun elkartu ziren.



Kudrilla askok bazkaldu zuten elkarrekin Antixena parkean.



Erraldoiekin dantzan ibili ziren, musika bandak doinua jarrita. OÑATIKO



Herriko 22 taldek hartu zuten parte Errosaixo Bixamon eguneko *Dibertsiotan*. GOIENA ETA OÑATIKO UDALA



Sokamuturra.



Rekalde eta Landa Etxeberria eta Erle baino gehiago izan ziren finalean.



Herriko nekazariak, abeltzainak eta gazta ekoizleak zaindutako eta ekoiztutako produktuak izan ziren Herri Egunean.



Uxue Alberdi eta Susanna Martin. IKASTOLEN ELKARTEA

Alberdi eta Martin izango dira martitzenean udal liburutegian

'Surflariak' komikiarekin etorriko dira eta herritar guztiek parte hartzeko saioa izango da, 18:30ean

O.E.G. GOIENA

Datorren astean hasiko du ikasurte berria udal liburutegiak, eta "ikusmin handikoa" izango dela uste du bertako arduradun Arantzazu Ibarrodok: "Eskainitako talde guztiak atera dira aurrera, baita umeena ere; oso pozik gaude".

Saio irekia eguaztenean

Idazketa tailerren uda osteko lehen saioa astelehenean da. Joxemari Iturralde izango da aurtengo irakaslea ere eta hezortzi lagunek hartuko dute parte; horietako bat Donostiatik etorriko da propio. Irakurketa talde bietan ere hogeitik gora lagun ibiliko dira. "Gaztelera-zkoan 27 daude eta euskarazkoan 24, ia parekatuta daude. Gorkada izan da talde horretan, eta pozik gaude". Itziar Ugarte eta Monika Leiva izango dira saioen gidariak. Peru Madalena idazleak

zuzenduko duen gaztetxoaren irakurketa taldean ere askok eman dutela izena gaineratu du Ibarrodok; hilaren 21ean izango da euren lehena.

Komiki talde biek ere aurrera egin dute, eta, hain zuzen ere, euskarazko taldeak landuko duen komiki baten saioarekin hasiko dute irakurketa taldeen ikasturtea. Uxue Alberdi idazleak eta Susanna Martin ilustratzaileak egindako *Surflaria* izango da komentatuko duten liburua. Egile biak, gainera, liburutegira etorriko dira herritarrekin batera komikiaz berba egiteko. Saioa irekia izango da eta, ohiko taldekideez gain, edozein herritarrek izango du aukera parte hartzeko. Martitzenean izango da, hilak 15, 18:30ean.

Horrez gain, *Ztandap* ikuskizuna ere egongo da urrian Oñatin, Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzeko.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOAKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com

Alokairurako hobariak EAJren proposamenetan

2025eko udal zerga eta tasen ordenantzan igoera bakarria hondakinena izatea da jeltzaleen proposamena. Hobariei lotuta, berriz, alokairura bideratuta daude egindako gehienak; etxe hutsek duten %100eko gainkarga kentzea ere proposatu du

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Zerga-politikak "jasangarria eta arduratsua" izan behar duela uste du Euzko Alderdi Jeltzaleko udal taldeak, eta oinarri hori hartuta egin ditu datorren urtean aplikatuko diren zergen eta tasen gaineko proposamenak. Hala, gehienak igoerarik gabe mantentzearen alde egin du, hondakinena salbu -%33,6ko igoera-, "saihestezina" dela iritzita. Etxebizitza hutsei %100eko gainkarga kentzea proposatu du, eta hobariak, alokairuak eta mugikortasun jasangarriak sustatzea.

Hobariak eta igoera

"Alokairua, zerbitzu publiko eskuragarriak eta jasangarritasuna sustatzen dituen zerga-politika" da jeltzaleen proposamena, astean Amaia Erostarbe Letamendi eta Xabier Mugarza Aiastui zinegotzi jeltzaleek prentsa aurrean azaldu dutenez. Alokairuaren inguruan, hutsik dauden etxebizitzetako %100eko errenergia kentzea proposatu dute, "alokairu eskaintza handitzeko pentsatutako neurria izan arren errealtatea delako askok hutsik jarraitzen dutela". Gaineratu dute Bizigune eta Alokabide programak badaudela, eta Udal mailako bat egiteko ideia egin diola EH Bilduk osa-



Xabier Mugarza eta Amaia Erostarbe, eguztaren prentsaurrekoan. O.E.G.

tzen duen Udal Gobernuari, "egon daitezkeelako programa horietako baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzak baina alokatzeko moduan daudenak". Etxeak alokatzeko obretan %90eko hobaria proposatu dute. Baita %50ekoa ibilgailu elektrikoendako karga puntua duten garaieendako ere. Aurreko urtean bezala, kiroldegiko tarifa murriztuak aplikatzeko adina 22 urtetik 25era igotzea gurako luketela ere esan dute.

Igoera hondakin tasan soilik izatea da jeltzaleen proposa-

mena: "Europatik dator lege hori, eta saihestezina da. Zerga hori %33,6 igoko dela jakinda, horrek %3ko igoera dakar beste zerga eta tasa guztietan, eta ez lukete igoerarik izan behar".

Jeltzaleek esan dute euren proposamenen berri baduela dagoeneko Udal Gobernuak, eta "adostea eta errealtate bihurtzea" gurako luketela. Datorren urteko tasen eta zergen udal ordenantza urriaren 24an egingo duten osoko bilkurako gai zereendako puntuetako bat izango da, han onartzeko.

Emakume etxerako taldeak eratzen hasiko dira zapatuan

Emakumion Etxia proiektua bukatu bitartean, taldeak sortu eta lanean arituko dira, espazio hori zabaltzen denean dena prest izateko. Talde bat arduratuko da programazioaz, adibidez, eta irudiaz eta komunikazioaz beste bat. Horrela, hainbat talde egingo dituzte, ikasturtean lanean arituko direnak. Lehen bilera zapatuan da, 10:00etan, Eltzian.



NIRE USTEZ

UXUE MONTERO

Jaiak eta musika

Jaiak bukatu berri dira eta herriak bere ohiko erritmoa berreskuratu du. Beti sentitzen dut uda aurreko normaltasunera ez garela itzultzen orain arte.

Lana dela eta, ezin izan ditut jaiak nahi bezala bizi, baina aprobetxatu dut ahal izan dudan guztia, eta egiaztatu dut, beti bezala, mota desberdinetako jarduerak daudela, gustu ezberdinetarako eta adin guztietarako. Bereziki atsegin ditut haurrak, gazteak zein helduak aldi berean gozatzen ikusten ditudanak; esate baterako: danborrada, animaliak ikusi Herri Egunean, piroteknia, kontzerturen bat...

Eta, musikaz ari garela, maite dut gure gazteak nire gaztaroko musikaz gozatzen ikustea. Musika euskalduna, hain zuzen ere. Modak eta globalizazioa badira ere, gure kulturako hainbeste abesti eta artista entzuten eta abesten jarraitzen dute: kontzertuetan -Esne Beltzarena aurtan, adibidez-, bertsiok txosnetan, kalean mugikorretan... Aitortzen dut bi sentimendu indartsu eragiten dizkidatela: inbidia -gaztetasuna; zein itzuliko zen...- eta harrotasuna.

Tailerra egingo dute minbizia izan osteko osasunari buruz

Osasun etxean izango da, zazpi astez, eta urriaren 15ean da lehen saioa; izena eman behar da aurrez

O.E.G. OÑATI

Minbizia izan ondoren nire osasuna izenpean, zazpi saioko tailerra egingo dute datozen asteetan Oñatiko osasun etxean; antolatzaileen hitzetan, prozesu onkologiko bat bizi izan duten pertsonen eta haien zaintzaile nagusien bideratuta. Urriaren 15ean izango da lehen saioa eta azaroaren 26an, berriz, azkena: hain zuzen, 16:30etik 19:00etara izango dira, martitzenetan; gutira, zazpi.

Izen-emateari dagokionez, osasun etxera joan daiteke, edo

eskura dauden beste bi bideetako bat jarraitu: 943 00 65 51 telefono-zenbakira deitu edo mezu elektronikoko bat bidali *pacienteactivo@osakidetza.eus* helbidera. Gehienez, hamabost pertsonako taldea izango da, eta bi monitore arituko dira dinamizatzaile lanetan.

Herriko osasun etxean, ambulatorioan, izango dira saioak, eta aurrez aurreko prestakuntza jasoko dute interesa izan eta izena ematen dutenek. Ambulatorioan bertan ere eska dezakete informazio gehiago.

Janari bilketa egingo du Hotz Oñatik eguenetik aurrera

Janari bilketa egingo dute urriaren 17tik 19ra, Hotz Oñatik eta Zaporeak elkarteak antolatuta. Eroskin -Arantzazuko Ama kalea eta Errekaldekoa-, SM Kooperatiban, BMn eta Errekaldeko dendan batuko dituzte jakiak. Biltzen dena Zaporeak gobernu kanpoko erakundeak Lesbosen abian duen proiektura bidaliko dute oso-osorik.

'Aita Mari'-z arituko da Izaskun Arriaran Santa Ana aretoan

Aita Mari, elkartasunaren sinboloa Mediterraneoan ur zurrumbilotsuetan hitzaldia egingo du Izaskun Arriaran erizain eta itsas salbamendu humanitario boluntario aramarioarrak datorren astean Santa Ana antzokian. Urriaren 16an izango da, eguztana, 10:00etan. Esperientzia Gelaren barruan, Goienagusik antolatuta.

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



UDAKO
ARGAZKIEN
20.
GOIENA
LEHIAKETA

Zorionak guztioi!



1. saria

Juan Luis Zabala eta Halcon Bidalak-eko Maite Caballero.




2. saria

Galzka Untzueta, Gure Ametsa jatetxean.



3. saria

Alix Barbero eta Arrasateko Eroski Hipermerkatuko Nurla Sierra.



Gazte Saria

Ander Hernandez (Izaro Hernandezen alta) eta Intersport Loramendi-ko Ane del Campo eta Elene Lasaga.



Publikoaren Saria

Elias Villavencio eta Bergarako Ereindajan-eko Maite Irizar.



ANTOLATZAILEA:
goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:
EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante - Jatetxea

BERGARA
EREIN DA JAN

Halcon BIDAIAK
ARRASATE BERGARA

INTERSPORT
LORAMENDI

Xabier Urtzelai Atxa BERGARA

Goizean Bilbon entrenamendu saioa eginda azaldu da Beñat Rezusta (Bergara, 1993) hitzordura, baina oraindik aldean darama kirola egiteko motxila. "Gustatzen zait gero nire kontura korrika apur bat egin edo gimnasia joatea, bigarren lan-saio bat egitea". Bergarako frontoian elkartu da GOIENA argazkiak egiteko, baina ez da aukeraketa onena izan, sabaia konpontzeko lanetan dihardutelako. "Aurreko koadroetan eta zazpiaren bueltan aspalditik daude itoginak", dio etxeko frontoia ondo ezagutzen duen bergararrak. Gainera, Bergarako frontoia atsegina ez dudala zabaldu izan da, baina hori ez da horrela. Gutxitan etortzen gara hona jokatzera, baina etortzen garenean gustura jokatzeko bertan".

Beñat, aspaldi ez ginen zurekin patxadaz egoten; ez zara elkarriketa-zalea...

Tira, badira halakoetan ni baino hobeto moldatzen direnak. Geure lanaren parte ere bada, eta, azkenean, ohitu egiten zara. Badira halako saltsetan gustura ibiltzen diren pilotariak, baina ez da nire kasua. Frontoian egiten dudana lanak arduratzen nau, horretan zentratzen naiz. Hortik apartekoak...

Ez dizut, bada, sare sozialen gainean galdetuko.

Ez; hor ere ez naiz ibiltzen. Halakoetan ere norberak egiten duen erabilpenean dago gakoa, baina ez dakit aspaldian bada goen modurik hor erabilpen egokirik egiteko. Baina tira, sakelakoaz ibiltzen naiz niri interesatzen zaizkidan gauzak ikusten, baina ez, ez dut sare sozialik.

Uda ederra egin duzu; Gasteizko Andre Maria Zurian eta Donostia Hirian txapelkun, baita sanmateotako ferian ere.

Bai, oso gustura ibili naiz, sentazio onekin, konfiantzaz, inon minik hartu barik... Uste dut abuztuaren amaiera partidu jokatu ditudala. Azken batean, halako torneoek ere badute garrantzia, bestela atzelariok binakako txapelketara egongo ginatke mugatuta, Lau eta Erdikoa eta Buruz Burukoa ez dira-eta horrenbeste guretako. Eta hori ere ez da kontua, bestelako helburu batzuk ere izan behar ditugu. Egia da udan jarraikortasuna izan dudala

"Ez nuen uste halako ibilbidea egingo nuenik"

BEÑAT REZUSTA ASPEKO PILOTARIA

Bergarako Eskuz Binakako txapelketara begira dago jada, uda ona egin izanak ematen duen lasaitasunarekin; izan ere, hiru torneo irabazi ditu bi hilabete



Beñat Rezusta, aste barruan, Bergarako frontoian. XABIER URTZELAI

eta konfiantzarekin ibili naitzela, eta beti ez da hala izaten. Azken baten pilotari bat ez da urte osoan %100era egoten. Eskuetako arazoak egoten dira... tako gehiegitxo jarri izanak ematen dituen zalantzak... Halakorik ez dut izan, eta gustura ibili naiz.

Gainera, puntako kontrarioen aurrean gailendu zara torneo horietan.

Altunarekin irabazi nituen Gasteizkoa eta Donostiakoa eta Peio Etxeberriarekin sanmateotakoa. Oso bikote onak dira horiek, plazera da eurekin jokatzera. Eta bai, aurrean Zabaleta moduko pilotariak izan ditugu, erreferenteak direnak. Halako torneoek hori dute, formatu txikian puntako pilotariak batzen dituztela. Pozik geratu naiz, bai.

Gaur egun Altunarekin bikotea osatzeak zenbat du gozamenetik eta zenbat presiotik?

Jakinek da txapelketa guztietan finalaren bueltan ibiltzen den pilotaria dela, eta harekin bazuade badakizu aurrelariak neurria emango duela. Horrek eskatzen dizu zu ere maila horretan ibiltzea, badago presio apur bat. Baina haren ondoan jokatzera gozamen da; gainera, elkarrekin iritsi ginen profesionaletara eta asko jokatu dut harekin, eta asko entrenatu naiz haren ondoan. Oso ondo kon-

"UDAKO TORNEOEK BADUTE GARRANTZIA, ETA POZIK NAGO HILABETE HAUETAKO LANAREKIN"

pontzen gara elkarrekin; plazera da, bai.

Hamaika urte egin dituzu elitean. 2016an Berría-n egindako elkarriketa batean zenioen bazenekiela lehenago edo geroago tailerrera lanera joan beharko zenuela. Zortzi urte geroago, berdin ikusten duzu etorkizuna?

Gogoan dut ze elkarriketaz ari zaren bai [Barre]. Bada, pentsaeraz ez dut askorik aldatu. Egia da orduan ez nuela uste halako kirol ibilbide luzea egingo nuenik, baina pilotariok erretiroa hartzen dugunean lan egin behar izaten dugu, guk ez ditugu beste kirolari profesional batzuek izaten dituzten baldintzak. Ez dakit tailerrean lan egingo dudana; zorionez, erretiroa hartzen dudanean denbora tarte bat hartu ahal izango dut zer egin nahi dudana erabakitzeke, eta ondo prestatzeko. Berririo ikasketei helduko didan... Batek daki. Orain momentuan ez da askorik arduratzen nauen zerbait, iritsiko da hori ere.

Zergatik diozu ez zenuela uste pilotari moduan halako ibilbide luzea egingo zenuenik?

Nahiko pilotari atipikoa izan naitzela, ezker eskuarekin jokatzeko dudalako, eta orduan jendeak komentatzen zuen atzelari batek ezin zuela ezkertiarra izan. Nik ere banituen nire zalantzak, ez daukat erreparririk hori onartzeko, azken batean esamesa horiek eragina dutelako kirolariarengan. Zorionez, urte hauetan egindako lanari esker erakutsi ahal izan dut baietz, posible dela.

Lehen aipatutakoaren harira, kazetariok txapelketetako finalen atarian izaten dugu joera zueganaz jotzeko; bezperako egun horiek igartzen dituzue faltan?

Finalaren bezperako egunak ez, baina finalak bai [Barre].

Urte gutxian zenbait finaletan izan zinen jarraian; 2016koa etortzen zait gogora. Irujok atzamarrean min hartu zuen hura.

Tamalez, Irujok jokatu zuen azken partidua izan zen, atzamarreko lesioaren ondoren antzeman ziotelako bihotzeko gaitza.

Arrazoi duzu, ez nuen gogoan hura izan zenik Irujoren azken partidua. Bada, bai. Final ona egiten ari ginen Juan eta biok [Urrutikoe-txearen eta Olaizolaren kontra], baina, zoritxarrez, Juan lesionatu egin zen. Txapelak galtzea beti da mingarria, baina gero

etorri zen guztiagatik-edo final hark ez zidan oroitzapen txarrik utzi.


Ondo egonda ere, halakoetan ze garrantzitsua den zorte apur bat aldeko izatea...

Zalantza barik; maila honetan detaile txikiek zeresan handia dute, batzuetan dena izaten duzu aldeko eta beste batzuetan ez. Zalaren batek gogorazten dizu aspaldian ez naizela txapelketa bateko finalera iritsi. Eta, hain justu, garbi daukat batzuetan detaile txikiengatik gertatu dela hori, eta lehenago erreskadan jokatuako final haietan ere detaile txikiek zeresan handia izan zutela, dena izan genuela aldeko. Irribarriarekin irabazi nuen binakakoan [2017], esaterako, gutxiagatik ez ginen kanpoan geratu, eta gero txapela jantzi genuen. Orain ere, sanmateotako finalerdietarako sailkatzeko 22-21 irabazi genien Ezkurdiari eta Martijari, justu-justu, eta gero, begira...

Hastear dago Lau eta Erdikoa; ze zeregin duzu datozen asteotara begira?

Lau eta Erdikoan ez dut esku hartuko; horrenbestez, orain arte baino partidu gutxiago jokatuko ditut eta Binakakoa prestatuko dut. Egia da konturatu orduko Lau eta Erdikoa amaituta egongo dela, txapelketa azkarra da, eta segituan etorriko da Binakakoa. Eta hor zaila izaten da torneo osoan ondo egotea, gorabeherak izaten dira. Urtean zehar ez dugu gimnasio askorik egiteko tarterik izaten, eta orain aprobetxatzen dut lan hori egiteko, karga gehiago sartzeko.

Ander Murua izan da gurean albiste, profesionaletarako salto egin ahal izan du Asperekin; ez dakit gomen-dioak emate zalea zaren...



Beñat Rezusta. X.U.

Garbi daukat Anderrek aukera ondo aprobetxatuko duela, ez da iritsi berria. Badira oso goiz debutatzen duten pilotariak, akaso burua ere oso zentratuta izaten ez denean. Anderren kasua bestelakoa da. Batetik, amateur mailako torneoetan nabarmentzen ibili da azken urteotan, eta hori seinale garbia da. Bestetik, denbora asko darama aste barruan profesionalekin entrenatzen, gurekin entrenatzen, eta heldutasunarekin iritsi zaio horrenbeste amestutako aukera. Orain arte ondo ikusi dut.

"PILOTARI ATIPIKOA NAIZ, EZ DAGOELAKO ATZELARI EZKERTIARRIK, BAINA POSIBLE DA"

"GIMNASIOKO LANA DATOR ORAIN; ESKUZ BINAKAKOA PRESTATZEA DUT HELBURU"

Bergarak hasieratik nahi du ligako erreferente izan

FUTBOLA Mahoneroek Oiartzunen kontra jokatu dute domekan; Aloña Mendikoek, Beti Gazteren kontra

X.U. ARRASATE

Ohorezko Erregional Mailan Bergarak bikain hasi du liga txapelketa: jokatuako lau partiduetatik hiru irabazi egin dituzte eta bigarren daude sailkapenean, Zarautzen atzetik. Bada, mahoneroek eurekin batera liga ondo hasi duten Oiartzunen bisita izango dute domekan (13:00). Egun berean oñatiarrek ere etxean jokatu dute (16:30). Txantxikuarrek arnasa hartu dute, joan den astean liga hasiera petrala eten zuen lehen garaipena eskuratuta, eta, hain zuzen, konturatu orduko zuloan sartu diren lesakarrak izango dituzte Azkoagainen aurrean.

Mondrakoe, berriz, eurek moduan liga gorabeheratsu hasi duten Vasconiako zelaian jokatu du domekan (16:00). Hiru puntu dituzte donostiarrek, eta bai gehiago zuri-moreek.

UDAK Pasaian

Etxean izugarri ondo dabil Aretxabaleta, Ibarren jokatuako partidu guztiak (3) irabazi egin ditu eta. Zapatuan, berriz, 14. postuan dagoen Pasaiaren zelaia joango dira jokatzera, 16:30ean.

Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailan iritsi berria da Bergara, eta ondo hasi du liga: jokatuako hiru partiduetatik bi irabazi ditu. Zapatuan (16:00) Lesakan jokatu du, 12. postuan dagoen Beti Gazteren kontra.

Derbia Gorengo mailan

Kategoria bat beherago, Gorenge Mailan derbia izango da debagoiendarren artean, Mondrako neskek Debagoiena Balarakoak hartuko dituzte eta. Domekan 16:30ean jokatu dute elkarren kontra, 16:30ean.



Bergararrak Eibarren kontrako partiduan, maiatzean. GOIENA

Manifestazioa deitu dute domekarako Donostian

TXIRRINDULARITZA

Gipuzkoako zenbait eragile batu dira egoera zuzendu dadin eskatzeko

X.U. ARRASATE

Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioko zuzendaritzak dimisioa eman zuen uztailan; izan ere, behin baino gehiagotan salatu duten moduan, azken urteak trabaz betetakoak izan dira. Moto-enlazeen aseguruakin izan zituzten arazoak, segurtasun zerbitzuak kontratatzeko izan diren gaingastuak... Halakoek ez dute lagundu, baina buruhauste handienak lasterketak antolatzeke orduan izan dituzte bai Federazioko ordezkariak, eta baita lasterketetako antolatzaileek ere. Eta salatu dute urte hauetan Gipuzkoako Trafiko arduradunek jarri izan dizkietela oztupo handienak.

Hori guztia amaitu eta administrazioari konponbide bat bilatzeko eskatzeko, manifestazioa deitu dute domekarako, hilak 13, Donostian. Antonio Elorza belodromotik abiatuko dira, 11:00etan, eta Donostiako udaletxearen aurrean bukatuko dute. "Etorkizunean txirrindularitza Gipuzkoan ikusten jarraitu nahi badugu, denok borrokatu behar dugu eta lortzen dena denentzako mesede izango da", adierazi du Santi Osoro zuzendari ohiak, deialdia zabalatzeko bidean.



Realaren eta Osasunaren arteko partidarako sarrerak
futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Osasuna norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partidua urriaren 27an izango da, 21:00etan. Parte hartzeko azken eguna: urriak 18.

Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



Egin
Goienakide
eta Reala
ikusteko aukera
izango duzue!

goiena"
kide

Okm:
batzen gaituen
distantzia

DANBAKA))))))

Aitziber Aranburuzabala Juldain

BERGARA

1.098 izan ziren boto baliiodunak, eta 315 jaso ditu rock alternatiboarekin, post punkarekin eta beste soinu batzuekin esperimintatzen duen Arrasateko Ondare laukoteak. "Oso pozik gaude publikoak izan duen inplikazioarekin. Jasotako boto kopurua itzela da. Zorionak, bada, Ondare taldeari eta besarkada bat kanpoan geratu diren zortzi taldeei", azaldu du Danbakako koordinatzaile Jokin Bereziartuak.

Orain dela bi urteko formatua

Lau emanalditan banatuta, hamasei talde izango dira Bergarako Seminarixoa aretoan lehian; taldeen egutegia fintzen ari da antolakuntza taldea. Urriaren 25ean izango da lehenengoa, azaroaren 15ean bigarrena, azaroaren 29an hirugarrena eta laugarrena abenduaren 13an; finala, berriz, urtarrilaren 17an jokatu da. "Orain dela bi urteko formatu bera izango du lehiaketak; hau da, 21:30ean hasita, kontzertu gau bakoitzean lau musika proiektu izango dira, eta ordu erdiko emanaldia egingo du bakoitzak. Musikazaleok, bada, askotariko estilo eta formatutako proposamen interesgarriekin gozatzeko aukera izango dugu oraingoan ere", gaineratu du Bereziartuak.

Guztiontzako ateak zabalik

Musikazaleen topagune izan gura du Goienak Bergarako Udalarekin elkarlanean eta beste erakunde batzuen laguntzarekin antolatutako seigarren Danbakak. "Musika lehiaketa inguratzen duten gainerako aldagai edo elementuak ere bertan izango ditugu; izan ere, bi gune izango dira aurten ere: Seminarixo barruko lehiaketaz harago, aretoaren kanpoan, arkupeetan, chill out gunea izango da, non bestelako musika proiektuekin gozatzeko aukera izango dugun, bertan izango den Sanprubusean mokadutxo bat hartu edo zerbait edaten dugun bitartean".

Kontzertu guztien grabaketa

Jarraipen zabalera egingo zaie Seminarixoko emanaldiei Goienaren euskarrietan. "Kontzertu guztiak grabatu egingo dira eta Goiena telebistan eta *Goiena.eus* atarian eskainiko dira gero. Horrez gainera, erreportajeak ere egingo ditugu, hain

Entsegu lokaletan su txikian egosten dagoena, Danbakan dastagarri

Amaia Arriaran, Ainhoa Vitoria, Sara Alonso, Iñigo Ugarte eta Julen Narbaiza seigarren Danbaka lehiaketako epaimahaikideek aukeratutako hamabost lehiakideez gainera, publikoaren boto bidez lortu du Arrasateko Ondare taldeak hamaseigarren txartela

zuzen, protagonistei eta ekime-nera batzen diren guztiei me-rezitako tokia eginda".

Aurten, berrikuntza moduan, baina, *Danbakast* musika-tertulia dago. "Goiena telebistako platoon eta sekulako atrezzoarekin bideo-podcast bat ari gara egiten. Lehiaketari buruz gain, musika esparruko askotariko arloen gainean ere jardungo dugu. Sekulako tertuliakideak eta gonbidatuak fitxatu ditugu; bada, hortxe gonbidapena Danbakari modu horretan ere jarraipena egiteko".

'Danbakast', estreinatuta

Atzo hasita, lehiaketak iraun bitartean, eguenero izango da *Danbakast* bideo-podcastaren atal berri bat Goiena telebistan, 20:00etan eta 22:00etan ikusgai; eta ondoren, *Goiena.eus* atarian eta Spotify plataforman ere bai. "Danbakaren hastapenetaraino hurbildu ginen atzoko kapitulu-uan. Lehen edizioako epaimahai-kide izan zen eta gaur egun ere musikaria eta musika irakaslea den Nagore Sanz bergararra eta Iñigo Biain Oñatiko musikaria, orain dela hogeitau urteko Danbakan Amonal taldearekin parte hartu zuena, izan genituen mahaiaren bueltan, eta, haiez gainera, Danbaka proiektua abiarazi zuen lantaldeko kide Iker Barandiaranek ere istorio polit asko kontatu zituen".

Danbaka lehiaketan parte hartuko dutenak



721-GOGOR GABILTZA

- Aretxabaleta.
- Trap-punka.



BANANA SHAKE

- Arrasate.
- Ska-punka.



DEL VAL

- Arrasate.
- Popa.



ETEN

- Aretxabaleta.
- Rocka.



HENKO

- Oñati.
- Metala.



K-PO

- Bergara.
- Housea, funk brasildarra eta reggaetona.



KARENA

- Antzuola eta Hernani.
- Pop-folka.



KORDA ROTA

- Arrasate.
- Eskandinaviako rocka.



KTARSIA

- Bergara.
- Akustikoa.



LOW COST DELUXE

- Bergara.
- Rocka.



MAIDER MIMI

- Aretxabaleta.
- Askotariko estiloak.



MALKO

- Oñati.
- Rocka.



ONDARE

- Arrasate.
- Rock alternatiboa eta post-punka.



REBEL NOISE

- Arrasate.
- Punk-oi!-a eta punk-rocka.



SOTOALDE

- Bergara.
- Musika urbanoa.



TXERRIKUMEAK

- Aretxabaleta.
- Punk-rocka.

Kontzertuak

URRIAK 25

- KORDA ROTA.
- KTARSIA.
- SOTOALDE.
- MALKO.

AZAROAK 15

- ETEN.
- LOW COST DELUXE.
- TXERRIKUMEAK.
- K-PO.

AZAROAK 29

- DEL VAL.
- HENKO.
- REBEL NOISE.
- KARENA.

ABENDUAK 13

- BANANA SHAKE.
- ONDARE.
- 721-GOGOR GABILTZA.
- MAIDER MIMI.

'Hamelingo txirularia', Bergarakoek abestuta

Grimm anaiak idatzitako istorio ezaguna euskaraz abestuta eta antzetzuta eskainiko du Bergarako Antzerki Musikala (BAM!) elkarteak azaroaren 9an eta 10ean Seminarixoa aretoan; gaur hasita, sarrerak salgai daude 'Seminarixoa.eus' atarian

Aitziber Aranburuzabala BERGARA Musikalak egiteko abilezia dutela aspaldi erakutsi zuten Bergarako musikariek. *Miserableak* taularatu zuten 1991n, eta hamahirugarrena, *Hamelingo txirularia*, estreinatzeko atarian dago Bergarako Antzerki Musikala (BAM!) elkarteak. "Orain dela urte asko ezagutzen dugun Iñigo Casali konpositorearen lehen opera oinarri, baina gure musikal formatura egokitu dugu eta euskarara itzuli", azaldu du *Hamelingo txirularia* musikaleko zuzendari Valen Moñuxek.



Parte hartzaileak, konpositorea eta babesleak, martitzeneko aurkezpenean. BAM!

"Elkarlan polita eta aberasgarria ari dela izaten" dio Moñuxek, eta hala berretsi du Casali konpositoreak ere: "Oso pozik eta eskertuta nago konposatu nuen nire lehen opera euskaraz ikusi ahal izango delako. Obra hau aukeratu nuen, flautista naizelako eta aukera dramatiko eta musikal asko dituelako. Ez nuen errezitatutako tarterik sartu gura izan, aspergarri samarra iruditzen zaidalako eta oso gustuko dudana abesbatzei egin nahi nielako, bereziki, tokia".

Ehun lagunetik gora

Ikuskizunaren atzean lantalde handia dagoela gaineratu du Moñuxekin batera zuzendari

lanetan jardungo duen Ander Arrutik: "Taularen gainean hamar pertsonak osatutako orkestra eta berrogei aktore-abeslari heldu eta beste horrenbeste aktore-abeslari gazte izango dira". Eta haiek guztiak apainduko eta jantziko dituzten herriko askotariko artistak ere gogora ekarri ditu Moñuxek: "Guk sortu ditugu dekoratuak eta jantziak; ezin aipatu barik utzi, bada, besteak beste, Lierni Narbaizak, Arantza Ibarzabalek, Amaia Markok eta Ander Arrutik egin duten lan itzela".

BAM!-ek egin badu ere, Bergarako Musika Eskolaren "ezinbesteko laguntza" dute, baita Bergarako Bandaren eta Orkestraren, Bergarako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Arcelor Mittal-en babesa ere.

Seminarixoa, lau emanaldi

Azaroaren 9an eta 10ean eguneko bi saio eskainiko dituzte, 17:00etan eta 19:00etan. Gaur hasita, *Seminarixoa.eus* atarian eros daitezke sarrerak -20 eta 15 eurotan-, eta eguaztenetan, Seminarixoko leihatilan ere bai.

Debagoieneko lau bertsolari, final-laurdenetarako sailkatuta

Oihana eta Haizea Aranak, Mainer Arregik eta Aitor Tatiegik Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan segida dute

A.A.J. ARRASATE

Final-zortzirenetako saioak amaituta, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehian jarraituko dute Oihana eta Haizea Arana eskoriatzarrek eta Oñatiko Mainer Arregik eta Aitor Tatiegik;

Ane Zuazubiskar arrasatearrak ez du final-laurdenetarako sailkatzea lortu.

Sarrerak eskuragarri

Urriaren 19an abiaraziko dute fase berria eta bost saio izango

dira, guztira. Eskualdeko bertsolarietara dagokienez, Haizea Arana izango da lehiatzen lehena, urriaren 19an, Eibarren; Errenterian izango da, berriz, hurrengo egunean haren ahizpa Oihana; eta Aitor Tatiegik eta Mainer Arregik Tolosako Leidor antzokian izango den azkeneko saioan kantatuko dute, azaroaren 3an.

Txapelketako fase guztietako -final-laurdena, finalurrekoa eta finala- saioetarako sarrerak dagoeneko eskuragarri daude *Bertsosarrerak.eus* atarian.

Goienakideen txokoa

URRIKO SARIAK

TD Systems telebista (32')

Parte hartzeko sariaren izena: telebista



EROSKI APPASATE

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUZ ORRIKO KUBAL

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [buzkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia "goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 10/10/2024 eguneko 12:00etan zuzendariaren bidez jakinaraziko da. Zozketaren irabazlearen izena publikoan argitaratuko da. Irabazlearen izena ez bada jakinaraziko, zozketaren irabazlearen izena publikoan argitaratuko da. Irabazlearen izena ez bada jakinaraziko, zozketaren irabazlearen izena publikoan argitaratuko da. Irabazlearen izena ez bada jakinaraziko, zozketaren irabazlearen izena publikoan argitaratuko da.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko udalari esker

'Wai', 'Dilas cara adentro' eta 'Out of silence' dantza-diraiko sarrerak ditugu. Arrasate | Amaia Antzokia | Urriak 20 | 19:30ean

Ointzei Arrasateko Saskibaloi KERi esker

LF2 eta 3FE8 kategorien partidusak ikusteko bi abonu ditugu

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Dantza" edo "Dantze" [buzkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia "goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 10/10/2024 eguneko 12:00etan zuzendariaren bidez jakinaraziko da. Zozketaren irabazlearen izena publikoan argitaratuko da. Irabazlearen izena ez bada jakinaraziko, zozketaren irabazlearen izena publikoan argitaratuko da. Irabazlearen izena ez bada jakinaraziko, zozketaren irabazlearen izena publikoan argitaratuko da.

Irabazi bi lagunendako otordua

ELGETAKO MAIALDE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: urriak 15

943 25 05 05 goienakide@goiena.eus "Goiena app"-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE Jatetxea [buzkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



Ordaindu 2025eko kuota, 65€, eta abantailak DOAN aurtingo abendura arte. Datu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate eta inguruak. Etxebizitza errentan hartuko genuke. Bikote arduratsua. 602 42 71 27

Bergara. Errentan hartzeko pisu bila nabil. Bi pertsona gara. 645 72 92 87

Debagoiena. Pisu bila dabilen bikote bat gara. Ez daukagu animalirik eta biok lan egonkorra dugu. 652 37 52 09 edo 650 18 65 27

Oñati. Oñatiko bi gazte etxebizitza bat errentan hartzeko bilatzen ari gara. Langileak eta arduratsuak. Lanpostu egonkorra dugu. 603 34 39 05

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garajea errentan hartuko nuke Oñatin. Deitu 615 74 17 87 telefono zenbakira.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Aretxabaleta-Eskoriatza baserria. Baserri batean, adineko emakumea zaindu eta etxeko lanak egingo dituen emakume baten bila gabiltza. Asteleheneetik larunbatera bitarteko 40 ordutako kontratua, goiz eta arratsalde. Ibilgailua edo gidabaimena eta Soziosanitario titulua beharrezkoak dira. Baldintza onak. Telefonoa: 628 44 00 49 (15:00etatik aurrera deitu)

Arrasate. Adineko pertsona bati lagundu eta konpainia egingo dion norbaiten bila nabil, baita garbiketa-lanak egin ditzan. Asteleheneetik larun-

batera, goizez eta arratsalde, orduka lan egingo duen norbait behar dugu. 669 11 28 94

Bergara. Emakume bat behar da nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egingo, etxean bertan bizi izaten. 607 54 07 72

402. ESKAERAK

Arrasate. Gizon arduratsua hainbat lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaindu, garbiketa lanak, eta bestelakoak egiteko prest. Malgutasun osoa dut, etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Telefonoa: 674 60 38 29

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza. Nagusiak zaintzen eta hauek pasiatzera atereaz lana egingo nuke, baita garbiketa lanetan ere. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egiteko prest nago. Pertsona arduratsua naiz. 603 35 40 08

Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Bergara. Emakume gaztea ostalaritzan edo enpresen garbiketetan lan egiteko gertu. Asteburuetan edozein ordutan eta aste barruan arratsalde lan egin dezaket. 603 71 72 39.

Arrasate. Arratsaldetan, 16:00etatik aurrera, lana egingo nuke. Garbiketa lanetan, nagusiak zaintzen eta hauek pasiatzera atereaz. Pertsona arduratsua naiz. Deitu 682 31 97 37 zenbakira.

Arrasate. Larunbatetan garbiketa lanak egiteko lan bila nabil. 7 urteko lan esperientzia dut. Telefonoa: 612 51 42 99

Bergara eta Arrasate. Bergaran, neska goizetan garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak pasiatzeko prest. Asteleheneetik ostiralera Arrasateko ospitalean gauak egiteko aukera dut. 642 37 01 92 (Lina Marcela)

Bergara, Antzuola eta Arrasate. Orduka, nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Legezko agiriak ditut. 666 16 95 62

Bergara. Goizetan haurren zaintzaile izateko prest. 21 urte dituen neska arduratsua eta euskalduna. Nirekin harremanetan jartzeko deitu edo whatsapp bat bidali 638 21 48 19 zenbakira.

Debagoiena. Asteburuetan eta jaiegunetan lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Deitu 672 94 82 80 telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxetik kanpo bizitzen lan egingo nuke. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. 662 02 45 80.

Debagoiena. Etxeak, lantegiak, elkarteak eta bestelakoak garbitzeko prest dagoen gizonetako. Esperientzia dut ospitalen eta enpresa industrialen garbiketetan. Orduetegi aldetik malgutasuna daukat. 645 72 92 87

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Pertsona nagusien zaintzen lan egiteko gertu. 611 75 39 92

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zain-

tzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. 662 43 08 54

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. 631 99 55 58

Debagoiena. Pertsonen zaintzan edota garbiketa lanetan aritzeko gertu. 15 urteko esperientzia dut. Soziosanitario titulua. 602 07 40 39.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Perkusio irakasle bila. Arrasateko neska euskalduna naiz. Perkusio instrumentu ezberdinak (bongoa, djembea, kajoia...) jotzen ikasteko irakasle bila nabil. Telefonoa: 686 33 43 83

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Hustutako katu emea opari. Hustutako katu

emea oparitzen da. 9 urte inguru ditu. Deitu 615 73 68 07 edo 606 65 66 61 telefono zenbakira.

8. DENETARIK

807. AURKITU

Eraztuna aurkitu dugu. Urkulu inguruko basoan urrezko ezkontza-eraztun bat aurkitu da. Barnean testua dauka idatzi. Harremanetarako deitu 656 90 82 93 telefono zenbakira.

ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
Laida Orueta Akizu
Urriaren 16an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, maitia. Besarkada haundi bat etxeko danon partetik printseza!



OÑATI
Gabriel Kortabarria Ali
Urriaren 15an, 10 urte. Zorionak, maitia, zure familia guztiaren partetik!



OÑATI
Irati Lizarralde Urrutia
Urriaren 14an, 5 urte. Zorionak, Maitia! 5 urte gure bizitza alaitzen. Ondo pasa zure eguna eta patxo erraldoi bat familia danan partetik!



ESKORIATZA
Intza Kortazar Errasti
Urriaren 13an, 11 urte. Besarkada eta muxu potolo bat, edo bi, edo hiru,.....familia osoaren partetik. Ondo pasa zure eguna. Zorionak!



BERGARA
Sua Olabarria
Urriaren 11n, 2 urte. Zorionak, pittin! 2 urtetxo politxo! Asko maitxe zaitzugu! Besarkada eta patxo bero bat etxeko danon partetik, Martin eta Danelena bereziki!

Bergara: Belanbide, 53m², 2 logela, terraza eta igogailua. 220.000€

Bergara: Irizar Ibilbidea, 78m² erabilgarri, 3 logela, igogailua, balkoia, trasteleku. 310.000€

Bergara: Herrilagunak, 52m², 2 logela, igogailua, trasteleku. 195.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio gehiago:

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



'GIPUZKOAN EGINA' SAIO BERRIA

Gipuzkoako hainbat enpresa barrutik ezagutu eta zer ekoizten duten ikusteko aukera egongo da.

'Gipuzkoan egina' Egubakoitza, 20:30 eta 22:30




'BIXI IBILI' TRIBIAL-JOLASA

Bailarako herri guztietatik pasako da Aitor Agiriano, galdera-erantzunen jolasarekin.

'Bixi ibili' Martitzena, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.



ARRASATE
Sarita Vasquez Carballo
Urriaren 3an, urtebete. Zorionak zure lehen urtebetetzean. Zure gurasoen, anai-arreben eta familiaren partetik.



ESKORIATZA
Ander Beitia Oyaguren
Urriaren 8an, 7 urte. Zorionak, Anderxo! Patxo haundi haundi bat maitte zaitugun danon partetik!

OROIGARRIA

Patxi Basauri Elkoro

2024ko urriaren 9an hil zen, 79 urte zituela.



Elgetako Udalak eta bere langileek saminez jakinarazten dute gure alkate ohiaren, Patxi Basauri Elkoroaren, heriotza. 31 urtez gure herriaren gidari izan zen, eta urte haietan guztietan gure herriaren alde eskainitako dedikazioagatik beti izango dugu gogoan.

Haren familia eta lagunei gure doluminik zintzoenak helarazten dizkiegu, eta bihotzez eskertzen dugu gure herriaren alde egindako lana.

Betiko esker onez eta maitasunez gogoratuko zaitugu. Goian bego.

Elgetako udala.
Elgetan, 2024ko urriaren 11n.

OROIGARRIA



Primi Leibar Kortabarria

Luis Ayastuy Aranaren alarguna

2024ko urriaren 5ean hil zen, 95 urte zituela.



Santatzeko magalien sortue zu izen zara gure sutondue bizi osuen zugandik jasotakue betiko gure barruen, gure goguen.

Zure grina, gure indderra zure berbak, gure arima zure falta, gure mine zure barrie, gure poza zure argixe, zeu, gure izerra.

Toki Alaittik eskerrik asko egunotan geuz egon zarien danoi.
Gesalibarren, 2024ko urriaren 11n.

OROIGARRIA



Koldo Martinez Barral

2024ko irailaren 20an hil zen, Fuerteventuran, 57 urte zituela.



Beti gure bihotzetan.

Izen libre.

Etxekuek.
Arrasaten, 2024ko urriaren 11n.

URTEURRENA

Jose Mari Urzelai Aiastui

1936/08/15 - 2023/10/07




Maitasunez beti gogoratuko zaitugu.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 12an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.


Aurrez eskerrak bertaratuko zareten guztioi.
Oñatin, 2024ko urriaren 11n.

URTEURRENA



Iñaki Ostolaza Echaburu


2023ko urriaren 10ean hil zen, 81 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 13an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.


Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2024ko urriaren 11n.

URTEURRENA



Juan Angel Fernandez Lopez


2020ko urriaren 16an hil zen, 62 urte zituela.



Horrenbeste maite zaitxugu, ezin dala gehixau maite.

Etxekoak.
Arrasaten, 2024ko urriaren 11n.


ESKER ONA



Lourdes Iñurritegui Zubia

Manolo Zabalen alarguna

2024ko urriaren 3an hil zen, 84 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiararen izenean.

Oñatin, 2024ko urriaren 11n.

MEZA



Carmen Viciña Dorronsoro

2024ko urriaren 2an hil zen, 84 urte zituela.



Haren aldeko meza zapatuan izango da, urriaren 12an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2024ko urriaren 11n.



BABESLEA

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurnitako guztiei espen bidea azaritzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak guggan izan dituzten konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban eta Maribi

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



HILDAKOAK

- Maurino Treceno Terceño.** Aretxabaletan, urriaren 3an. 86 urte.
- Kontxi Galdos Elorza.** Arrasaten, urriaren 3an. 81 urte.
- Leonor Velasco Herrero.** Arrasaten, urriaren 3an. 88 urte.
- Ramon Zuazua Beitia.** Arrasaten, urriaren 8an. 81 urte.
- Primi Leibar Kortabarria.** Arrasaten, urriaren 5ean. 95 urte.
- Ines Cenciaga Olalde.** Arrasaten, urriaren 10ean. 97 urte.
- Adrian Moreno Fernandez.** Bergaran, urriaren 4ean. 92 urte.
- Enrique Nieto Suberviola.** Bergaran, urriaren 8an. 96 urte.
- Luis M^a Ayucar Zudaire.** Bergaran, urriaren 8an. 71 urte.
- Patxi Basauri Elkoro.** Elgetan, urriaren 9an. 79 urte.
- Felicitas Espinal Espinal.** Oñatin, urriaren 6an. 90 urte.
- Lourdes Inurritegui Zubia.** Oñatin, urriaren 3an. 84 urte.

BERRI-ZAKUA



Jose Luis eta Milagros
Jose Luis Azkarate Zabarte eta Milagros Beitia Leon arrasatearrak orain dela 54 urte ezkondu ziren, urriaren 10ean. "Zorionak eta urte askotarako, aitaita eta amama! Oihan, Lide, Hegoi eta Garazi biloben partetik".



Ana eta Antonio
Ana Muñoz eta Antonio Pilo eskoriatzarrak urriaren 12an ezkonduko dira Aretxabaletako udaletxean. "Zorionak, bikote! Primeran pasa zuen eguna eta disfrutatu Lanzarote aldean. Oso zorionsu izan!".

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 11

ARETXABALETA Erraldoien konpartsa osatzeko ate irekiak Horren gaineko argibideak emango dituzte.

Arkupen, 18:00etan.

BERGARA Bergara Hiria argazki lehiaketako lanak

Zuri-beltzeko eta koloretako argazki onenak ikusgai egongo dira, gaurtik hilaren 20ra arte.

Arozegin, 18:00etan.

ANTZUOLA Zinema ikusezina

Hainbat film proiektatuko dituzte, Anelkar Elkartasun Taldearen eskutik.

Torresoroan, 18:30ean.

ARETXABALETA Ametzueta lagunartearen batzarra

Realaren lagunarteak batzarra.

Arkupen, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Herrixa kuartelera!'

19:00etan, kalejira gaiteroekin; eta 20:00etan, Wood Strings, Nick Linbött eta Jasan taldeak.

Zaloñaurreko hanburgesak jateko aukera egongo da.

Kuartelean, 19:00etan.

BERGARA 'Euskararen egoera Lehen Karlistaldian Bergara aldean' hitzaldia

Juantxo Madariaga historialari eta irakasleak egingo du berba, Lanbroa kultura elkarteak gonbidatuta.

Irizar jauregian, 19:00etan.

OÑATI Erradiologiaren gaineko hitzaldia

Erradiologian aditu Laura Oleaga oñatiarrak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.

Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ZAPATUA 12

ELGETA Auzolana Egoarbitzan

Herri-lur sailak garbitzeko deia zabaldu dute. Udalak jarriko ditu erremintak, hamarretakoa eta garraioa.

Mendizaleen plazan, 08:30ean.

ANTZUOLA Erreka garbiketa

Debagoienean Errekak Bizi Auzolanean egitasmoaren eskutik. Bailarako gainerako herrietan hilaren 19an egingo dute.

Herriko Plazan, 10:00etan.

OÑATI Film laburren ikastaroa

IKusiHI! lehiaketara aurkeztzen diren taldeendako.

Gaztelekuan, 10:00etan.

OÑATI Elkartasun azoka

Hotz Oñatiren materiala eta produktuak erosteko aukera.

Foruen plazan, 11:00etan.

ARETXABALETA 'Herrixa kuartelera!'

12:00etan, Jaiki elkarte dantzariak, Zutunpa txalapartariekin batera; 13:00etan, Mutiko Kristal grafiti-egilea, DJak lagunduta;

14:03an, bazkaria; 16:00etan, J&B bikotea; eta 18:00etan hasita, Oihu, 721, Txit Karamarro, Eten, BRGS eta Neallta Fola taldeak. Tipi Tapa foodtruck-a egongo da.

Kuartelean.

ARRASATE 'Pin Pang' haur antzerkia

Umorezko zirku ikuskizuna da, eta Xabi Larreak gutxiagorekin bizitzera gonbidatuko ditu ikusleak. Sarrerak, bost euro.

Amaia antzokian, 17:00etan.

ARRASATE 'Among us' jolas erraldoia

Gaztetxoentzako ekimena. Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA 'QueElorregi LGBTQ+' jaia

22:00etan, Altxalili Kabareta; 23:30ean, Xarma Leone; 00:00etan, Xabier Etxaniz eta Uxue Kerejeta; eta 01:30ean, MJ Manuela Ahizpa. Elorregin.

DOMEKA 13

BERGARA 'Historiaren jarroa: kultura eta uraren bideak Bergaran' bisita gidatua

Pagola-Loidi ibilbide gidatua egingo dute Europar Ondare Jardunaldiak programaren baitan. Izena emateko

(bi euro): laboratorium@bergara.eus edo 943-76 90 03. Prezioa: 2 euro. Gortako kantuan, 10:30ean.

ANTZUOLA Azaldegietako jaia

Atsedun-gunea konpondu osteko inaugurazioa: 11:00etan, mokadutxo; eta 12:00etan, erromeria Astiazaran eta Narbaiza bikotearekin.

Azaldegietan.

BERGARA Txapa Irratiko programazioaren aurkezpena

Zuzeneko irratsaioarekin aurkeztuko dute. Zuzeneko musika ere izango da, Xabier Badiolaren eskutik.

Txapa Irratian, 12:30ean.

ARRASATE Herri kirolak

Gaztelekuko gaztetxoendako. Zaldibarren, 18:00etan.

ARRASATE Balta Bordoy & The Bad Boys taldea

Bartzelonako taldeak *Rock my blues* away albuma aurkeztuko du.

Herriko Plazan, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Ai, gure juaneteak!' ikuskizuna

Hitez eta musikaz osatutako ikuskizuna, Patxo Telleriaren eskutik. Mikel Laboaren zenbait kantaren interpretazio pertsonalak egiten ditu. Sarrerak, bost euro.

Arkupen, 19:00etan.

BERGARA Organo emanaldia Ignacio Arakistain organo-jolea eta Aritz Segura flauta-jolea; Nazioarteko Organo Erromantikoaren Zikloa. Santa Marina parrokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 14

ARRASATE '40 años informando sobre viajes y aventuras' hitzaldia

Roge Blasco kazetariak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. Kulturaten, 10:00etan.

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatuko dituzten Antzuolan, Oñatin, Bergaran eta Arrasaten.

Herri horietan, 12:00etan.



TARTEAN TEATRO

ARETXABALETA 'Ai, gure juaneteak' ikuskizuna

Hitez eta musikaz osatutako ikuskizuna da Patxo Telleriak dakarrena, Mikel Laboaren zenbait kantaren berrinterpretazioa eginez: *Izarren hautsa, Negu hurbila, Haika mutil, Baga biga higa...* Sarrerak, bost euro.

Etzi, domeka, Arkupen, 19:00etan.

OÑATI Idazketa lantegia

Joxemari Iturralde gidatuta da. Gaur hasiko dute ikasturtea. Liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE 'Zenbat lo' liburuaren aurkezpena

Haur batek kartzelarekin eta preso dagoen amarekin daukan harremanari buruzko liburua.

Irati tabernan, 19:00etan.

MARTITZENA 15

DEBAGOIENA Barandiaran museora bisita

Goienagusiko kideendako. Autobusak egingo duen ibilbidea: 09:00etan, Eskoriatzan (Akeita); 09:05ean, Aretxabaletan (Azbe); 09:15ean, Arrasaten (Udaltzaingoa); eta 09:30ean, Bergaran (bus geltokia). Herririk herri.

BERGARA 'Mindfulness'-a, emakumeen ahaldunderako

Martitzeneko, Jabekuntza Eskolaren baitan, abenduaren 12ra arte. Agorrosinen, 10:30ean.

ELGETA Baso-bainua Asentzión

Debagoieneko Erreka Auzolana lantaldearen eskutik. Asentzión, 17:30ean.

BERGARA Joskintza eraldatzailea

Martitzeneko, Jabekuntza Eskolaren baitan, abenduaren 12ra arte. Irizar jauregian, 18:00etan.

OÑATI Komiki solasaldia

Uxue Alberdiren eta Susanna Martinen *Surflaria* komikiaren gaineko saioa, Igor Leturiak gidatuta. Egileak egongo dira. Saio irekia izango da herritar guztientzat. Liburutegian, 18:30ean.

BERGARA Bergarako ibai sarearen gaineko solasaldia

Joserra Diazek egingo du berba, Debagoieneko Erreka Auzolana lantaldeak gonbidatuta. Olaso dorrean, 18:30ean.

ELGETA Hitez Pitz irakurketa taldea

Adriano Mataren *Sanroketarako, etxean* liburuaren gainekoa. Liburutegian, 19:00etan.

OÑATI 'Ta argiya in zan' ikus-entzunezkoa

Urumeako zentral hidroelektrikoari buruzko lan artistikoa, Eli Pagola Apezetxearen eta Ainhoa Gutierrez del Pozoren eskutik. Ostean, solasaldia. Kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE 'Traineras: pasión por el remo' pelikula

Martitzeneko emanaldia. Amaia antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 16

ELGETA Topaketak idazleekin LHko 4., 5., eta 6. mailetako ikasleentzako topaketa *Gau beltza* liburuaren idazle Josu Ozaitarekin.

18:00etan hitzaldia egingo du, gazteendako zein helduendako. *Liburutegian, 09:00etan.*

OÑATI 'Aita Mari'-ren gaineko solasaldia Izaskun Arriaranekin Izaskun Arriaran erizain eta itsas salbamendu humanitarioko boluntario aramioarrak egingo du berba. *Santa Ana antzokian, 10:00etan.*

BERGARA 'Elikadura menopausian: goseak buztana labur', hitzaldia Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren baitan. *Irizar jauregian, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'Erreken garbiketarik errestauraziora' hitzaldia Arturo Elosegik egingo du berba, Debagoieneko Erreka Auzolana lantaldeak gonbidatuta. *Arkupen, 18:00etan.*

ESKORIATZA 'Gazteen ongizate emozionala: hezkuntza ez formal' parte-hartze foroa Udal teknikariak eta zinegotziak elkartuko dira. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ARRASATE Araztegiara bisita Debagoieneko Erreka Auzolana lantaldearen eskutik. *Araztegiaren sarreran, 18:00etan.*

BERGARA Kartzela zaharreko Irakurketa Taldea Markos Gimenezaren *Karteletarak* proiektuaren gainean jardungo dute, Joseba Sarrionandiarekin. *Kartzela zaharrean, 18:30ean.*

ELGETA Herriko Foroa Ikasturte berriko lehen batzarra. *Udaletxean, 19:30ean.*

OÑATI 'Lurpeko ura, babestu beharreko altxorra' hitzaldia Inma Mugertza Perellok egingo du berba, Debagoieneko Erreka Auzolana lantaldeak gonbidatuta. *Kultura etxean, 19:00etan.*

BERGARA Dokumentala: 'Zinzindurrunkarrantz' Oskar Alegria zinemagile nafarrak aitajauaren transhumantziaren

bidea jaso du Super-8 kamera zahar batekin. Zinemagilea bertan egongo da. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

EGUENA 17

OÑATI Janari bilketa Hotz Oñati eta Zaporeak elkartearen eskutik, herriko hainbat dendatan. *Herriko dendetan.*

BERGARA Bergara Oinez Mariaren Lagundiko kideek lagunduta. *Agorrosinen, 10:00etan.*

ARETXABALETA Odol-ematea Autobusa izango da, 16:45etik 20:00etara. *Durana kalean.*

ANTZUOLA 'Kalabaza hamaika eran' tailerra Olatxuko Laboreak-ek emango du, Hazien Liburutegiaren baitan. Kalabaza oinarri hartuta lau kontserba mota kozinatzeko aukera. *Olaran etxean, 17:00etan.*

ELGETA 'La estrella' antzezlan ONCEko Oroimenak Antzerki taldearen eskutik. *Espaloian, 17:00etan.*

ARRASATE 'De Juan a Juan' kontzertu akustikoa *De Juan a Juan* musikalean oinarritutakoa. Ostean, Ricardo Rodriguez Lopez idazlearen *De Juan a Juan, el libreto y un relato* liburuaren aurkezpena. *Kulturaten, 18:30ean.*

OÑATI 'Sugeak, narrastiak eta anfibioak' hitzaldia Ander Izagirrek egingo du berba, Debagoieneko Erreka Auzolana lantaldeak gonbidatuta. *Kultura etxean, 18:30ean.*

ARRASATE 'Dolu perinatala ikusgai' solasaldia Eider Otxoak egingo du berba. Saioa osatuko dute bertsoekin, musikarekin eta dantzekin: Kat Lumen, Diana Wondy eta Miren Amuriza. *Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:00etan.*

BERGARA 'Euskararen zapalkuntzari aurre egiteko borroka Ipar Euskal Herrian' hitzaldia Gorka Torrek egingo du berba, Olaso Dorrea Fundazioak gonbidatuta. *Olaso dorrean, 19:00etan.*

OÑATI 'El eco' filma, zineklubean Sarrerak, bost euro. *Zinema-aretoa, 19:30ean.*

ARRASATE Kinki Boys taldea Eskarmentu handiko musikariaren kontzertua, Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 18

OÑATI Janari bilketa Hotz Oñati eta Zaporeak elkartearen eskutik, herriko hainbat dendatan. *Herriko dendetan.*

OÑATI Odol-ematea Aurrez hartu behar da ordua: 943-00 78 84. *Enpresagintzan, 16:00etan.*

BERGARA 'Gozo Bergara' topaketa Elikadura osasungarriaren eta iraunkorraren gaineko mahai-inguruak eta solasaldia. *Udaletxean, 17:30ean.*

ARRASATE 'Kamarada' dokumentala eta solasaldia Celestino Uriarteren bizitzan oinarritutako lanaren ostean, Juan Ramon Garairekin solasaldia. *Kulturaten, 17:30ean.*

ELGETA 'Hideane eta bere lagunak' liburuaren aurkezpena Ane Bastida egilearekin. *Liburutegian, 18:30ean.*

OÑATI 'Ja! Uraren krisia Chiapasen' dokumentala eta solasaldia Ane Nafarrateren, Ihana Iriondoren eta Aitziber Jimenez de Aberasturiren lana, Debagoieneko Erreka Auzolana lantaldearen eskutik. *Kultura etxean, 19:00etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Joker: folie a deux
Domeka eta astelehena: 19:30.
Central parkeko heroiak
Domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Ei 47
Domeka eta astelehena: 19:30.

Buffalo kids
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

La infiltrada
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

Buffalo kids
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Buffalo kids
Domeka: 12:00.

Ei 47
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 22:00.
Domeka: 18:15, 20:30.
Astelehena eta eguaztena: 17:00.
Martitzena: 16:45, 19:15.
Eguena: 17:00, 20:00.

La virgen roja
Egubakoitza eta zapatua: 19:15, 21:30.
Domeka: 12:00, 16:00, 20:30.

Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:30.
Martitzena: 19:00, 21:15.

Soy Nevenka
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30.

Domeka: 12:00, 16:00, 18:15.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00.
Martitzena: 16:30.

Crossing
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 19:15, 21:30.

Domeka: 12:00, 16:00, 18:15.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:15.

Joker: folie a deux
Egubakoitza eta zapatua: 19:15, 22:00.
Domeka: 16:30, 19:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:15, 19:15.
Martitzena: 17:00.

La infiltrada
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 12:00, 17:00, 20:00.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:15, 21:45.

La sustancia
Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 20:00.

Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00, 19:45.
Martitzena: 16:45.

Los destellos
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:45, 22:00.
Domeka: 12:00, 16:15, 18:20, 20:30.

Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:15, 19:45.
Martitzena: 17:15, 19:30, 21:30.

The apprentice (La historia de Donald Trump)
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka: 20:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:15.
Martitzena: 21:30.

Superman: la historia de Christopher Reeve
Egubakoitza eta zapatua, eta astelehenetik eguenera: 17:00.
Domeka: 20:30.

Robot salvaje
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:40, 21:45.
Domeka: 12:00, 16:00, 18:15.

KRITIKA

Emmanuelle

★★★★★

Zuz.: Audrey Diwan. **Herr.:** Frantzia (2024). **Aktoreak:** INoemie Merlant, Naomi Watts, Will Sharpe. **Iraupena:** 117 minutu.

Itxuran geratuta

ANTONIO ZABALA

1974an *Emmanuelle* filma estreinatuta zen eta arrakasta izugarria lortu zuen. Espainiara ez zen heldu 1978. urtera arte, Francoren diktadura bukatuta. Pertsonaiari buruzko film askotxo egin ziren ahalik eta etekin handiena lortzeko. Orain, Audrey Diwanek, *El acontecimiento* filmaren zuzendariak, *Emmanuelle*-n beste bertsio bat egin du. Istorioa Hong Kongen kokatzen da. Emmanuelle hirira heltzen da luxuzko hotel baten funtzionamendua aztertzeko, horretan akatsik egon ez dadin. Hotelean bezeroak kontrolatuta daude, eurei buruzko ia dena ezagutzen dute, datu horiekin euren desioak guztiz asetzeko. Perfekzio horrekin paradisuan daudela dirudien arren,

bezeroei ere sortzen die mundu aseztiko eta kontrolatu batean bizi diren sentsazioa. Emmanuellek ihes egin nahi du monotonia eta hoztasun horretatik, estimulu berriak ekarriko dizkion bide misterioaren bila.

Audrey Diwanen bertsioa estetikoki oso zaindua dago. Luxuzko mundu batean murgiltzen gara. Argazkiak, jantziek eta sortzen den erritmoak itxura dotorea eta misterioa ematen diote filmari, baina, horrez aparte, kontatzen den istorioa, agertzen diren pertsonaiak, sortzen diren harremanak edo egoerak... sakontasun gutxiokoa dira. Azalean geratzen dira eta, itxuraren azpitik, interes mugatuko film bat dago.



AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI
ASKASIBAR

Engainatuak

Batzuek ohikoa dela uste baduzue ere, pasa den asteazkenean Kongresuan bizi izan zen ikuskizuna biziki lotsa emangarria izan zen, guztiz ezohikoa. Partidu Popularrak behartuta, Sanchez presidentek migrazioen gaiaren inguruan azalpenak eman behar zituen, eta agerraldia normaltasunez hasi bazen ere, PPko diputatuak txalo artean eten zuten ordu erdia pasata, Feijoo ganberara Marimar Blancorekin batera sartzen ari zenean.

Horixe izan zen ordu luzez PPK martxan izan zuen ETArekin biktimen inguruko azken zirkuaren hasiera. Hildakoen argazkiak erakutsiz, eztabaida behin eta berriz desbideratuta, etengabekoak izan ziren PPKoek ETArekin egin zizkioten aipamenak.

Partidu Popularrak hankasartze ikaragarria egin zuen Frantzia zigorra bete duten zenbait etakideri espetxealdia jaiste ekarriko dien lege erreformaren alde bozkatuta. Nahi gabe egin zutela diote, eta gobernuari leporatu, engainu egin zela. Badirudi, baina, PPKoak besteok engainatu nahian ari direla, gaitasun falta propioa biktimen minaren atzean ezkutatuta. Bada, esango nuke haien etxean paserik izan dezakeela estrategia honek, baina ez gurean, Margallo ministro ohiak esana baita: "ETAk hiltzen ez gaituenetik, ez dugu proiektu politikorik".

BUKATZEKO

"Ezinbestekoa da zein ekintza egin zuten jakitea"


Debagoieneko herri gehienetan daude "kolonialistei eta esklabistei eskainitako kaleak". Horietan agertzen diren pertsonen gaineko informazioa modu "gardenean" erakutsi beharko litzatekeela uste du 'Gure heroiak' liburuaren egile Axier Lopezek

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE

Domingo Martinez Irala (1509-1556) bergararra esploratzailea eta konkistatzailea izan zen. Karlos V.a enperadorearen gorteko jauntxo eta Paraguaiko gobernadore hamabost urtez. Kalea dauka Bergara erdigunean. *Bergarako kapitaina* ezizenez ezagutzen zen pertsona horri buruzko talde-ariketa hasi du herritar talde batek, Dekolonizatu Bergara ekimenaren baitan. Astean solasaldia izan dute *Gure heroiak: Elkanoren eta Euskal Herriko kolonialisten historia bat* liburuaren egile Axier Lopezekin. "Gure herriko kaleen izenak hain barneratuta ditugunez, ez gara nor izan diren pentsatzen hasi. Baina, batez ere, zer egin duten eta zergatik duten kale bat. Garai bateko gizartearen isla dira kale horiek guztiak", esan dio GOIENARI Lopezek.

Kale-izendegi publikoa

Garro Jenerala, Nao Santiago eta Elkano kaleak Arrasaten, Irala kalea Bergaran eta Lope Agirre kalea Oñatin dira adibideetako batzuk: "Herri bakoitzak kasuistika ezberdinak ditu, baina atzeko egoera oso berdintsua



Debagoieneko kale batzuen izenak. M.B.M.

da. Kale-izendegi publikoa eta gardena egitea ezinbestekoa da. Herritarrek jakin behar dute zein ekintza egin zuten pertsona horiek. Esklabistak eta kolonialistak izan ziren guztiak. Bilboko Udalak, adibidez, kale guztien gaineko inbentarioa dauka. 700 kale baino gehiagoren informazio zehazten du webgunean, herritarren eskura: izenaren arrazoia, nor zen pertsona hura, noiztik, nork erabakita...".

Sexu-esklabotza

Oroimen historikoa aldarrikatzen duten hainbat eragile hasi dira kale horien izenak aldatzeko eskaerak egiten. Zuztarrak Errotuz taldeak Arrasateko Alfontso VIII.a kaleari 17 Emakume kalea izena ipintzeko eskatu zion Udalarari. Urriko osoko bilkuran eman zaio behin betiko onarpena erabaki horri. "Oroimen historikoa gehienez ere heltzen da 36ko estatu-kolperara. Legeak daude.

Aipatzen da zeintzuk diren biktimak eta biktimarioak. Oso herri gutxitan geratzen dira frankismoarekin lotutako kaleak eta monumentuak. Gaur egun inork ez du aldarrikatzen frankista denik. Hortaz, garai harekin lotutako kaleak, monolitoak, monumentuak eta beste kentzeko adostasun zabala dago alderdi politikoen artean". Baina zer gertatzen da 36tik atzeragoko oroimen historikoarekin? "Frankismoaren aurretik begiratzen badugu, konturatzen gara omentzen ditugun pertsona batzuk euskal herritarrek direla, eta, gainera, zapaltzaileak, esklabistak edo konkistatzaileak izan zirela. Eta, noski, gure herriko pertsona bat zalantzan jarri behar dugunean, zauria are handiagoa izaten da. Arrasateko Garro Jenerala Espainiako kolonia askotan ibili zen, Mexikon eta Txilen, besteak beste, sexu-esklabotzarekin. Mundu mailan esklabotzaren gainean dagoen kontzientzia ikusita, nola da posible hemen halako memoria-rik eza izatea? Debagoienean esklaboak egon ziren euskal herritarrentzat lanean", azpimarratu du Lopezek.

Bi garai zehatzetan

Frankismoaren aurreko pertsonen omenezko kaleak, plazak eta monumentuak bi garai zehatzetan ipini zituzten Hego Euskal Herrian: alde batetik, Espainia bere koloniak galtzen hasi zenean, XIX. mendearan amaieran; eta, beste alde batetik, frankismoan: "Duen kale-izendegia- ren gaineko hausnarketa egin beharko luke herri bakoitzak, eta emaitzen araberako aldaketak proposatu".

DANBAKA 6. KONTZERTUEN EGUTEGIA

Bergarako Udala GIPUZKOA SEIN goiena